

JOXE AZURMENDI

**ARANA GOIRI-ren
pentsamentu politikoa**



HORDAGO

JOXE AZURMENDI

ARANA GOIRI-ren
pentsamentu politikoa



HORDAGO PUBLIKAPENAK
PUBLICACIONES

Plaza Guipúzcoa 11-1.º - Donostia
Tel. 429127 - 429128

JOXE AZURMENDI

ARANA GOIRI-ren
pentamentu politikoa

HORDAGO, S. A.

Edita: EDITORIAL LUR (Plaza de Guipúzcoa 11 - 1.º, Donostia)

ISBN 84-7099-103-5

Dep. Legal S. S. 242/79

Impreso en Itxaropena S. A. - Víctor Pradera, 2 - Zarauz

“Para que la justicia e igualdad se realicen en la sociedad bizkaina no es preciso recurrir al socialismo, que no podría conseguirlos. Esos sagrados nombres están indeleblemente esculpidos en la historia de nuestra raza, en la doctrina de nuestros padres, en la bandera nacionalista”, ARANA GOIRI.

* * *

“Absoluta independencia de Bizkaya, contra toda política españolista”, ARANA GOIRI.

Trocadero, 1974. Uste dut 74 ean izan zela, bai: urteak beti nahasten ditut. Uda zen. Han nengoen ni, Joanitarekin, egun seinalean eta leku jakinean, orduko gure non topo egin klandestinoei zegokien bezala, zein ez nekien baten zai, naturaltasun guztiarekin kafe hartzen eta lasai asko, Parisen klandestinitatera jostatzen zuten haiekin harremanetan ibiltzeak ematen zuen alaitasunarekin. Nire apunteekin etorri nintzen, harro-harro: hemen doazkizun apunteekin... Han nengoen ni, bada, Ipar Euskal Herritik etorri behar omen zuenaren zai, ezertaz enteratu gabe oraindik.

Nik eginda neukan nire parteak:

- Arana Goiri eta abertzaletasun sozialista.
- PSOE eta abertzaletasuna.
- Sozialismo abertzalea eta nazio arazoa.

Lehenengo trilogia ttipi bat, militantziak behar omen zuen oinarrizko literatura politiko apur bat eginez joateko euskaraz.

Urtebete lehenago, bilera superklandestino bat eginak gintuzun Baionan, fronte kulturalaren argitaldari bat sortzeko. (Sekula funtzionatu ez zuen lau fronteen eskema harekin genbiltzan oraindik). Azkenean ere, aktibatu beharra omen zegoen kultur frontea. Planak ez ziren txarrak. Onegiak ere baziren apika. Baina momentu batzuetan edo zer gauza sinesten duzu, sinestu nahi baduzu, eta, ez dakit

zeinen zein promesaren graziaz, plan fantastiko hura ere posible zela, sinestu genuen denok berriz ere eta martxan jarri. Sekula ez zen plan eder hutsetatik pasako. Egun hartan jakin nuen, Trocaderon: berriz ere bazen istiluren bat, gauza garbirik ez, organizazioko kerubinen eta serafinen artean (gureganaino gauzak ez ziren inoiz oso garbi heltzen), haizeak eraman zituen berriz ere plan eder guztiak, eta ez dakit zenbatgarren aldikoz bazen...

Optimismo haundiak zebiltzan orduan. Urtebete lehenago sortua zen, gure lagun batzuek, ZABAL - *zabal* izen esanahikorraz hain zuzen: “zabal mugaren gaintetiko bere begiradan eta, bide batez, zabal bere berri mezuan”. Baina “Zabal ez da mugimendu politiku batetakoa [beti hori esaten da!], elkar-hizketan landutako pentsakera aniztasuna onartzearen fruitu baino”.

Gure argitaldariak ere holako zerbait izan behar zuen: alegia, erakunde politiko batek sortzen duen ezein erakunde politikorena ez omen den argitaldaria...

Zer gertatzen zen? Gogoratu beharra dago piska bat, urteak azkar bait doaz, eta bost urte besterik ez bada ere, ikaragarri urruti geratzen ari zaigu dagoeneko.

Bi kontsideraziok, gutienez, ikuskizunik bazuen gure planteamendu haietan:

- *Behin eta berriro problema eta extabaida berdinak eta berberak ari zirela beti sortzen euskal mugimenduan: nazioa zela, sozialismoa zela, klaseak eta internazionalismoa zirela, marxismoa eta abertzaletasuna, etab. etab. Agian ez ditu irakurleak oraindik urte haiek guztiz ahaztu: ikastoletako katramilak, etenak eta borroak mugimendu politikoan, nahasteria kultur munduan. Problema horiek planteatu beharra zegoen, astekari batek uzten zuen baino luzeago eta sakonago, minimo bat argitzeko*

adina bederen, beti puntu berean itzulinguruka dantzan ez ibiltzeko.

- *Erantzun bat eman beharra zegoela problema horiei dibulgazio mailan*: eta dibulgazio mailan hain zuzen. Izan ere, argitaratzen ziren orduan liburuak, problema horietaz, Hegoa Euskadin ere. Urte horietantxe argitara bait ziren: *Marx eta Nazioa*, Garaterena; *Iraultzaz*, Torrealdayrena, *Kolakowski*, *Kultura Proletarioaz*, etab., tesi edo azterketa liburuak, edozein ez bait da holakoak irakurtzeko gauza, zortzi ordu lan egin eta gero batez ere. Horiek baino dibulgaziozkoagoak nahi genituen.

Arrakasta bizia zuen orduan, 73-74 aldera, dibulgaziozko literaturaren ideiak. Lur, Irakur Sail, Etor-Gero, argitaletxe denak hortan enpeinatzen bait ziren, Rikardo Arregik ideia hori bultzatu zuenez gero. Eta dibulgazio lan politak dauzkagu, urteotakoak denak: *Politikaren atarian*, Rikardorena berarena, *Soziologiaren hastapenak*, *Sozialismoaren frogantzak*, *Langileria historian zehar*, *Pedagogia eta Gizartea*, etab. Marxen eta Engelsen izkribu batzuk ere eman ziren euskaraz ezagutzera. Ahalegin haundia egin zen. Baina hori dena, gero kalean zebiltzan polemiken aldean, akademikoegi geratzen zen, gure gusturako. Zuzen-zuzenean polemikan sartu behar zen, polemika haiei erantzunik emango bazitzairen. Erantzun zuzenki politikoa.

Alegia, ezin esan daiteke, literatura hori dena berez polemikatik aparte zebilenik, marfil gazteluetan. JAKIN-ek, esate baterako, *Gure Ikastola*, *Kooperatibak*, etab., publikatu zituen, polemika haiei erantzutearren eta polemikan zebiltzan alderdi desberdinei espreski deituz elkarrekin idaztera, makina bat “ortodoxo” eskandalizatu eta hasarretu bait zitzaigun horregatik. Halare, Hegoa Euskadin, traba gaindiezin bat beti genuen abertzaleok, edo uste genuen eduki, gure posizioa garbi azaltzeko: zentsura, gure ustez guretzat gogorragoa, beste ezkertiar askorentzat bai-

no. Guk nahi genuena, dibulgaziozko literatura zen, bai: baina politikoa eta militantea, borroka artean zebiltzan militanteentzat egina. Erraza. Sinplea. Militanteentzako tresna bat.

Hegoaldean lasai ihardun ezinak, Iparraldera itzuli zuen, urte haietan, lehenago liburu debekatuen erosketa bezala, liburu produkzioa bera, geroz eta gehiago. Euskal Elkargoa, Elkar, Mugalde..., sortuz joan ziren, lehengoz gain. ZABAL-ek berak, "beste nehun irakurriko ez dituzun artikuluak aurkituko dituzu Zabaletan", - agintzen zuen: "Mugaz bestaldeko astekari ta agerkarietan ezin delakotz, gobernu-zentsuraren gatik"...

Asmo horiekin bildu gintuen norbaitek Baionan, 73 eko udan, idazle mordoska bat. Argitaldari bat prest omen zen jadanik, publikazioen programa egin behar zen. Programazioa ere prest zekarren besteren batek; dena prest zegoen nonbait, obrak ezik: obra errazak, arinak, politikoak, Hegoaldean publikatzerik ez zegoenetakoak.

Gogoratzen naiz, liburuok anonimoki, edo denak ize-nordeko berarekin, publikatu behar omen zirela ta, protestak sortu zirela.

Dena den, erabakiak hartuta, h.d., gure enkarguak hartuta, joan ginen handik bakoitza bere aldera. Asmo horiekin eta enkargu horiekin eginak dituzu, beraz, liburuskaok. Aspaldi samar, denborak hemen daraman habailarako. Gero, lehenengoan hutsegin eta, bizpauru aldiz egon bide dira argitaratzeko puntuan, ukituren bat beti egiten bait zaio berriro, han orri bat kendu, hemen bat erantsi. (Esate baterako, 75 ean EAS sortu zen eta zenbait ohar erantsi beharra egon zen.) Beti beren egonean egon dira, halare, biderik ezin hartuz argitara irtetzeko; eta orain, azkenean HORDAGO apunteok argitaratzera doala zinez dirudienan, neuk ez daukat kemenik ukitu berririk eta zuzenketarik egiten ibiltzeko. Bere hortan doazkitzu.

Trilogia ttipi honek —azken batetan, programatu zen guztiak xede horixe zizun— euskal mogimendu berriaren

definizio moduzko bat edo, eman behar zuen: gu zergatik abertzale garen, baina ez abertzaletasun klasikoaren arabera (lehen liburuki honetan Aranaren azterketaz egiten dena); zergatik sozialista garen, baina hori ere ez sozialismo klasiko ortodoxoen arabera.

Neu ere harrituta geratzen naiz orain, lehen liburuki honetan, esate baterako, hizkuntzari eta, zenbat begiratzen zaien, ikustean. Gauzak asko aldatu dira urte gutxitan. Oraingo planteamendu politikoetan leku gutxiago eman ohi diogu euskarari. Zilegi bekit, beraz, orduan, alfabetakuntza eta ikastola mogimenduak ere orduantxe biziki indartzen ari zirenez gero, eztabaida politikoak berak maiz-sarri euskararen inguruko eztabaidak izan ohi genituela, nire alde gogoratzea.

Giroa ere aldatuxea da. Polemikak —itzali samarrak ziruditenak, hauteskundeak direlako honekin halare berbiztuak— beste giro batetan egiten dira orain. Libururik franko ere agertu da geroztik gaion inguruan: baina erdaraz agertu da gehien-gehiena eta agian liburuskaok ez dute beren lekua guztiz galdu, euskal irakurlerik dagoen artean...

ARANA GOIRI ETA ARANISMOAREN ONDAREA

“El Libertador Vasco” da Arana Goiri, Basalduaren tituluak nahi duenez. Oraindik ez gaitu inork libertatu. Jose Antonio Agirrek, Basalduaren liburuari hitzaurrean, honela zion:

Arana Goiri sacó al pueblo vasco de su decadencia, le recordó su historia, sacudió su voluntad y le colocó en vías de recuperación y redención.

Halaber Legiatzuk:

Sabino de Arana y Goiri tiene para siempre el agradecimiento de todos los vascos al hacer revivir el sentimiento del País.

J. J. Solozabalek —*El primer nacionalismo vasco*— honela hasten du Sabin Arana Goiriren kapitulua:

Sabino de Arana y Goiri confirió al pueblo vasco, en trance de desaparición como tal, su conciencia política, la voluntad de vivir su propio destino nacional.

Paynek berak “el creador de la ideología nacionalista vasca y el fundador del movimiento” derizkio; Arana Goirik “había fundado el nacionalismo vasco moderno”.

Zer inportantzia izan du Aranak?

Sabin Aranaren lehentasuna eta inportantzia epaitzeraoan badaude diferentzia batzuk Autoreen artean. Batzuentzat “el genio, el grande, el coloso vasco” eta “el Padre, el Maestro, el Libertador” izango da. Besteren batzuek tradizioanago ikusten dizute Arana Goiri. Garaiaren “produktuago”, egile eta eragile baino: “no fue un demiurgo, ni se *inventó nada*” (Solozabal); bide beretik somatzen dugu gehienbat Ortzi, Arana Goiri antzinako ipuin eta tradizioen hildoan ikusten duela: “Lo que es extraordinario es cómo este recuerdo, si bien mitificado y aplicado a siglos nada democráticos, ha podido llegar hasta la época de Sabino Arana”; eta beste leku batetan berak: “si bien la independencia nacional por él defendida supone una innovación respecto del pasado, esta innovación queda arropada en el manto de la tradición”. Beltzak, harek beti agiri duen historiaren filosofia ez bait da “orijinaltasunik” aurkitzea errazten duena (kasi premisa bat da haren histori filosofian, konklusiorik baino gehiago, aksioma hau: “El aranismo nace no gracias a un ‘hombre providencial’, sino traído por las exigencias básicas de la sociedad vasca en transformación”), Aranaren inportantzia minimaltzera jo digu, JEL-tzaleekin polemikan sartuaz: “Los autores nacionalistas clásicos, que se han caracterizado por una mentalidad ‘elitista’, han concluido... —Así la figura de Sabino Arana nos es presentada como la de un gigante que, prácticamente solo contra todos, despierta al pueblo de su letargo mortal. —En realidad, creemos que existen elementos suficientes como para afirmar que ésta es una mistificación que no se corresponde con la realidad”.

Diferentzion azpian, asmo diferentziak aparte, historia-

ri begiratzeko molde ezberdinak daude. Hots, historiaren filosofia diferenteak. Basaldua baten histori ikuspideetan, agian, “lege historikoen” arta haundirik ez da. Beltzaren ikermoldea (hau da, ikerketaren produktua aldez aurretik baldintzen duen ikuspide historikoa, historiaren filosofia) bere metodoz berez ez doa “orijinaltasunak” bilatzera eta ezin orijinaltasunik aurkituko dizu. Lehenengoak pertsonalitate historiko batzuetan transparente bihurturik aurkitzen dizu ikerkizun masa historikoa. Hori ere metodo bat da. Biografiak hortik jotzen dizute gehienbat. Bigarrenari bere metodoak berak apenas uzten dio biografiaz baliatzea, esate baterako; eta doi-doi biografiarik egitea edo inoren biografiarik eta orijinaltasunik estimatzea; haren metodoak bilatzen duena beti ere “exigencias básicas de la sociedad” orokar haiek bait dira eta ez besterik. Bi filosofia, hasteko.

Ezberdintasunokin, abertzaletasun modernoan nabari diren diferentzien oinarriak iragartzen zaizkigu.

Diferentziok gora-behera Sabinen pertsonaren inguruan, denek aitortuko dizute, Aranzadik zioen eran, euskal historia bi partetan partitu duela: Arana aurreko eta Arana osteko historiatan. Arana ez zen noski kausa gabe sortu ta inguru gabe aritu; “Sabino no crea del vacío” (Ortzi). Buda, Jesukristo edo Marx bezain “historia banean” zegoen eta “historiatik” ari zen. Hutsetik ez da inor hasi. Halare Sabin Aranaren pentsamentu berritasuna ta “iraultza”, eskandaloa, haren garaikide guziek testimoniatu dute: aldezelek bezanbat kontradizaleek. Hain zuzen berritasun horixe izango da etsaien kontrakarra atergabe bat Aranaren aurka. Aranak zerbait zeharo berria asmatu duela. Aranak berak eta bere jarraikileek beren “berritasunaren” konzientzia osoa zuten: Larrazabalgo Mintzaldian zortzi Alderdi politiko kontatzen ditu Aranak Bizkaian; Alderdi “bizkaitarrik” ez da denetan bat bakarra ageri, Sabinen zentzuan. Mogimendu abertzalearen hasiera neketsuak berak, eta Sabinen biografiak bereberki, dokumentatzen digute hoberenik haren uste ta asmoen be-

rritasuna. “Arana —esan arazten bait dio Payneri— hubo de iniciar su campaña vizcainista prácticamente solo”...

Beharbada problema faltso bati bueltak ematen ari gara. Gaizki planteaturiko problema bati. Baina, hortaraz gero, aukeran Sabinen orijinaltasunaren alde aitortuko nuke neure burua, egin zuen eta utzi duen inpresioa ikusita.

Jakina, esaera zaharra da eta ez dugu ahazten, pentsamolde bat —Minervaren ontza— errealitatea gorpuztu ta gero hegaldatzen ohi dela. Baina, lehenengo, “esijentzia objetiboak” egotea ez da aski, handik pentsamoldea iturritik ura bezala sortzeko; gero, haren konzientzia osa dadin arte ezin esan daiteke, errealitate sozial bat konstituitua beraz heldua denik ere, bere esijentzia jakinekin; eta errealitate haren esijentziaz mintzatzea posibilitate abstraktu batzuez eta jomuga posible batzuez mintzatzea da batez ere: aranismoaren agerpenak berak konstituitu eta “heldu” du, hortakoz, duen era hortan, errealitate sozial hura, eta harek berak permititzen digu —a posteriori— di-relako esijentziak aipatzea; azkenik, ezerk ez du zihur adierazten, Euskal Herri harek nahitaez erreakzio abertzale bat sortarazi behar zuenik, foralismo geroz eta nahasiago ta hutsalago batetan itzali ordez. Erreakziorik izan bada, ordea, hortarako baldinkizunik bazegoelako ETA hortarako Arana Goiri bat agertu zelakoxe, izan da. Biak batera. Historiak egiten ditu gizonak ETA gizonek egiten dute historia.

Zer inportantzia du gaur Aranak?

Aranak euskal historian zer inportantzia duen, ez da problema historiko soila. Funtsean eta barne-barnean problema historikorik batere ez da, hauzia nola dabilen ikusten badugu. Hauzi politiko ta filosofikoa da. Eta egiazko hauzia, Sabin Aranaren pertsonarena baino gehiago, mogimendu abertzalearen hauzia da. Mogimendu abertzaleari onerizten dionak, Arana goretsi ohi du. Gaitzerizten dio-

nak, Arana kondenatzen dizu. Hori denek bait dakite: mogimendu abertzalea Sabinekin sortu zuen.

Utz dezagun orain, mogimendu abertzalea historian PNV-ak inkarnatu duela, bere estatuto "arrazista", papisimo ta beste guziarekin eta zenbait gauza onekin ere... Izan ere, abertzaletasuna, PNV-aren Alderdi egitura ta estatuto ta beste dena baino lehenago, herri mogimendu sozio-politiko-kulturala da, ia itoan zegoen euskaldun herriaren erreakzioa. Lehen-lehenik erreakzio hori da euskal abertzaletasuna ta mogimendu abertzalea.

Nahi dena esango da, gero, mogimendu horrek hartu dituen formei buruz, Alderdi forma politikoei batez ere, baina baita ekintza kulturalari buruz ere eta abar. Mogimendu hau bera ere ez dute denek begi onez ikusiko. Batzuei probintzikeria irudituko zaie. Baina Euskal Herriak iraun dezan gehiago egin duen beste mogimendurik ez da sortu haren aldamenean. Jakina Euskal Herriaren bizitzari zer inportantzia ematen zaion, azkenean hori da kontua.

Aranaren oso kontrarioek ere aitortzen dute gaur, haatik, Euskal Herriak inori baino gehiago zor diola, herritasuna salbatze aldetik. "Por muy equivocados que consideremos los puntos de partida y las conclusiones políticas de la obra sabiniana —idatzi du Solozabalek— cómo negar que el pueblo vasco debe la permanencia de su conciencia, muy posiblemente, al rastro de Arana?"...

Ezker tradizionalak —hots, espainolistak; luzaroan egon den ia ezker bakarrak— arras negatibo epaitu izan du Arana ta Aranaren obra. Aranaren kritika euskal abertzaletasunaren kritika arrunt bihurtu ere izan du, Aranaren kritikak abertzaletasunari erasotzeko erabiliaz. (Horrekin-txe, abertzaletasunaren lotura Aranarekin erakusten zen zeharbidez). PCE-ak —Euskadikoak— Aranari ta aranismoari gauza onik ez zien ikusten, oraintsu arte behintzat, mogimendu abertzalean ere deus onik ez bait zuen ikusten. Orain gauzak hobeto "diferentziatzen" hasiak bide ditugu, mogimendu abertzalea ere zerbait positiboago ikusten

den gisan Dolores Ibarrurik: *lo legítimo de la base de sus aspiraciones* onartzen du. Bere garaian “burutik nahastu” eta “ero”-tzat jo zuten sozialistek Sabin Arana. Urte askoren buruan, haren obra zerbait positiboago epaitu nahi dutela horiek ere, ematen du. MCE ta horiek gelditzen dira, ezkertiar “garbi” hutsak, Aranari ezer barkatzen ez diotenak. “...A Sabino es lícito considerarlo el *fundador de la ideología nacionalista pequeño-burguesa*, pero nunca del *patriotismo revolucionario vasco*, cuya paternidad corresponde a los Larrañaga, Asarta y demás comunistas vascos” (*Zer egin?*, zenb. 5, mayo/junio 1970; Astigarribia ez bada aipatzen “abertzaletasun iraultzailearen guraso” artean, ezin izan liteke deskuido bat)...

Euskal ezkerak badaki zenbait zor dion Aranari. Gabriel Arestik espresatu du guzion izenean:

Sabino Polikarpo
Abandoko,
Kantabria zaharrari eman zenion
itxura berri bat,
Euskal Herri maitagarriari
beste kutsu berri eta indartsuago bat.
Eskerrik asko.

Abertzaletasun iraultzaileak ala iraultzekoak gora-behera, euskal mogimendu abertzalearen sortzailea Sabin Arana Goiri da. Beste dena desio piadosoen fantasmak dira. Ez dago euskal abertzaletasunaz mintzatzerik Arana baztertuaz; ez abertzaletasun iraultzaileaz, ez burgesaz eta ez inolako bestez.

Aranak finkatu du: “Euskal Herria es la patria de los vascos”. Aranak bihurtu zuen euskal arazoa. Foru arazotatik nazio arazotara, mende bat zehar izan zuen planteamoldo okerra zuzenduaz. Aranak abiatu du nazio burruka. “Bizkainos: Bizkaya perece... y vosotros la estáis matando!” Aranak seinalatu du abertzaletasunaren jomuga: “libre e independiente” nahi zuen Euskadi.

Aranak Euskal Herriaren herri ta nazio konzientzia argitu zuen. Merezimendu hori ez dio inork kenduko. Litekeena da, Euskal Herriari zegozkion eta dagozkion politikabideak planteatzerakoan, orduko besteren batzuk errealistago eta argiago eta zuhurrago eta historia jakileago izatea Arana baino. Inork ez du hain sakon ikusi, nazioa dagoela jokoan eta arriskuan. Euskal Herriak beti ere bere nortasun etniko (arrazial), historiko, politiko ta kulturalaren arabera ihardun behar duela. Beste ezeren edo inoren zati baino lehenago norbera dela: Euskal Herri. Eta Euskal Herriari politika orok lehen-lehenik horrixeko begiratu behar diola, hori dela politika ororen oinarri ta politikabide ororen abiaburu.

Euskal Herriak badaki zer egiten duen, Sabin Arana Goiri gogoanago badu ta bihotzeanago badarama Unamuno, Alzola, Balparda eta besteak baino.

Mogimendu abertzaleak duen inportantzia da Sabin Arana Goirik egun duen inportantzia.

Aranaren Ideia eta Aranaren ideiak

Antiaranismo bat espainolistena da, eskuineko nahiz ezkerrekoena. Horien arrazoi antiaranista nagusia Sabinen abertzaletasuna da; arrazismoa etc. aitzaki ateratzen badi-tuzte ere.

Horiek Aranarena ez bezalako abertzaletasunik apenas onartzen dizute Aranarena baino gustorago. Ia-ia Euskal Herria Sabinekin izorratu baligu bezala ere jartzen dizkigute gauzak. MCE-ko J. Uriarte hari sinestekotan, adibidez —*Acerca del sabinianismo*— Aranak atzerantz eramandu Euskal Herria, ez du indar progresistak behaztopatu baizik egin...

Baina sozialista abertzaleak ere, "aranista" aitortzen duela bere burua —esker onez— Aranaren eta aranismoaren kritika asko du. Sabin Aranaren pentsamoldea ez da

gurea. Ezin izan liteke. Goian aipaturiko Beltzaren eta Ortziren eritziak, adibidez, abertzaletasun sozialista bate-tatik eginak dituzu, Aranaren inportantzia mugatuaz.

Ohar orokar bat, lehenengo, Aranaren pentsabideaz. Orain oso teoria haundi ta solemne zale gara eta kasi mo-dan daude aranismoaren “escasa consistencia ideológica”, “simplicidad o elementalidad de su bagaje ideológico”, “escasa base intelectual de Arana, más bien autodidacta”, eta holako piropoak... Aranek ez du Hegelen edo Mar-xen erako teoria unibertsalik egin, ez zuelako hori egin behar. Teoria simple bat egin zuen, fenomeno txit simple bat konstatatu behar zuelako: arrazaz, hizkuntzaz, ohituraz, tradizioz, psikologiaz, euskaldunok euskaldun garela; eus-kaldunok herri bezala suntsitzeko zorian gaudela eta ito-tzen gaituena Estatu espainola dela. Funtsean horixe da dena, eta horixe da egitea zegokion dena. Jakina, nazio zapalduen edo nazionalismoaren eta Estatuaren eta desa-rroilo historikoaren teoria orokar haundiak borobil zitza-keen... “Teoria del desarrollo histórico de las Naciones”, eta hola. Orain holakoak gustatzen bait zaizkigu. Ez zuen hori egin. Batzuek errealista dela eta besteek irudimena falta zaiola, esaten duten euskalduna genuen Sabin diru-dienez. Eta ez dakigu, holakorik eginaz baino gehiago ez ote digun egin gutiago eginaz, soiltasun eta “moztade” sano horrekin. Euskal Herriari mintzo bait zitzaion, ez akademikoei. Eta propaganda egiten bait zuen, ez tratadu doktrinalik.

Hain zuzen soiltasun hortatik ateratzen denean eta ara-nismoa “teoria” baten antzera formulatu denean —Evan-gelista de Iberok egin zuen bezala eta oraingo tratadistek berriro bihurtzen duten bezala, Aranaren “sistema” bat muntatu nahiaz— orduantxe agiri da pobre aranismoa.

Dena den, Sabin Aranek nolabait arrazonatu du bere abertzaletasuna: oinarri batzuk eta helburu batzuk seinatu dizkio. Oinarri-helburuok, simple esanda, sinpleak dira: euskaldunok euskaldun garela eta Euskadi libre ta be-

regain izan dadila. Funtsezkoena hori izan arren —Aranaren Ideia— hori dena erropa askoz jantzi zuen, eta erro-paok apenas dira gaur inork jantzi ta kalera irtetzekoak; arrazoi askoz harmatu zuen, baina gaur, arrazoi horiek, inoren kontra egitekotan, geure kontra dispartuko luke-ten harmak dira.

Maisuari begirune guziz aitortu behar: abertzale so-zialistak Aranaren zenbait uste ta ideia ezin konparti de-zake. Inola ere ezin konparti dezake.

TRADIZIONALISTA, RURALISTA

Arana tradizionalista da. Eta ez nolanhikoa, gogor-gogorretakoa baino. Tradizio hitza lumatik atergabe dario. Eta berak bere helburu bezala aipatua da, bere asmoa horixe besterik ez zela, alegia, euskal ohiturak eta tradizioak eraspen eta kutsapen orotatik garbitu eta jatorrizko garbitasunean berrizkatzea. Tradizioak leheneratuz gero aberria indartuko da, eta geuron buruok morrontzatik askatzeko gauza izango gara.

JEL edo Jaungoikua eta Lagi-Zarra esloganak horixe adierazten du: antzinako tradizio erlijiosoak eta tradizio politikoak dira abertzaleon helburu ta eredu, Aranak berak esan bezalaxe. Nabar-nabarmenki, hondamendi osteko gizona da: Foruen desegipena da Aranaren erreferentzia orokarra. Foruekin gertatu berri den dohakaitzari begira bizi da. Ez dator alferrik karlismotik etorri ere. Euskal askatasunaren agerpen bikainena beti ere Foruetan ikusten du, "Foru jatorretan". Eta karlisten aurka daukana, haien Foru-zaletasuna benetakorik ez izatea da. Zer esanik ez, liberalismoak eta holakoek bere onetik ateratzen dute: "Ni ez naiz liberalik ere eta liberalismo guziak bihotz-bihotzez higuin ditut, neurritsuenetik radikaleneraino". Libertate berrietan ez, baino libertate zaharren berreturan pentsatzen du Aranak.

C. Larronden pasarte batek honela diosku:

Se fondant sur des raisons historiques, le nationalisme basque était en définitive une politique traditionaliste, une politique de restauration nationale; il prétendait redonner au Pays basque la liberté dont il avait joui avant 1839.

Dans cette volonté de voir le Pays basque retourner à la situation qui était la sienne avant 1839, apparaît chez Arana-Goiri le désir de voir la Bizkaye et le Pays basque retourner à une situation de société pré-industrielle, de société rurales attachée aux souvenirs du passé et haïssant le libéralisme moderne qui avait amené en Bizkaye l'invasion étrangère et la corruption des coutumes basques.

(C. Larronde, *Le Nationalisme basque*, 1972, 107).

Beraz, Aranak asmo duena, Bizkaia laborari bat da. "Dans l'esprit d'Arana-Goiri, il est clair que cette Bizkaye fueriste n'est autre que la Bizkaye rurale, attaché aux valeurs et traditions basques (langue, religion catholique), la Bizkaye d'avant la Révolution industrielle".

Eta ez laborari bakarrik ere, apika. Aranak amets egi-ten duen Bizkaiak, idealizatzen duen horrek beintzat, kasi prehistorikoa dirudi. Seinoriora ta baino hagitz lehena-gokoa, nolani ere. Bizkaia oraindik Errepublikak libreen Konfederazio antzeko zerbait omen zenekoa, han nonbait, Arrigorriagako gudu aitzi-neko hura (888). Tradizio jatorreko "lege esentzialen" aldean, Seinorio edo Jaurgoa bera ta honi datxekon guzia "lege akzidental" deklaratu digu Aranak. Seinoriora euskal jatortasun galera puska bat da. Euskal izpiritu sanoaren kontrakoa da: arras demokratikoa omen bait da euskal izpiritu jatorra; ez dagokio inolako Jaunik, ez Erregerik. Bizkaia jatorrean herria soberano zen, bere buruaren jaun ta jabe, beste Jaunik gabe

gainetik. Orduan, dirudienez, euskaldunak libre ziren, beren eskuko ziren, denak berdinak ziren, eskubide ta ahalmenetan pareko ziren, eta zoriontsu ziren. Hura da berriez ere xede ta jomuga.

Bizcaya abarcaba en aquellos tiempos más extensión de la que actualmente le corresponde: por el poniente se extendía tal vez hasta lo que hoy es Castro-Urdiales y valle de Mena inclusive; por el oriente le pertenecía toda la región bañada por el río Deba, y por el mediodía los valles de Aramayona y Ayala. Mas dentro de este territorio se encerraba un estado y una confederación de repúblicas, a saber, el Señorío de Durango y la agrupación política de las demás anteiglesias y valles, independientes e iguales entre sí y que formaban confederaciones menores, origen de las que después se llamaron *merindades* y gobernadas por asambleas generales. Libres e independientes en absoluto, a la vez que entre sí armónica y fraternalmente unidas, gozaban esas pequeñas entidades políticas, regidas por leyes nacidas en su mismo seno y fundadas en la religión y la moral, de una existencia perfectamente feliz, sin jamás pasárseles por las mientes el extender sus dominios por nuevas tierras, ya que tampoco, según su índole y naturaleza, nada podían ganar con esto sus anteiglesias y valles (*Bizkaya por su Independencia*).

(Iraganaldia honela idealizatzen bada, kasi parabisu rousseauniano baten antzera, nola harritu, norbait serio-serio deskubritzen hasi bazaigu, euskal berdintasuna ez dela guziz hain berdina izan, eta Euskal Herrian ere zakurrak oinutsetan omen zebiltzala?... Bakarrik, 1970 aldera hori deskubritzea, esajerazio erromantiko ta propagandistiko bati buelta ematea besterik ba ote den? Antirroman-

tizismorik ez, baino “erromantizismo anti” soila ta hutsa?).

Arrigorriagako gudate ostean sartu zen Bizkaian Jau-naren instituzgoa. Aginpidea Batzarreen esku gelditu zen haatik: “La suprema autoridad de Bizkaya eran las Juntas o asambleas (batzarrak) de los representantes o poder-habientes de los bizkainos originarios: a ellas exclusiva-mente pertenecían los poderes constituyente, deliberativo y legislativo, y ellas encomendaban el poder ejecutivo y el gobierno a quien la elección le favoreciese”. Horren aldean: “El Señor era un empleado de Bizkaya, que desempeñaba parte (casi todo) del poder judicial y del militar a cambio de tierras, de soldados y de la presidencia de las Juntas legislativas con voz y de las Juntas ejecutivas con tanto voto como cualquier Diputado”.

Halare Jaurgoarekin hasten dira kalamitateak: “La forma señorial era un efecto de monarquismo y feudalismo y una transición a la monarquía”. Eta, azken finean, hortxe datza “la causa, a su vez, más determinante de la esclavitud que hoy nos oprime”.

Beraz, laburki esan: beharrak eraginda sortu zen Jaurgoa, gerra giroan eta larrialdi baten kausaz, mila urte inguru duela. Sortzea, ordea, larriak eta beldurrak eraginda izanik ere, euskal izpiritu demokratikoaren kontra zihoan. Eta, behin sortuaz gero, instituzgo hori izan da, euskal gizartea feudalismo bidetik sarrarazi duena, kalamitate guzien kausa. Handik aurrerako euskal historia negargarria da.

Es tan desfavorable el juicio que la mayor parte de los actos transcendentales realizados por nuestros antepasados en el curso de nuestra historia se merecen, con acerbo dolor de mi alma, y tan terrible la calificación que a los actos les daría y los cargos que le haría al sujeto, que tiemblo cada vez que me siento inclinado a tratar de la historia de mi patria. Cuanto más avanzo en

edad, más aumentan ante mis ojos el número y la gravedad de los yerros históricos de nuestra raza y sus defectos y vicios así en el pasado como al presente...

Aranak historia idealizatu duela, esan ohi da. Idealizatu duena, batez ere "prehistoria" dela, esango nuke; hots, herria bera, azkenean; eta nolabait hura ere, oso nolabait. Aranak bazekien euskal historia zein tristea den, Aranaren beraren perspektiban ikusita batez ere.

Hauxe da egia: Arana bere idealaren funtziotan bakarrik baliatu da historiaz. Bestela ez du historiaz ihardun nahi izan, gogorrek esan beharrean aurkitu izango zelako. Ez da "historigilerik", ikerle ta azterlerik. Politiko da, bere asmo ta helburuez. Bere xedeak historiara proiektatu ditu. Bere ideien "gonfirmazio tresna" bihurtu du historia. *Bizcaya por su Independencia*-k, esate baterako, nabar-nabari Manifestu funtzioa batetzen du.

Karlisten aurka erabakiko du, ez soil 1876-ko legeak, baino 1839-koak deuseztatu behar direla. Eta 1839 aurreko egoera politikora ezezik, orduko egoera sozialera ere itzuli nahi lukeela dirudi. Ez da harritzekoa: "nuestra Patria Bizcaya, de nación independiente que era, con poder y derecho propio, pasó a ser en esa fecha una provincia española, una parte de la nación más degradada y abyecta de Europa"... Aranak antzinateko laborantza gizartera itzuli nahi luke. Industriari higuin dio. Orixeren poema haundian industriarik ez dela aipatzen, deitoratu da. *Garoak* ere euskalduntasuna ta burdin meatzak elkarren etsaitzat jotzen dituela. Eta sentiera anti-industrialista honek Aranaren doktrinan, sustriak ez bada, sostengurik aski badu. "Zenbait hobe, barruan burdina duten Bizkaiako mendiok leize zuloan amilduko balira ta meatoki denak arrastorik utzi gabe suntsituko balira! Bizkaia txiro baltz bai, soro-zelai ta ganadu besterik ez balu, abertzale ta zoriontsu izango ginake" (*Bizkaitarra*, 1895-eko urtarilaren 20). Bere ikuspide sozialek ere anti-industrialis-

mo hortaraxe daragiote: “¿Qué nos importa que la industria se acreciente, si el único efecto de su desarrollo actual es la multiplicación de mendigos y la acumulación de la riqueza está restringida en favor de unos cuantos particulares?”. Ez irabaziaren alde, aberastasunaren alde; bizkaitarrek Bizkaiaren alde jokatu behar dute. Baina “ez Bizkaia industrial eta mineroaren alde, hori akzidentala bait da, Bizkaia fueristaren alde baizik” (L.b., 1893-ko iraileko 14).

Bizkaia, ikusgune zuzenetik begiratzuz ikusten den Bizkaia jatorra, elizaldeena da. Elizaldeak dira Bizkaiaren herriska sortzaile ta fundatzaileak. Hiriak Jaurgo Bizkaiaren ekarria ditugu (*De la historia de Euskeria*).

Bizkaia historiko jatorra ezezik, Bizkaia sana ere baserritarra da: “Id a buscar la probidad en las montañas, en los extraviados caseríos, que cuanto vías de comunicación más fáciles toméis y más os acerquéis a las poblaciones, tanto más cargada de miasmas habréis de hallar la atmósfera social”. Hiriak okerrak dira, okerreña Bilbo: “El daño que Bilbao, terrible enemiga de su Patria Bizkaya desde su origen, la ha causado es incalculable: tal vez si a Diego V no se le hubiera ocurrido fundar la villa, hoy fuera feliz Bizkaya. No se ofendan los bilbainos: esto es lo cierto, éste es el hecho: Bilbao de siempre se ha colocado enfrente de los intereses generales de la República”. Hortixe harrapatu uste zuen Balpardak: “Bilbao y sus tradiciones para él nada cuenta. El bizkaitarrismo es esencialmente antibilbaíno, no representando sino la invasión en la Invicta Villa del espíritu rural”...

Horregatik nazionalismo bizkaitarra ez da politika iraultzailerik; ez du berrikuntzarik batere erreklamatzeko; restaurazio politika da, askatasuna bere gogoz kontra galdu zuen herri bat bere askatasun egoera zaharrera ta legitimora itzuli na-

hirik. Eta horregatik, nazionalismo hau Bizkaiko benetako politika tradizionala da (*Contra errores carlistas*, Bizkaitarra, 1894-eko ekainaren 29-koa).

Bizkaia galduta dago, baserriak ezik. Baserrietan bakarrik somatzen du Aranak Euskal Herria bizirik...

Horregatik, aranismoari, P. de Alzola eta G. de Bapardaz geroztik eta Krutwigenganaino, ikuilu kiratsa, garo usaina, baserritarkeria, salatu izan zaio. Kaletik mendira ihes egin duela. Industrietik laborantzara. Egungo egunetik iraganaldi galdura. Kontrarioek isekaz esan ohi zuten, Aranak berriz ere denok abarkaz jantziko ginduzke ta txistua joaz eta dantzan mendiko arbolaren baten abaroan bilduko ginduzke... Itsukeria litzateke, haatik, Aranaren "ruralismoaren" arrazoi politiko sakonak ahaztea: Euskal Herriaren nortasun politikoa komertzioaren eta aurrerapenaren aitzakiaz saltzen zuen burgesiaren kontra eta nortasun hau, burgesokin eskuz-esku, ito nahi zuten liberal nahiz sozialista zentralista guzien aurka. Hori zehazkiago azterkatuz gero ongi ageri bait da, Aranaren ruralismoa ez dela lehenengotik dirudien bezain sinplea ta ergela. Ta, nolana ere, politikoa dela, ez geroagoko sentimentalismoa (hainbeste literatura eskas isurtarazi duena). Libertate konstituzionalek Euskal Herriko laborari jende apalari lehen zeukan askatasun eta soberania politiko gehiago kentzen bait zioten, berririk eman baino. XIX-gn mendea zehar baserritarrok, herriskek, bai liberalismo zentralistaren eta bai hirien aurka, beren "libertate konkretuak" defendatzen zituzten: beren sistema (Bizkaiko Juntetan, esaterako, herri bakoitzak boto bat, Bilboren kaltetan). Baserritarren eta hirien interes kontrarioen, industria haundiaren eta esku-langileen, karlisten eta liberalen, poderio zentralaren eta fueristen, pentsaera tradizionalaren eta berriaren arteko istilu ta mila konplikazio gehiagotako nahasmahas honetan, bistan da, eritzi sinplerik ematea zaila dela. Nekez esan liteke, batek arrazoi guzia ta besteak deus ez duenik. Baina bidegabekeria gabe esan liteke, Ara-

na tradizionalismoaren eta kontserbaduriaren bideari lotu zitzaiola. Gotorki lotu ere.

* * *

Ez da dudarik: Gurruchagak aitortzen zuenez. “hay un fenómeno de idealización de nuestro pasado, de origen muy antiguo, propio de un país fuertemente tradicionalista como el nuestro y que obedece a muchas causas”, eta Aranak tradizio hari segitu dio. Geure buruak engainatzen ari garela? Agian bai. Baina ez da hori bakarrik, tradizio hortan ikustea dagoena.

Aranak, historiaz ari dela, eta zuzen ala oker, eta laborari demokraziaz baikere, baina beti demokrazia markatu ta azpimarkatu digu. Nahiko ezagutzen ditugu inperioak eta konkistadoreak destakatu dituzten beste historia batzuk. Hauk ez dakigu zer balio pedagogiko izan duten. Aranarenak gutienez bi mugon inportantetan erakutsi du berea: Erregezaletasun mengel batetan hezitako karlista herriari PNV aldera eragitekoan; eta gerrateko kinka zailean, euskaldunek —erlijio sentimentuekin konfliktoan, esate baterako— beren sentimentu demokratikoa erakutsi behar izan zutenean, baldinkizun franko bihurri artean. Diktaduraren azpian ere, kritikagarria irudituko zaigu alde askotatik, baina sentimentu demokratikoak Euskal Herrian beste inon bezain bizirik iraun du, eta bada zerbait.

Baina ez genuen Aranaren eta aranismoaren defentsan hasi nahi. Sozialista abertzaleak problema bihurrik aurkitzen du, aranismoaren ondarea dela ta.

Ondare bat baserrizalekeria sinplista oso zabaldu hori da, aspaldion nahiko kritikatu, baina oraindik ere guziz baztertu gabekoa.

Are gutiago baztertu ditugu euskaldunaren eta euskaldunon historiaren espilu mitikoak: “euskaldun zintzoa ta

ondraua”, “euskaldun demokratikoa”, “euskaldunak ez du hiltzen”, “ez du odolik isurtzen”, eta berdin, “ez du lapurretarik egiten”, eta abar... “Un pueblo noble, pacífico y entrañablemente humano y cordial, como es el pueblo vasco” eta bla-bla-bla. Ikusiak ikusi izan arren.

Pauso bat dago eta ez gehiago, egia esateko, Aranaren anti-industrialismo erreakzionariorik oraingo “antikontsumo” progresistara ere. Moralina hutsa.

Postura tradizionalista hutsak, agian Aranaren parte asko gabe, euskal sozialismoan bertan bortizki errotu diren mila atzoko dogma horiek, atzoko esperantza eskatologikoak, atzoko utopiak, atzoko planteamoldeak eta problematikak, teoriak edo teori itxurak, liburu sakratuak eta Profeta sainduak. Izpiritu tradizionalista kontserbazalea ikaragarrizko indarra ari da erakusten euskal sozialismoan bertan (handik kanpora zer esanik ez). Eskuz-esku doakio ezkerreko neo-integrismoa, eskuineko klasikoaren pare-pare. Gaitz osakaitz horrek esan arazi bait zion Mitxelenari, beste arlo batetan: “Badirudi, ordea, euskaldunak izatez osozale edo integrista garela, edo ohituraz hala bihurtu. Ez dugu behar erdizkako gauzarik, zatirik edo apurrik; zeharo eta erabat behar ditugu egin gure egitekoak. Nahi izate hutsa zernahitarako aski dela uste dugu nonbait, eta ez aitortu nahi anitz gauza direla gure nahimenarentzat ezinezkoak”.

Aranismoaren ondare da, batik-bat, abertzaletasuna irimotu ordez antiespainolismo erraz batetan anparatzea.

Aranismoaren ondare, euskaldunon dohain paregabeen harrokeria folkloriko farregarri edo negargarri hori, funtsean geure lotsa konplejoaren refujio besterik ez: munduko paraje ederrena Euskal Herria, munduko hizkuntza zaharrena euskara, mundu guzian ondo ikusiak euskaldunak...

Beti atzera begira politika egin nahi hori ere. Foruak berrezarri behar direla: “Foruak eskatzen ditugu eta bes-

terik ez, baina oso-osorik Foruak". Estatutoa berrezarriaz hasi behar dela: ez dakit 31-ekoa ala 36-koa, berdintsu da. Euskal Gobernuua dagoen-dagoentxoan berriz etxera ekarriaz hasi bear dugula, gero gerokoak. Hainbeste urtetan eta burruka gogorrenaren surtan erabili diren plan-teamoldeak berriz ahazterazi nahi dizkigun restaurazionismo hutsa. Eta ikus nolako indarra hartzen ari diren ikuspide restaurazionista horiek. Vienako Kongreso berri bat.

Hain zuzen gerra osteko hazaldiaren haseran holako aitortza garbi bat zegoen:

Hain zuzen ere (eskuindarrari) aintzinako mundua eder zaio, eta datorrena okaztagarri. Politikan berdin: Lege Zaharraren urrutimina du. [Lege Zaharraren, behinolako Gobernuaren, behinolako Estatutoen..., osatu beharko litzateke gaur].

Gizonaren dinatasunari eta gizatasunari gagozkiela; nahiz gauza ageria izan igaro diran denborak, alderik gehienetarik, oraingoak baino txarragoak izan dirala, iragan denborak lilluratzen du. Euskal Herriari buruz, hunengatik, bereala ezagutarazten dugu danok gure burua: eskuindarrek aspaldiko euskaldunen zoriontasunaren ipuia sinistarazi nahi digute besteoi; eta ezin lorturik, gutaz hetsitzen dute. Zergatik hetsiko? Orain arte, nere ustez, eta aspaldian are gutxiago, euskaldunak zoritxarrean eta zapalduarik bizi izan dira. Eta hau egia dala, frogatzen ahal dala, uste dugu.

Ezkertarrek uste dute, beraz, badala garaia euskaldun herriak lehenengo aldiz bere burua altxa dezan; eta hau esatean ez dugu milimetro bat ere atzera joan nahi, 'lege zahar' bila, denbora 'zoriontsu' haietaz ez baitugu deusik ere sinesten (Txillardegia, *Huntaz eta Hartaz*).

KATOLIZISMO INTRANSIJENTE

Aranaren ondarea nabarmena da kapitulu honetan. Euskal Herrian oraindik eskandalo bat sortzen da eskoletan eboluzionismoa irakasten bada. Euskal Herrian “h” letra bera deabruaren eta ateismoaren tresna da. Euskal Herrian, gizona abere dela esan orduko, kristautasuna mehatxaturik sentitzen da eta Gotzain batek ere abisua ematera beharturik ikusten du bere burua. Aldian aldian betiko istiluak sortzen dira ikastoletan, erlijio irakaskuntza dela ta. Ez dugu aipatu nahi, sekso kontuan zenbait gezur eta hipokrisia zampakor dagoen gizarte honen gainean. Eta ez dugu gogoratu nahi, Aranaren ondareak Alderdi oso bat eta euskal Gobernu bat nolako katramiletan sartu zituen 36-an.

Intransijentzia erlijioso ta moral izugarriaren azpian bizi gara. Intransijentzia erlijioa bigunduz —galduz— joan arren, intransijentzia moral puritano itogarri batek asfisiatzen gaitu. Izan ere, libertatea ez dago errebidindikazio politiko batzuetara edo politika hutsetara mugatzerik. Libertatea libertate da politikatik landa ere. Sozialistak, gizarte berria nahi bait du, lan beltza du Euskal Herri honetan hainbat tabu ta errepresio moralen aurka libertatea zabaltzen. “Las libertades son solidarias”.

Arana, pertsonalki, katoliko militante intransijentea zen. Eta moralista gogorra. Behin, inauterietan, dantzotoki bat behar zela ta, Aranatarrei sala bat eskatu zieten. Sabin Aranak ezetz: nahiago lukeela salari su eman ta kiskali, dantzarako utzi baino. Beste behin, Gran Via-n protestanteak liburu denda bat irikitzeroa zihoazen. Aranak derrefente beste liburu denda bat aldamenen jarri zuen, propaganda katolikoa egiteko. Ez zen posible izan protestanteok eta Arana akordio batetara iristea. Protestanteek amor eman behar izan zuten, eta Aranak, liburu dendaren asmoa alferrik bait zen, dendarako erosita zeuzkan liburuak jende artean duban zabaldu zituen.

Pertsona publikoa da, halare, inporta zaiguna. Ez pribatua. Ez dugu psikologismo sinplifikadorean erori nahi. Bestalde, anekdota horiek ez dute agertzen Aranaren nortasun benetan miresgarria, zuzena, garbia, gogorra, entregatua ta sakrifikatua, karitatetsua, guziz kristaua, zentzu hoberenean. Adiskideek nahiz etsaiek errespetatua.

Aranak herri-moralaren preokupazio haundia zuen, pertsona bezala nahiz politiko bezala. "Ohitura onak" galtzen ari direla, insistatuko du. Industriak diru gosea ta lukurkeria bizten ditu; eta, inmigrazioaz, morala nahasten du. Sarri aipatuko dizu "la relajación de las costumbres"; euskal usadio ta ohiturak "eran dignos de la nobleza, virtud y virilidad de vuestro pueblo; y vosotros, degenerados y corrompidos por la influencia española, o los habéis adulterado por completo, o los habéis afeminado y embrutecido". "Nosotros, los vascos, evitemos el mortal contagio, mantengamos firme la fe de nuestros antepasados y la seria religiosidad que nos distingue, y purifiquemos nuestras costumbres, antes tan sanas y ejemplares, hoy tan infestadas y a punto de corromperse por influencia de las venidas de fuera".

Ved un baile bizkaino presidido por las autoridades eclesiástica y civil, y sentiréis regocijarse

el ánimo al son del *txistu*, la *alboka* o la dulzaina y al ver unidos en admirable consorcio el más sencillo candor y la más loca alegría; presenciad un baile español, y si no os causa náuseas el liviano, asqueroso y cínico abrazo de los dos sexos queda acreditada la robustez de vuestro estómago, pero decidnos luego si os ha divertido el espectáculo o más bien os ha producido hastío y tristeza. En romerías de bizkainos, rara vez ocurren riñas, y si acaso se inicia una reyerta, oiréis sonar una media docena de puñetazos, y todo ha concluido; asistid a una romería española, y si no veis brillar la traidora navaja y enrojecerse el suelo, seguros podéis estar de que aquel día el sol ha salido por el oeste.

Eta oso erlijioso ere bazen haren pentsamentu politiko. Erlijioan datza abertzaletasunaren oinarria; erlijioa da, azkenean, abertzaletasunaren helburu ta jomuga ere.

El fundamento más noble y firme del nacionalismo es, no el derecho histórico, mucho menos la conveniencia material, sino la conveniencia, mejor dicho, la necesidad moral, el deber de cristianos. Si el nacionalismo no se realiza, un mal moral, por su extensión y por su intensidad gravísimo, agobiará a este Pueblo; ese mal avanza ya, es su causa la invasión de cierta gente extraña, y no es cosa que pueda discutirse, sino que basta tener ojos para verlo.

* * *

Si en las montañas de Euskeria, antes morada de la libertad, hoy despojo del extranjero, ha resonado al fin en estos tiempos de esclavitud el grito de independencia, SOLO POR DIOS HA RESONADO.

Hitz solemnez adierazi digu Aranak berak:

...Al cabo de un año de transición, disipáronse en mi inteligencia todas las sombras con que la oscurecía el desconocimiento de mi Patria, y levantando el corazón hacia Dios, de Bizkaya eterno Señor, ofrecí todo cuanto soy y tengo en apoyo de la restauración patria, y juré (y hoy ratifico mi juramento) trabajar en tal sentido con todas mis débiles fuerzas, arrostrando cuantos obstáculos se me pusieran de frente y disponiéndome, en caso necesario, al sacrificio de todos mis afectos, desde el de familia y de amistad hasta las conveniencias sociales, la hacienda y la misma vida.

Alderdi konfesionalak Euskal Herrian ez dizkigu Aranak asmatu. Hor genituen karlistak; eta Don Karlos liberalegi zitzaielako alderatu ziren integristak ere (“la verdad íntegra”), Jesusen Bihotzaren mantupean eta Kristo Erregeren politika egin nahi zutenak (1888-az geroztik), eta abar. Hauk, ordea, nolarebait monarkikoak ziren. Arnanaren berritasuna da Alderdi politiko demokratiko (republikano) bat konfesional eta intransijente bururatzea. Olazabal y Ramery integrista irundarraren ustez euskal ari-ma ez da hizkuntzan, ohituretan, musikan, historian, bilatu behar, eta bai katolizismoan. Araban —esaten du— euskara aspaldi galdu zen, baina arabarrak euskaldunak ditugu; eta, bestalde, ikusten ari garenez, euskara dakien zenbait jende (zenbait liberal, noski) oso-osorik euskaldun jatorraren antitesia bera agertzen ari da. Beraz, euskaltasunaren oinarria ta ardatza ezin hizkuntza izan daiteke. Euskaltasunaren muina, bukatzen zuen argudiabide hori jarraituaz, fede katolikoa da, eta ez besterik... Beti hain garbi esan ez bada ere, bururapenok egun haietan korrienteak ziren, eta Aranak hortik ibili behar zuen (arrazoipideon aurrean joko du Aranak, nire ustez, arrazara, euskaltasunaren “azken funts” bila).

Aranak integristen tesi politikoak arbuiazen ditu. Baina abertzaleen eta integristen arteko elkarren sinpatia nabarmena da. Aranaren txit gogozko zen integristak fede katolikoaren aldezkari hain suhar ikustea, Gotzainen eta apezen hain esaneko; eta Alderdi bien arteko hitzarmenik eta ihardukimenik ez zen falta. Antiliberalismoan eta klerikalismoan biak zein baino zein finago bait ziren, era franko ezberdinetan noski (Aranak Eliza ta politika aparte ikusi nahi zituen). Integristek bezalaxe Aranak ere Monarkiaren katolizismoa epeltxo ta biguntxo aurkitzen du. Liberalismoak kutsatua. Eta Aranak liberalismoa ezin du pinturan ere ikusi —“heresia moderno hori”— Elizaren baitan diziplina guzia karraskatzen duela ta. Arana intransijente zen. Transijentzia, tolerantzia, ez zitzaion irekitasunik iruditzen, zindotasun falta hutsa baino (“guzia-barka” edo “transigente” oiek —esaten zuen Orixek ere). Frankomasonak —“kupida gabeko Kristoren etsaiok”— izena entzun ere ezin zituen. Eta guti-gorabehera Pio IX-gnaren *Syllabus* guzia berrizkatzen zuen, han kondenatzen diren “heresia moderno” guziei “gaitz espainolak” direla eritziz. Euskaldun jatorra katoliko integrista da, Aranaren begitan.

Aranaren ikuspide politiko-erlijiozkoak ederki josten dira. Liberal, modernista, naturalista (Zola, horratio, deabruak baino okerrago ikusten zuen!), franko-mason eta gainerako piztia guziok Euskal Herrira espainolekin batera sartu dira. 1839-an hasten da gure fedearen eta garbitasunaren gainbehera: askatasuna galtzeaz, espainolen nagusigoaz. Ordutikoa da euskal lurraren gainetik doan inmoralkeriaren, erlijio gabeziaren eta apostasiaren uholde beltza. Espainol nagusigoa da erlijio gabeziaren eta inmoralkeriaren kausa. Lehenago euskal basoetatik zerura eskari ona igotzen zen. Gaur, erdaldunak sartuta, haizea biraoz bete da... *Bizkaya, dependiente de España, no puede dirigirse a Dios, no puede ser católica en la práctica.* Bizkaia hori zinez katoliko izan dadin, askatu egin behar.

Euskarak fede garbiari babes eman behar dio eta ematen dio. Euskara galtzen den tokietan erlijioa ere galdu

egiten da. Inmoralkeria zabaltzen da. “Biraoak eta make-to inbasorearen ariurri deuserlijiozkoa ta ekandu immoral ta kriminalak, Bizkaian gaztelauaren konformidade berberetan zabaldu dira”.

Egia da —apez eta Gotzainei Bizkaiko Juntetan nahiz Ustaritzeko Biltzarrean esku hartzea debekatzen zien Foruak —Aranak Eliza ta Estatu garbi apartatzen zituela. Ez duela apezik ez Gotzainik politikan ikusi nahi: buru hortan bere garaiko katoliko gehienengandik eta Aita Santuagandik beregandik ere aldentzen delarik. Eta ideia biziki aurreratuak dituela (orduko katoliko batentzat) Estatu ta Elizaren arteko harremanetaz, Konkordatoaz, eta abar. Baina berak bere mogimendu politikoa katolizismoan irmo finkatu du: “Gu Euzkadirentzat ta Euzkadi Jaungoikua-
rentzat”. Eta halaber:

Nire abertzaletasunak ez du zergatiko humanoetan oin hartzen eta ez du irabazi materialik bilatzen: ezpada nire abertzaletasuna Jaungoikoagana nire maitasunean errotzen da, eta nire abertzaletasunaz bilatzen dudan xedea, nire arraza anaiak, nire familia haundia, euskal herria, Jaungoikoagana eramatea da.

Bere asmo politikoetarako Begoinako Amaren laguntza eskatzen du (estilo konziso, baina euskara gogorreko poesia honetan, adibidez):

Gaurko Bizkai au, Ama laztana
ezta antzineko lakua:
len ekandu ta lagia, ta gaur
abenda zarra galdua.
Zaindu gagizuz geu bizkaitarrok,
Erruki, Ama, zakigu!
Eta estuntza gogor-gogorrok
zeure semioi azkatu.

Beraz, abertzaleen zeregin bat fede katoliko zuzena gordetzea ta euskal herria berkristautzea izango da.

Aranak 1894-ean *Euzkeldun Batzokija* sortu zuenerako, neurriak hartuta zeuzkan. Bizkairako katolizismoa ofizialki proklamatzan da (art. 2). Katoliko ez denak, ez du hemen lekuri. Areago, katoliko integrista izan beharko du, Aranak liberalei heretiko bait derizkie. Aranak ez du puntu honetan dudaren izpirik uzten: “Bizkaya será católica, apostólica, romana, en todas las manifestaciones de su vida interna y en sus relaciones con los demás pueblos”. Eta, beraz, *Euzkeldun Batzokijan* erlijio eztabaidak espreski debekaturik daude. Ez, usteko zenuenez, bakearen amorez, ez: “erlijio kristaua ta bere doktrina eztabaida ezinezkoak direlako” baizik. Katoliko zintzo guzien jaiez aparte, abertzale bazkideok San Inazio, Sortzez Garbia ta Begoinako Andre Mariaren festak elizaz ospatuko dituzte.

Geroago ere, Alderditar izateko, bete beharrezko baldinkizuna zen katoliko izatea, arau hori praksian asko lazotu omen bazen ere. Aranak franko garbi esan bait du (euskal abertzaleon): “azkeneko helburua ez da politika; helburu soziala da: herria kristautzea, pobrea hala aberatsa batera; politika ez da helpide besterik” (*La Patria*, 1902-ko otsailak 23).

Aranak hizkuntzaz eta arrazaz erabilitako gogoramen-
duak erlijioarekiko itzuliz, E. de Iberok alternatiba hipotetiko hau erabakitzen du: Euskadi libre, baina erlijiorik gabeko baten eta beste Euskadi menpeko, baina fededun baten artean, erlijio gabeko Euskadi librerik baino auke-
ran nahiago Euskadi esklabo ta Kristori leiala. Beste ha-
rek nahiago zukeen euskara hiltzea, euskaraz biraorik en-
tzutea baino...

Maleziatiak, Alderdi bat ala kongregazioen bat sortu nahi izan den, galdetuko luke ausaz. Ez da bromarik ba-
tere hori, halare. E. de Aranzadik Alderdiari “erakunde erlijioso” zeritzan.

Meabe sozialistak ez zituen holako “huestes eucarísti-

cas” batere gogoko. Pio Barojak esango du, abertzaleok Euskal Herria jesuiten garaiko Paraguay bat bihurtu nahi dutela (1)... Ez da dudarik, artxikatolizismo hau jende askori problematiko zitzaiola ta abertzaletasunera atear hersten zizkiola. Abertzaletasun modernoaren atarian, ETA-ren aitzindari izandu zen EKIN hura “movimiento patriótico aconfesional” aitortuaz hasiko da. Bitartean Francoren Gurutzada Santua dago.

(1) Honekin ez Meaberen eta ez Barojaren jokabidea zuritzen dugu —baina ezta batena bestearena baino guttiagorik ere— jokabide esplikagarria dela soil adierazten baino. Hona Txillardegik azkenekoaz ari dela: «Badakit nik Barojaren ezpaleko bat nekez joka zitekeala denbora haieran jeltkideen alde, orduko «bizkaitar» haien eskuintasuna gauza ezaguna baita. Are gehiago: beren eskuintasuna nabarmenago baitago askotan bere euskaldun abertzaletasuna baino. Baina, hunengatik edo hartatik, Baroja espainol bat izan zen, eta ez euskaldun bat» (*Huntaz eta Hartaz*, Baionan, urterik gabe, or. 81).

KATOLIZISMOA ETA SOZIALISMO ABERTZALEA

Ohartxo batzuk, bakarrik, bide nabar, oraindik lan asko eman beharko digun puntu baten inguruan.

Katolizismoari buruzko Aranaren proposamenak bi estremen batespen kurioso batetara mugatzen dira: Elizak ez du ezertarako politikan sartu behar —Bizkaiak edozertan eta beti Eliza Katolikoari segituko dio bere politikabidean. Asmuok —edozein asmo arrunt bezain onak edo txarra, berez— bete nahirik, ahaleginak eta bost egin ditu Jose Antonio Agirreren hazaldiak. Urteotan ezer ikusi bada, izan da, bide hori ez dela biderik inora.

Aranaz gero eskarmentu triste bat gehiago egin du Euskal Herriak, eta bere lezioa ikasi du.

Antiklerikalismoak badu indarrik hemen ere. Haren irrazionalkeria gogotik salatuaz ez dira desegiten haren arrazoiak, zinezkoak eta bene-benetakoak. Antiklerikalismoa hain zuzen *anti* bat da: erreakzio bat, hortakoz. Kausarik baduena, orduan. Eta kausaok bizirik daudela, esan liteke, haien efektoak ageri-agerian dauzkagun artean. Ondorio horiek euskal gizarte guzia obligatzen dute; euskal politika obligatzen dute; eta —bere historiaren erantzuneko sentitzen bada— Eliza bera obligatzen dute, orain arte aitortu nahi izan duen baino gehiago.

Euskal Herrian ia espontanioki egin da Eliz Hierarkia garaiaren eta Eliza xumearen (apez eta laiko xehe) berezkuntza. Ez da azterketa historiko eta soziologiko haundirik behar izan. Hori mundu guziaren begien bistan eta berez agertu da. Agian topiko bat bihurtu bazaigu ere, berezkuntza horri eutsi nahi diogu eta finkatu.

Euskal Elizak, oro har, ez du paper txarra jokatu historian zehar, gerraz gero gutienez. Hugh Thomasek hone-la komentatzen zuen:

Entre los católicos vascos, su clero, por estar más cerca del pueblo que cualquier otra fuerza, se ha puesto seriamente a la cabeza de formulación de reivindicaciones. Los 350 sacerdotes vascos que denunciaron en 1960 las torturas y las arbitrarias acciones judiciales, constituyen otros tantos ejemplos de valor moral (...). Desde entonces, muchos sacerdotes vascos han sido castigados con el traslado, pero otros han venido a tomar su sitio, como los guerreros llenaban en las batallas los puestos de los caídos. Su paciencia parece inagotable.

Halare, sozialista abertzaleak oso urruti daude Arana-ren ikuspegietatik, beharrik.

Hasteko, politikoarentzat politika ez da zereginik *ad maiorem Dei gloriam*, jesuiten ikaslearentzat zen bezala. Hori, fededunak bere helburu tranzendentalen eta intenzioen ganbara isilean erabakitzekoa da, izatekotan. Politika gizartearen ohoretan egiten da. Abertzaletasuna aberriaren ohoretan.

Hasteko, halaber, guretzat "euskal Elizarik" ez dago zentzu garbian.

Oinarri gisa garbi dago: Estatuak begirune zor dio erlijioari, gizartearen kalterako ez den edozein konbenzimen-

du morali bezalaxe. Alderdiek ere baietz uste dugu guk: Alderdiok, beren izatez berez, Estatu aparatu izateko bokazio dutelako. Beraz, ez dugu onartzen Estatuaren eta Alderdiaren berezkuntza leninista: Estatua neutral erlijioari buruz; Alderdia deliberatuki erlijioaren etsai. Praksiak berak gezurtatu duelako berezkuntza horren balioa. Baina katolizismo euskaldunak —bere hierarkiaz, organizazioz eta aparatuz antolaturiko gizarte talde den neurrian— bai pertsonen aldetik eta bai materialki, katolizismo espainolaren parte egiten du. Alderdi politiko euskaldunek, horregatik, Elizarekin tratatzen dutenean, eta tratuetan esku hartzen duten pertsonen grazia eta xarma gora-behera, Euskal Herriko Eliza espainolarekin tratatzen dute: alegia, euskal politikari eta herriari batere axola ez zaizkion mila interes eta konpromiso eta obligazio duen erakunde batekin. Horiek Eliza lotzen eta obligatzen badute, euskal politikaz ez dauka zergatik horrekin kontsideraziorik izan.

Hauk ez dira kontsiderazio abstrakto hutsak. Lehenengo, egunoroko errealitateak dira, euskal Elizak Apezpiku Konferentzia propiorik ere ez duen artean. Gero, historiak zerbait irakasten digu “erakunde katoliko” horren espainolismo amorratuaz.

Euskal Elizak ez duela paper txarra egin historian, esaten badugu, batez ere apez xumeengatik da. Erakundeaz, Hierarkia goenaz bereberki, nekez esan liteke beste horrenbeste.

Euskal Elizak beti Hierarkia arrotza izan du; interes arrotzen ordezkari eta tresna izan da Euskal Herrian. Euskal Eliz Hierarkiaren historia, euskal interesen kontrako borrokaren edo resistentziaren historia da: hasi karlobingiarrekin Iparraldean eta Eliza toledanoaz Hegoaldean eta 36-ak ezarri zuen Eliz Gobernadore Hierarkiaraino. Hoberenak berak —Mateo Mugika— ez dira oso paper ambiguo eta tristetatik pasa. Okerrenak apenas izan dira hobe, propio hortarakoxe zeuden errepresio indarrak berak baino.

Hierarkia hori katolizismo espainolarekin loturik badago —sukursal hutsa baldin bada, hortakoz, eta ezein Alderdi ez den neurrian gainera— katolizismo harekin gure herriak ez duela eskarmentu onik egin, aitortu behar. 36-koa utzi egingo dugu. Lehenagokoaz hona hemen bate-re sospetxagari ez den Jose Antonio Agirreren lekukotza:

En la primera ocasión en la que se ha puesto a discusión la autonomía vasca, todas las derechas españolas se han lanzado contra ella. Ni una sola de esas fuerzas, sedicentes católicas, se ha mostrado benévola con la autonomía vasca.

Historia luzea bait da hori, harrez geroan katolizismo horrek mila konbersio egin badu ere, hamar mila beharko genituzke, historia horren lezioak ahazteko.

Historia ez zaharraren lezio bat da, baita ere, Alderdi abertzaleek, zenbait aldiz, beren abertzale interesak berak jokoan jarri izan dituztela, Eliz erakunde horrenak babes-tearren. Aski da Lizarrako Estatutoaren inguruko eztabaidak aipatzea; edo, geroxeago (33-an) Konfesio eta Kongregazio Erlijiosoen Legearen eztabaidakoa Parlamentuan. Alderdiek ez dute Euskal Herrian berriz beren gain hartuko Eliz erakundearen interes defentsarik, interesok zinez gizartearen interes deklaratuak ez diren artean. Eta ez bakarrik, Elizak, Agirreri eta, zapoaren burla beltzarekin pagatu zielako. Elizaren gaitzainak surtatik ateratzea Alderdien zereginik ez delako baino.

Aitzitik, Eliza, historian zehar eta frankismo garaian are errazago, abantailaz eta pribilejioz dotore jantzi da. Erantzi beharra dauka. Burua makurtu beharra dauka, besteak zangopean zeuden artean, bentaja askorekin altxatu duena ere: irakaskintzan, eta abar, guziz meriturik gabe egin ez duen arren. Gizarte normal batek eraman ezinezkoa da Elizaren prepotentzia irakaskintzan.

Oinarri berri-berrien gainean eratu beharra dago Elizaren harremanak Estatuarekiko eta Alderdiekiko. Lehe-

nik, Euskadi ez da katoliko. Eta holako paragrafo bat absurdu da, goitik beheraino katoliko hutsa balitz ere: *Bizkaya será católica-apostólica-romana en todas las manifestaciones de su vida interna y en sus relaciones con los demás pueblos* (Arana Goiri). Antiklerikalismo erorik gabe, baina Estatu radikal laikoaren alde ahalegingo dute aberztzale sozialistek. Estatua ez da Elizaren —adiskide itxuran— morroin, zerbitzari.

Alderantziz, *nula intervención de las personas eclesiásticas en los poderes del Estado* (Arana Goiri). Printzipioz, batik-bat, Eliza, orain den eta historian agertu den hori, den artean. Eta historiak irakasten digunaren ondorioak ateratzearren, orobat. Kanpion aipatuko dugu, berriz ere Autore ez batere sospetxosoa:

Metería grima, señores, si no lo templase el respeto, observar cómo en dos circunstancias memorabilísimas de la Historia de Navarra, 1. cuando se afianzaban y completaban sus libertades, y 2. cuando la robaron su independencia nacional, el nombre sacrosanto de la Santa Sede prestó sombra a los enemigos de tan inestimables bienes.

36-koa ezagutu izan balu, hiru kasu aipatu behar izango zituen. Eta hiru nahiko dela, esaten da.

Kanpionek aipatzen duen lehenengo interbentzioa Obanosko Infantzoinen kontra izan zen: *pro libertate patria gens libera si(a)t*, araudun haiena. Infantzoinok Erregeren Aginpide absolutoa mugatzen zuten. Erregek, orduan, *ganó letras de Roma para escomengarlos*.

Bigarren kasua Nafarroaren Konkistakoa da: Aita Santuak eman bait zuen legitimazioa. Hona hemen Julio II-gnaren *Pastor ille celestis* buldatik:

(Frantziako Erregek) ha arrastrado al cisma a los vascones y a los cántabros y a todas las naciones circunvecinas, que siempre fueron devotísimas

de la Santa Sede... Por tanto, advertimos por las presentes a todos y cada uno de los fieles de Cristo y especialmente a los cántabros vascones susodichos, y a sus vecinos, que está pronunciada sentencia de excomunión mayor contra toda persona, cualquiera que sea la autoridad espiritual y temporal de que esté revestida, marqués, duque, rey, obispo o cualquier otro cargo, civil o eclesiástico, que en los tres días siguientes a la publicación de las presentes, publicación hecha en las iglesias de Calahorra, Zaragoza, Burgos y Elna, no se someta a la Santa Sede y se haya armado contra Nos o contra algún aliado de la Sede Apostólica, o haya recibido subsidios de dicho Rey Luis y de los cismáticos, o haya concertado alianza con él. A los que no se sometan, los excomulgo, anatematizo, maldigo y condeno, y les privo de sus dignidades, honores, feudos, gracias, privilegios, y los declaro inaptos para todo acto legal, pasiva y activamente, como culpables de lesa majestad. En virtud de la autoridad apostólica, CONVERTIMOS EN COSA PUBLICA TODOS SUS BIENES EN GENERAL Y EN PARTICULAR Y QUEREMOS QUE PASEN A PROPIEDAD DEL PRIMER OCUPANTE, de igual suerte que sus CIUDADES, FORTALEZAS, TIERRAS Y DEMAS LUGARES A ELLOS SOMETIDOS.

Ez dago zergatik erantsi, Eliz legitimazio ederrenekin sartu zirela Molaren tropak ere, euskaldunak ostera boltxebiki eta ez dakit zer omen zirelako.

Euskal Herriaren etsai eta hondatzaile printzipalenetakoa eta gaiztoenetakoa izan da Eliza Ama Santua. Ondoko legoke, Elizak ahaztuko ez balu.

Sozialista abertzaleak ondo ikusten du, katoliko direnek Euskal Herrian beren erakundea izatea, berek deriz-

kioten eran. Baina Estatuak bijilatu egin beharko du, poderio arrotzek eta historian zehar etsaigoa besterik tradizionalki erakutsi ez dutenek, boskarren kolumnarik hemen planta ez dezaten.

Areago, katolikoan sartu-irtena politikan eta gizarte antolaeran, beren indar *politikoari* demokratikoki dagokiona izan daiteke eta ez gehiago. Eskandalo bat da, eliztar gutiengo ahalguztidun batek hiritar gehiengo terrorizatzea, esate baterako, diborzio edo aborto legislazioan eskuak —edo anka— sartuaz, Italian ikusi dugun moduan. Eliz Hierarkia oso libre da, bere jarraitzaileei irakatsi behar diena irakasteko; katolikoak oso libre dira, beren esku dagoena demokratikoki egiteko, beren konzientziaren arabera. Baina, hortik aurrerantz, Estatuak ez dezake inolako xantajerik tolera kanpotik.

Beraz, Euskadi demokratikoan ez dezake balio holako asmo batek: *Conformidad de sus costumbres, de sus leyes y de sus actos de gobierno con los preceptos de la Religión Cristiana, los cuales obligan a los vascos como hombres y antes de ser ciudadanos: reconociéndose como única definidora e intérprete de estos preceptos a la Iglesia Católica y Apostólica que hoy tiene su cabeza en Roma; y garantizándose aquella conformidad con la oportuna venia que el poder civil solicitará del poder eclesiástico...*

Hauxe persegituko da, eta kito: *independencia entre la Iglesia y el Estado* (Arana Goiri).

DOKTRINA SOZIAL ESKASA: NAZIO, KLASE

Pentsaera batzuk beldurgarriak dira. Ez dakigu, ideiek inor hil dutenik. Baina oso kontuz ibili behar izaten da ideia batzuekin. Katolizismo militante horrekin, adibidez.

Ez da, esaten dena bakarrik. Teoria batetan esan gabe zer uzten den ere, begiratzekoa da. Eta Aranaren doktrina sozialari batez ere falta zaionaren aldetik begiratu beharko litzaioke.

Aranak teoria sozial koherenterik ozta-ozta bururatu bait du. Hori dela ta, hobeto konpreni liteke, nik uste, zergatik aranismoak anitz gazte ezin duen osoki gogobete. Eta zenbait gaztek hutsune hori bete nahita egiten dituen ahaleginek, herri arazoaren planteamoldea bera nahitaez aldarazten duela ere, konprenigarriago litzateke, agian, hutsunea zinez dagoela gogoan izanez gero. Hutsunea bete behar baldin bada, nahitaezkoak dira abertzaletasun era berriak.

Baina esan gabe uzten denak ez du mugarik eta geldi gaitezen Aranak esaten duenaz. Gizarte hauziaz Arana ez da asko mintzatu. Esan zuena aski dugu, halare, haren ikuspideak ezagutzeko.

Tamalez, burubide zaila dugu buru honetan: alde batetik, Arana kanonizatu dutenen kontra ihardun behar. Bestetik, ordea, Arana deabrutu nahi liguketen egun-egungo edo bihar-etziko exkertiarrei ere ezin arrazoi eman beste gabe. Ez dute ta. Goazen, ba, geure bidetik.

Aranari *sozialismoa* higuingarri zaio. Arrazoiongatixe: lehenik, arrotza delako; esan nahi bait da, espainola delako, de fakto. Bai teoria bezala eta bai antolabide politiko bezala. Teoria sozialistak ez dira euskal tradizio ta legeen mogarratik muskildu diren doktrinarik. Sozialismoa ez da euskal arazoei begira bururatu ere. Aitzitik, euskaldunen pentsa eta sentieraren kontrario da: katolizismoaren kontrario, batik-bat. Alderdi antiklerikal eta deuserlijiozko hau gure arraza izpituaren guziz kontrario da. Eta euskaldunen interes nazional edo foruzaleen kontrario halaber. Doktrinaz beste, antolaketa edo erakunde gisa ere berdintsu: 1890 aldera euskaldun langile sozialistarik doidoi zegoen. Hemengo sozialistak “maketoak” ziren gehiengehienbat, Aranaren hitzak erabiltzeko. Eta hainbeste maketoren etorrerak lan bila Bizkaira —irakurtzen diogu Aranari— euskal langileak lanik gabe uzten ditu, eta lansariak beheratzen ditu. Aldi berean euskaldunak Ameriketara doaz.

Del socialismo, ¿qué vamos a hablar? Predicado por tres o cuatro maketos, hijos de un país que no ha conocido jamás ni libertad, ni igualdad, ni fraternidad, ni equilibrio económico, y siendo en sí considerado un sistema radicalmente opuesto a nuestras antiguas y sabias leyes, no ha encontrado eco en Bizkaya, y no es cosa de darle una importancia de que carece (Bizkaitarra, 1894-eko apirilak 27).

Arrotz ezik, Aranak dionez, sozialismoa antieuskalduna da. Sozialistak beti eskabide nazional edo foruzale guzien kontra irtetzen dira, Madrilgo edozein Gobernu an-

tiforalean alde. Beste Alderdi guziak Euskal Herriaren alde ados diren puntuan ere, sozialistak beti kontra ta kontra besterik ez.

Halare Aranak sozialistak eta sozialistak berezten ditu: nazio bakoitzaren bizitzeko ta bere buruaren arabera desarrolatzeko eskubidea aitortzen duten austriar sozialistak kontralderatzen dizkie euskal sozialistei:

El partido socialista de Bizkaya, en cuanto constituido en ella, sigue un procedimiento bastante distinto al usado por los socialistas austríacos. En Euskeria, como en Austria, existe la diferencia de razas y la diversidad de lenguas. Mas lejos de estudiar y discutir las tendencias políticas que, basadas en aquéllas, se aparezcan, los socialistas se burlan de ellas, insultan sin descanso a los que las siguen y les da una higa de las doctrinas y de los doctrinarios.

Aranak liberalismo, anarkismo, franko-masoneria ta beste "heresia moderno" galgarriekin batera jartzen du sozialismoa eta guziak berdin eta batera gaitzesten ditu. Beraz, Aranaren antisozialismoan haren fede kristauak baidu zerikusirik; hau da, garai hartan katolizismoa ta sozialismoa elkarri buruz-buru nola ari ziren, aintzakotzat hartu behar da. Era berean, Aranaren doktrina sozialean bere katolizismoak zerikusi haundia da.

Ez du, halare, *kapitalismorik* inoiz propio onetsi, orain zenbait lekutan esan ohi den bezala. Alderantziz, kapitalismoa bai moralki eta bai euskal-politikoki eta bai sozial-politikoki gaitzesten du, gaitzetsi, hitzeko gaitzespenez behinik-behin, eta bere intentzioz ere. Kapitalismoaren kondenan Arana ez da batere labur gelditu. Halare kapitalismoaren barne-barneko azterketarik ez du, eta haren barneko legeak barik, kapitalismoaren ihardukera zatarren batzuk bakarrik salatu ohi zituen. Hots, tradizionalista an-

tiliberal baten kapitalismo kritika egin du. Areago, ilusio prekapitalistetan dabilenaren kritika.

Moralki: kapitalismoa, diru pilaketa gutziarekin, irabazi grinarekin, haundi minarekin eta beste gaitz antiebanjelikoekin eskuz-esku doalako. Bihotza zitaltzen du. Izpirituzko ondasunak erdeinatzerara darama. Horra hortxe Bizkaia, "izpiritu fenizioak", materialismoak jota, tradizio izpiritual jatorrak ahaztuta. Diruak, irabaziak, Aberria ahazterazi die bizkaitarrei.

Euskal politikari begira, Aranaren begitan, kapitalismoak zukutu ta birrindu ditu euskal tradizio politiko jatorrenak bere interesen azpian: ohitura garbiak deseginez, lanerako "maketoak" esku merke bezala ekarriaz, arraza nahasketa sortuaz, guzien berdintasunaren kontra kazikismoa ta jauntxokeria eraikiaz, konzientziak errosiaz, bozemaldietan ustelkeria ta korrupzioa sartuaz, Aberria zabarrarraziaz, eta abar (*El Caciquismo*, Baserritarra, 1895-eko uztailaren 25).

Bizkaiaren zorigaitz guzien errudunak kapitalistak dira. Bizkaiaren askatasuna —interes makur batzuen alde saldu dute. Bizkaiaren garbitasuna—, langile merke truke. Berek dituzte bazterrak bete erlijio gabeziaz, biraoz, librepentsaeraz, anarkismoz, sozialismoz. Askatasuna galtzea, kapitalismoa indartzea ta Bizkaiaren hondamendia, gauza beraren hiru aurpegi dira.

Kapitalistek jendeterien miseria ta gosea ekarri dute. Miseriaz bizioa, moskorkeria, narraskeria, jende apalaren deusgizatzea. Langile jendea animalien antzeko bihurtu dute. Industrialek, komertziozaleek eta meatze jabeek langileok piztien antzera tratatzen dituzte eta deusgizatsuki esplotatzen dute pobrea (*Las pasadas elecciones*, Baserritarra, 1897-ko maiatzaren 30). Negarra ta gosea ekarri dute... Beste onik ez.

Ez dut esan nahi, Aranak langileen egoera gaitzaren sentimentu aparte ageri duenik eta ez Aranak langileen

ardura gehiegi zuenik. Sabinen interes nagusia beste bat zen: nazioa, Euskal Herria. Eta nazio interesaren eta sozial interesen konfliktu batetan aurkitu zen. Konfliktu hori zegoena zen, errealtatean zegoena, ez Aranak asmatua. Baina sozialistak eta sozialistak baldin badaude, Arana eta Arana dago: hots, Aranaren eboluzioa dago esate baterako. Hau ez da azterketa zorrotz batetarako lekua. Baina Aranaren eboluzioa nabarmena da ta pittin bat seinalatu beharrezkoa da.

Hasieran (1894/95 aldera) langileez oso gogor mintzo da eskuarki: langile "maketo" horiek "son vagos por naturaleza"; eta deskontentu badaude, etorri ziren bidetik joatea daukate, inork hotsegin gabe etorri ziren eta; bestela, beude isil-isilik. Langile protestarik ez du onartzen huelgak eta. Langile "maketoak" eta euskaldunak alderatzen ditu: euskaldunak lan gogor egiten du, zintzo ta isilik. Ez du huelgarik eta istilurik sortzen, eta abar. Ama Birjinari errezatzen dio. "Maketoak" beti bihurriturik badabilta, arraza petrala direlako.

Geroago ere (1897 aldera) ez ditu begi onez ikusiko langile "maketo" horiek ("plaga de los chinos"); Aranaren ustez horiek bait dira euskaldunek Ameriketara emigratu beharraren kausa, bertako industriak ez bait dio langileari jateko haina ere ematen (langile maketoak euskaldunak baino gutiago jaten duela, baina askoz gutiago lan egiten duela, esango du Aranak). Halare Aranak ezagutu du langileen egoera eta hura salatzen hasi da ("el pobre es inhumanamente explotado y tratado como bestia"). Ontzat ematen du, iadanik, langileen burruka kapitalisten kontra, "tiranía burguesa"-ren kontra, giza eskubideak nahiz hiritar eskubideak ukatzen edo ta gogorki murrizten bait dizkio langileari. Aranak orain nahiko duena, da, euskaldun langileek *beren* burruka egin dezatela, erdaldunekin nahastu gabe.

Idea bat zen hori, proposamendu bat. Aranak ez zuen bere politika hortik eraman, ez zen ta sartu langilerian

politika egitera. Oraindik ere, iruditzen zaidanez, langileen alde baino gehiago kapitalisten kontra ikusten dugu soil. Baina huelgei buruz, adibidez, nahiko positibo ageri da, eta kapitalistek horixe besterik ez dutela merezi, esango du: kapitalistak, izan ere, “con su enseñanza y con su constante ejemplo, pervierte y extravía al menor de la sociedad, al pobre pueblo. ¿Qué mucho que éste se rebelle contra la clase que le dirige y le gobierna, tan pronto como sobre sus espaldas siente el peso del despotismo y la crueldad? Instruido y habituado el pobre a rebelarse contra un Dios de misericordia, ¿no habrá de rebelarse contra el miserable hombre, no más hombre que él, que le trate como a bestia y le esclavice? (*La Patria*, 1902-ko otsailak 23).

Bitartean Aranak bere eskarmentuak egin ditu indar errepresiboekin eta esperentziok bere eboluzioa eragin diote. Estatuaren egiazko aurpegia ezagutu du. 1902-ko huelgek errepresio gaitza eraman dute. (Huelga horietan sozialistek apenas izan zuten parterik; Iglesiasek, bereziki, kondenatu egin zuen 1902-ko otsaileko huelga orokarra.) Hasieretako herstukeria nazionalistatik oraingo postura honetara asko zabaldu dira Aranaren ikuspegiak. 1903-ko huelga ondorenean, Aranak badaki, Estatu, Gobernu, indar errepresiboak, kapitalisten morroin ta zerbitzari leialak besterik ez direla (urte honetan hilgo zaigu Arana, eboluzio posiblea moztuaz). Langileak nahastatu ta kapitalisten aurka altxatu direnean —salatzen du orain Sabine— berehalaxe ikusi dugu Harmada langileoi erasotzen. Alogera jasotzeko eskatzen zuten langileen kontra ikusi dugu beti: behin ere ez beren interesak edonola zaindu nahi izan dituzten kapitalistei jazartzen.

Sozial ikuspideetan nola-halako eboluziorik egin arren, Aranak funtsean beti abertzale gisa juzkatzen du. Lehen-lehenik abertzale da. Kapitalismoa sozial-politikoki epaitzerakoan bertan, hein haundi batetan abertzale gisa ari da. Konzientziak erostea, hau da, demokrazia diruz erostea,

etc., guziz konkret ikusten ditu: hori dena Bizkaian gertatzen ari den bezala. Horrek denak euskal demokraziari nola oso-osorik kontraesaten dion, salatzen du. Kapitalismoa, sozialismoa bezalaxe, euskal tradizioen kontrario ta antieuskaldun da. Baina sozialismoa ez bezala kapitalismoa euskal demokraziaren desegile ere bada.

Astiro-astiro oligarkiaren papera ikusten hasi da Sabín: langileak zapaltzen dituen klase horixe bera dela euskal herriaren —nazioaren— desegilea. Horiek, batik-bat, “no han servido al nacionalismo porque aman más su dinero que a su Patria”. Horietxek ekarri dute langile inmigrazioa, “para explotar vuestras minas y serviros en los talleres y en el comercio, estais pervirtiendo la sociedad bizkaina”. “La codicia, ese afán insaciable de riquezas que no repara en medios, que atropella la ley santa de Dios, es lo más opuesto a nuestro carácter tradicional, a nuestra existencia como pueblo”. Arraza mordoilotu du. Euskal demokrazia hondatu, kazikismoz eta boz erosketaz. Euskalduna endakatu du: “Por el dinero, se rebaja el vaso a servir a un cacique y a hacer traición a su patria”. Oligarkia horren menpean euskalduna ez da euskaldun. Zarpildu egin da euskalduna.

Ez orain bakarrik, hau da, XIX ta XX-gn mendeen itzulian: euskal historia guzian holaxe izan dela, hasten da pentsatzen Arana; klase nagusiak ez dira beren Aberriaz arduratu, Euskal Herriaz. Hori ez da oraingoa. Aspaldi saldu zuten horiek Aberria. Euskal historia Aberriaren saldukeria etengabe bat iruditzen hasten zaio Aranari: “Cuanto más avanzo en edad, más aumentan ante mis ojos el número y la gravedad de los yerros históricos de nuestra raza y sus defectos y vicios así en el pasado como en el presente:... casi no veo más que negro, todo triste, todo abominable”. “Klase ilustratuak” espainolistak dira Bizkaian, eta aspaldidanik hori.

— Ikus euskara, adibidez: “¿Qué han hecho nuestros antepasados?... Hace siglos que nues-

tro Pueblo está abandonado: la prueba está en el mismo euzkera”.

- Bigarren karlistadan ikus daiteke klase nagusion politika: burgesiak, hiriek —Bilbok batez ere— nahiago izan dute beren interesak salbatu, Aberriaren interesak zaindu baino, Aberriaren askatasuna beste interes guzien aurretik dagoela ahazturik: “porque cuando la Patria lo quiere es preciso sacrificar la vida, cuanto más la hacienda”... Bilbok, horregatik, ikaragarritzko kaltea egin dio Aberriari, Bizkaiari. Eta hori “no es ciertamente porque los verdaderos bilbainos hayan sido antibizkainos; no, sino porque han sido tan cándidos como los demás euskerianos, y se han dejado dominar por una o dos docenas de encubiertos enemigos de la Patria”. Bilbo burges horrek nahiago izan du erdara —“la lengua del dominador”— euskara baino; hura, hizkuntza ofiziala izaki, “la que más se presta para la vida mercantil e industrial, única que absorbe la atención de la metalizada villa” bait da. Eta liberal izan da, Foruak baino diru moltsa maiteagoaz.
- Begira oraintxe bertan Bizkaia nola dagoen, “regida por autoridades que consideran los Fueros como una antigualla, como un platonismo, como una gollería; dividida en tantos partidos políticos como los hay en la capital de España, que posponen a todo los Fueros, porque no son éstos cosa que deba ocupar a ninguna política grande y seria, y fascinada su villa más populosa por el brillo del oro, que es esencialmente pacífico y tranquilo y engrosa los estómagos a expensas del corazón”.

“Klase ilustratuak”, hots, gidariak, nagusiak, salduta

daude, atzo hala gaur (“vedla ya en el siglo XVIII, intoxicada por el virus españolista, anémica y sin fuerzas para oponerse a un contrafuero”). Espainolistak dira. Eta salduta ez daude burgestzar haundiak bakarrik: horien atzetik joan dira besteak. “Hay *maketismo* o españolismo en todas las esferas de la sociedad bizkaina: le hay en las autoridades eclesiásticas y civiles; en la prensa periódica y no periódica, en las sociedades políticas y de recreo, en las asociaciones religiosas y profesionales, en las órdenes y congregaciones religiosas, en el clero, en la industria, en el comercio, en la propiedad, en el trato social, y por último, en el matrimonio, que, como generador de la familia, que lo es de la sociedad, es la llave de las posiciones y el elemento más trascendental”... Burgestzar haundiak dira okerrenak, halare. Horiek desegiten dute Aberria. Sabineke bapo astindu ditu burgesok, Aznar eta Gandarias (Markina ta Gernika aldeak, euskaldun garbiak, hondatu omen dituztelako) nahiz Sota eta Chávarri, Enkartzioetan eta Bilbon ari zirenak, azkenekoa batez ere (“despreciable tiranuelo”; “no tiene más talento y virtud que el mineral y el lingote, y... aspira a someterlo todo a su capricho bajo el peso de su oro”; “pretende erigirse en Amo y Señor de Bizkaya, sujetando a este pueblo desdichado a un nuevo abominable yugo”). Arana ez zen burgesia ahalguztidun horren menpera makurtu. Aitzitik, lotsa gabe argoitu zion. [Eta kaziki horien aurkako bandera ere bera bihurtu zen, jendearen begitan, beste sozialistarik edo baino gehiago.

Las elecciones provinciales de setiembre de 1898 para el distrito de Bilbao capital proporcionaron la ocasión para que dichas opiniones fuesen aireadas. Aunque triunfó la candidatura chavarrista, que obtuvo tres de los cuatro cargos disputados, lo que dio significación a las elecciones fue la elección del líder del movimiento nacionalista vasco, Sabino Arana. Obtuvo 4.545 votos, cifra

inferior en sólo 300 a la obtenida por el chavarista Aresti y muy superior a los 1.830 votos del primer socialista, Villar. Como los votos de Arana, en contraste con los de Aresti, eran en gran parte auténticos, se le consideró como el verdadero triunfador de la elección, irakurtzen dugu Fusi baitan, *Política obrera en el País Vasco*, 1975, 195.

Eta bozemaldien obserbazale baten eritzia aipatzen digu, Aranaren esitoa esplikatzeko: “le votaron muchos tibios y muchos que deseaban sacudir el yugo dominante de Chávarri”...]

Beltzak arrazoiez esan duen moduan, “las relaciones entre nacionalismo vasco y gran burguesía fueron, en esta primera época, de gran tirantez”.

Chávarri hil zenean, Diputazioak omenaldi bat egitea erabaki zuen. Sabinen orduko purrustaldia mila aldiz aipatu izan da:

Bizkaya se felicita porque ha desaparecido de su seno su más cruel enemigo, y con Bizkaya se congratulan sus buenos hijos al presentir las consecuencias de esta desaparición, y con más motivos que el que tuvieron para celebrar la de Cánovas, porque en todas partes será siempre el enemigo de casa más pernicioso y temible que el de fuera.

Arana sozialismoaren kontra zegoela ta, pentsaera alternatibistak berehalaxe asmatu du, Arana kapitalismoaren aldezkari omen genuela. MCE-ko José Uribe harek, adibidez, gorago ere aipatu dugunak: “Este (Arana) nunca fue partidario de que el pueblo vasco ejerciera la soberanía nacional. Diremos más: fue partidario de una Euskadi bajo dictadura burguesa...”. Aski adibide bat, halako soberra dabilen tokian. Kirtenkeria hutsa.

Abertzaletasun usaineko guzia ezin ulertzeko edo apropos aldrebesteko “ezkertiarren” batzuen habilezia klasikoa gure hazaldian ere ez da oraino galdu. Arana zera besterik ez bait dugu: tradizionalista kontserbakor guziz konsekuentea. Baina kasu: euskal gizarte burges-aurreko eta laborariaren aldele sutsua, ez burgesiarena. Antiburges porrokatua da. Antisozialista ere bada, bai, baina inolaz ere ez burgesiaren izenean. Behinolako artzain eta laborarien euskal gizarte perfektorearen izenean baizik. Arana garbi asko mintzatu da hortaz, hitzak haren ahoan aldrebes jartzen ez baditugu: *berak eskuratu nahi duen gizarteak berdintasun sozial eta politiko guzizkoduna izan behar du*. Jauntxorik eta zapalketarik eta klase borrokarik gabeko gizarte. Estatuaren errepresio gabeko gizarte. Aranaren ikuspideak halakoxe gizarterik lortzeko praksian egokienak al diren, beste kontu bat da: helburu hori helpide benetan harrigarritz lortu nahi bait luke. Aspaldietara itzuliaz, alegia. Eta hor dago koska. Aranaren pentsamentu ardatza bere tradizionalismo erreakzionarioa bait da. Baina borondate txarrekoak bakarrik esan lezake, lasai-lasai, Aranaren xede ta jomuga “una Euskadi bajo dictadura burguesa” zenik... Aukera-aukeran hobeto esan du Paynek: “no fue ni un burgués ni un social radical, sino un populista nacionalista”.

Sozialista ez zen, kapitalista ez zen: beraz, nondik norra jo gizarte hauziaren soluzio bila? Aranarentzat abertzaletasuna beste irtenbiderik ez dago. Sozialista klasikoena bezalaxe, Aranaren tipiko da soziala ta politikoa ez aski bereztea. Biok funtsean berdintzeraino ere lotzea soziala eta politikoa. Aranek egiten du hori eta sozialistek egiten dute hori. Kolpe politiko bat-berak gorabehera sozial guzien soluzioa emango du, biek espero dutenez: iraultza bidez aginpidea eskuratzeak, sozialistentzat; Euskadi jatorra berreratzeak, Aranarentzat. Hemen ez da pentsatzen, nonbait, iraultza —nazionala nahiz soziala— prozesu luze eta konplexo bat izan litekeenik. Kolpe magiko batek erabakitzen ditu gauzak. Izan ere, biok hain desberdin iruditu

ta izan arren, sozialismoak eta aranismoak, biok egitamu monista berbera dute oinarrian: beren gizarte azterketan, gaitz guzien *azkeneko sustraia* idoro da, eta, beraz, gaitzon guzian azken sustraia moztuko duen haizkorakadak besterik gabe gizartea bere on guzietara zuzenduko du. Gaitz ororen sustrai *bat*: kolpe *bat* halaber gaitz guzien erremedio santua, ondorio bidez etorriko omen bait da falta dena.

Zer egin? Garbia ta sinplea da Sabinen arrazoipidea: euskal nazioa gauzatzea da Euskal Herrian gaitz guzien soluzioaren sekreto. Euskal nazioa egiazkotuz gero ez da gizonaren giza esplotaziorik egongo. Denak berdinak, denak libre. Langileek, bada, Aranaren hitzez esateko, “despotismo burgesa”, “zapalketa burges despotikoa”, “dominazio burges gorrotagarria”, “tirania burgesa” porrokatu ta beren giza ta hiritar eskubideak berrirabazi nahi badi-tuzte, biderik hoberena abertzaletasuna dute. Euskal Herria berdintasun sozialerako bidea ez da sozialismoa, aber-tzaletasuna baizik. Antzinako Bizkaian, izan ere, Bizkaia jatorrean eta berriz eraiki behar den Bizkaian, jendearen erabateko berdintasun soziala eta politikoa zegoen eta ego-nen da berriro. Denak noble ziren. Edozeinek edozeini bozeman zezaiokeen. Hautatuari karguaren kontu hartzen zitzaion. Lege espainolek eta berauen ondorio bidez etorri-tako kapitalismoak sortu dituzten diferentzia politiko ta sozialak, berez suntsituko dira, hortakoz, berriz Lege Za-harrera itzul gaitezenean.

Hori da bidea ta ez besterik:

¿No comprenden [langileek] tal vez que, si odiosa es la dominación burguesa, es más odiosa aún la dominación maketa? ¿No ven que, rechaza-da la dominación burguesa, aún quedaríamos los euskarianos, con el socialismo, sujetos a la domi-nación maketa, mientras que, salvos de ésta, Eus-keria o al menos Bizkaya, sería también salva de la dominación burguesa, que está esencialmente

reñida con la constitución social de los siglos de su libertad” (Baserritarra, 1897-ko maiatzak 30).

Askatasun ta berdintasunezko Euskadi hori nahi dezaten guziek PNV-an elkar hartu behar dute. Honen baitan pobre ala aberats berdin da. Helburu berdinak aberats hala pobreentzat. Eskubide ta ahalmen berdinak.

Aranak abertzaletasunaren helburuan —sozial ta politikoa— denok bat etortzea nahi du: *berdintasunezko ta askatasunezko Euskadik izan behar du euskaldun guzien xedea*. Nola elkartu burgesak eta proletarioak? Aranak biok ere batera jokatzeko nahi luke. Baina ikusten zuen zailtasuna. Eta, azkenerako, onartzen zuen ezintasuna: orduan, langileek burgesekin eta kapitalistekin elkartu nahi ez badute, elkar bitez beren artean eta egin bezate borroka beren aldetik, kapitalisten kontra bai, baina politika espainolistaren amarru sareetan erori gabe. Burgesia garaitze hutsak ez du langile euskalduna guziz askatuko. Langile gisa burgesiak zapal dutako euskaldunak ezin ahantz lezake, langile hutsez beste euskaldun dela, hots, nazio gisa ere zapal dutako nazioko seme.

¿Por qué *los obreros euskerianos* no se asocian entre sí, separándose completamente de los maketos y excluyéndolos en absoluto, *para combatir contra esa despótica opresión burguesa* de la que tan justamente se quejan?...

Sepárense de los maketos, asíciense entre sí enfrente del despotismo burgués, y así trabajarán a un tiempo *para derrocar una y otra dominación* (gure azpim.).

Ideien historia xeblekeriaz beteta dago, eta bat hau xe da: egunotako euskal gazteriak aurkitua iruditzen zaigun Engelsen ideia hau (zapalketa bikoitzarena, sozial eta nazional), Aranaren garaiko sozialistei ez zitzairen nonbait bururatu hemen, baina zeini ta Aranari bai! Eta gaur ber-

ton, ideia hori predikatzerakoan, ezkertiar askok aipatu digu Engels, baina ez dakit askoz gertuago Arana aipatu digun inor... Elkar bitez, bada, langileak beren artean, “eta horrela menpetasun bataren nahiz bestearen kontra lan egingo dute”, argitu zuen Aranak.

* * *

Batzuek sinestarazi nahi liguketen bezain petralik ez, baina Aranaren doktrina soziala oso pobrea da. Okerra ere bada. Ederki da helburutzat berdintasunezko ta askatasunezko erreinu bat proposatzea. Baina, ilusioak ilusio dira. Aitor dezagun, gizarte hura Aranak noizpait izandakotzat eta berriro posibletzat ematen zuela. Aranarentzat zinezkoa zela, eta huraxe zinezko bakarra. Horra, bada, proposamendu horren harrigarria: atzeraka aurreratu nahi da. Gerora baten-bat gogorki saiatu zaigu —eskuinaren eskemen barruan bera ere— iraganiko euskal gizartea zinez hain berdindu ta librerik ez zela izan, erakusten; benetan arras berdindua ta libreza izana bagenu ere, gauzak guretzat ezer aldatuko balira bezala edo... Hutsegitea ez dago argumentu bakanetan, behinolako euskal gizarte perfektua sinestean edo ez sinestean (Marxek eta Engelsek lehen gizarteen komunismoan sinesten zuten) eta bai planteamolde arruntean bertan: iraganera itzulpiderik dagoela pentsatzean, edo balego bezala aritzean. Eskuinkeria horixe da. (“Eskuinkeria positiboak” iraganaldian ez du ikusten argi ditzira besterik; “eskuinkeria negatiboak” ilun beltza baizik ez.) Aldian aldiko planteamoldeak atzerantz bideak hertsita dauzka, bideak aurrerantz bakarrik zabal ditezke.

Urteak eta urteak egon da euskal abertzaletasuna, hauzi sozialaren planteapen serioarik egin gabe, haren konponbidea nazioa askatzearen ondorio izan zitekeelakoan. Orain nabarmena da gure atzerapena sozial arloan. Nabarmena, orobat, abertzaletasunari horrek egin dion kaltea. Okerokerrena, halare, guziok handik dugun kaltea da, aurrerabide sozialak esijitzen ditugun guzior kaltea. Nazioa dela

ta klaseak direla, alternatibismo itsu batetan darabilzkigun buruhausteekin, inork ez bait du irabazirik.

Sozialismoa “arrotza” dela, ez dela “euskal izpiritua- rekin” egokitzen, eta abar, horrek denak, bera bezalako beste sinplekeria batek haina eta harek oinarrituta bakarrik balio du: euskal izpiritua berez demokratiko ta sozial dela. Hori da urteotan ainbat borrokatu den euskal “esentzialismoa”: euskal arrazaren “esentzia” demokratiko da, askatasun zale, sozial; Foruen “esentzia” guziz demokratiko da, Bizkaiko Jauna ta horiek “akzidenteak” dira. Apetaz apeta, esan dezagun, hortaraz gero, inguruan Espainia ta Frantzia edukitzea ez dela “akzidente” besterik eta kito... Historia, ordea, ez da akzidentalki baizik ibiltzen: eta akzidente hutsa da, ez garelako Harri Aroan bizi.

Euskaldunak garelako, ez dugu sozial monismorik onartzen. Baina nazio borrokaren monismorik onartzea ez da errazagoa egoera honetan. Arrazoizkotzat daukagu Sabinen galdera: zer egin dugu burgesia oinperatuaz, Euskal Herriak menpeko jarraitzen badu? Baina arrazoizkotzat jotzen dugu, galdera horri bestea eranstea: zer egiten dugu —mila bider esan denez— Euskal Herria askatuaz, lau jauntxoren mendean gelditzeko?

Ez da aski kapitalismoaren zatarkeriak salatzea. Kapitalismoa sistema bat da eta sistema bezala bere mekanismoak ditu. Hori ikusi behar da: mekanismo horrek nolako Estatua produzitzen duen, harremanak nola partitzen dituen gizartean, nolako hierarki tankerak moldatzen dituen (mailak, sailak, klaseak), eta abar, eta nazio arteko harremanak nola gidatzen dituen.

Aranari klase konzeptua falta zaio (hemengo sozialista klasikoei nazio konzeptua falta zaien moduan). Euskal Herriko oligarkak bapo astindu zituen. Baina pertsona bezala hartu zizkigun, pertsona zital bezala, ez klase bezala. Egia esateko, klase konzeptua lortzeko urrats batetara egon zen tarteka: euskaldun langileek beren artean burgesen aurka elkar hartu beharra nabaritu zuen; somatu zuen,

historian zehar klase nagusiek euskal herria zabartu izan dutela... Baina ez zuen urratsa eman, bere eskemetatik kanpora irtetzera behartuko zuen urratsa, hori dena klase kategorietan atzemateko. Eta azkenean guzi horren esplikaziorik gabe gelditu zen. “Los yerros históricos de nuestra raza”, esan beharko du Aranak, klase batzuen saldukeria aipatu ordez. Eta ezin du konprenitu, nola hain arraza paregabea hain arraza txaldana den une berean: “de tal manera que, sin embargo de reconocer las buenas cualidades que hoy como siempre la adornan... veo que sus buenas dotes se eclipsan y anulan tras las malas condiciones que la deshonoran...”. Klase konzeptuarekin aisa esplika zezakeen kontradizioa.

Eta, beste kausak aparte, klase konzeptu garbi gabe imposible zen euskal eta erdal langileen integrazio politikarik abiatzea ere. Aranak nahitaez erdal inmigratio langileen antitesi amorratua izan behar zuen, zen bezalako abertzale izanik.

“Maketo” —euskaldun, inmigrante— bertako: ez dugu esango, problema hori aranismoaren ondare dugunik, baina badugu aranismoaren ondare franko problema hortan. Eta, nire ustez, *sozialismo abertzalearen problema larriena* hori dugu: problema praktikoa ta teorikoa.

Planteamolde klasikoentzat erraza da soluzioa. Aranisentzat: maketoak dira ta horiekin ez dago problema komuntasunik. Sozialistentzat: horiek edozein bezalakoxeak dira eta ez dago problema diferentziarik. Bide hortatik, problema komuntasunik ez badago, edo diferentziarik ez badago, soluziorik ere ez dago, azken finean problemarik ez dago ta, egon.

Langile inmigratioa problema da eta problema latza. Hori ezin uka genezake, arrazismo akusazioa egingo diguten beldurrez beti. Gobernuak apropos bilatua izan dadila, ez dadila, ez dio asko ardura; baina gure nazio existentzia mehatxatzen duen problema latza da (ez horrek bakarrik, baina bai horrek ere).

Gerra osteko joera abertzale nahiz sozialista berriek nazio ta klase konzeptu biek in operatzen dute iadanik, eta planteamolde ber-batetan bildu nahi lituzkete inmigrantea ta bertakoa, bai klase arazoa eta bai nazio arazoa batera planteatuaz. Aitor dezagun, asmo zaila gertatzen ari zaigula. Hortik zatikatu da euskal ezker behin eta berriro mila zatitan. Eta beldur izatekoa da, ezker berriotako parte bat behintzat planteamolde zaharretara lerratzen ari dela, geroz eta gehiago, diferentziaren batzuk salbatu arren axal-axalean.

Planteamolde batzuek, izan ere, klase batasuna gordetzen dutela, ematen du, baina ez nazio batasuna. Klase problemak berdin planteatzen dituzte, hortakoz, eta horietan euskaldun ala erdaldun batera ihardun behar da; baina, euskara ta horiek, "euskaldunen" gorabeherak bezala tratatzen dituzte, ez guzienak... Klase interesen batasunik dagoen bezala, ez dago nazio interes batasunik. Eta "euskaldunekin" oso "tolerante" badira ere, funtsean ez dute nazio arazoaren soluziorik bilatzen, "minoría" soluzio hutsa baino.

Besteak hainbat errazago askatu dizu korapiloa: nazio konzeptua funtsean klase konzeptuan urtuaz. "Euskalduna da Euskal Herrian lan egiten duena". Ez dugu esaten, hori gezurra denik. Baina sinplekeria ezertarako eza da, hori besterik gabe (1). Bide hortatik aisa gelditzen gara nazio konzepturik gabe, hura guziz desbirtuatu dugulako.

(1) Beltza, *Notas para una Teoría del Nacionalismo Revolucionario*, uste horiekin polemikan ari dela, honela mintzo zaigu: «Todo el que vende su fuerza de trabajo en Euskadi es vasco», «Todo el que está oprimido en Euskadi es vasco»... dicen y ¡Hala! Supongamos un español de Ciudad Rodrigo, coge el tren y es español, baja en Beasain y es español, firma un contrato con la CAF y es vasco... ¿Milagro o tontería? Ser vasco es una cuestión de conciencia nacional, cierto, pero la conciencia nacional no nace del cielo, nace de la concienciación de una etnia y una etnia se define por su cultura, y en el caso vasco el Euskera es el elemento clave de todo proceso nacional». Eta Lagunek: esta postura equivaldría en EE.UU. a pintar a los negros con cal y afirmar que ya no hay problema racial al ser todos «blancos».

Ez da ezer konpontzen, ordea. Zinezko problema bati hitzezko soluzio erraza ematen zaio bakarrik.

Sinplekeria bat zen Aranarena: “maketo” dira ta kito. Sinplekeria bat da hor dabilen hori: euskaldun dira ta kito.

Hori da, funtsean (zentralak Madrilen edukitzea baino hagitz okerragoa), beren planteamoldeen azpian sukurtsalistek daukatena, edo hobeto esan, ez daukatena: nazio konzeptu benetakoa.

Soluzioa ezin izan daiteke, klase arazoa planteatzea eta guzientzat planteatzea; eta nazio arazoa planteatu bai, planteatzea, baina hori “euskaldunentzat”... inmigranteak nazio arazorik gabeko “euskaldun” bihurtuaz! Horientzat nazio arazorik ez balego bezala. Sukurtsalistek egin nahi dutena horixe bait da: abertzaletasuna indartu da, abertzale agertu beharra dago orain, euskal nazioaren eskubideen aldezkari bilakatu zaizkigu denak... eta “nazio problemarik gabeko euskal nazio” bihurtu digute inmigrazio guzia. Dotorrea, soluzioa. Bigarren mailako euskalduntatik edo “maketotatik” euskaldun pribilejiatutara.

Guk ez dugu ukatu nahi, ez ahaztu nahi, nolako problema ikaragarriak sortu zaizkion euskal nazioari masa inmigrazio erdaldun horrekin. Guk ezin esan dezaiokegu erdal langileari, problemarik ez digula sortzen. Aitzitik, sortzen dizkigula, esan beharrean gaude, egia horixe da ta. (Jakina “antipolitikoa” dela, askoz errazagoak dira beste jokabideak.) Baina soluzioak hortik etorri beharko du. Guk integrazioa nahi dugunean, ez da, problemarik ez dagoelako, ezpada problema galantak badauden arren eta badaudelakoxe. Nazio problemarik ez balego bezala ari diren horiek, horietxek dira integraziorik nahi ez dutenak, euskaldunok euskaldun izatea utziaz etor litekeen integrazioa ezpada. Sozialismoak berriz ere hori izan behar badu, Aranak arrazoi aterako du *post mortem* ere: holako sozialismoa anti-euskalduna da.

Nazio konzeptua ez dela estatikoa, esan ohi dugu, historiaren zentzu modernoak erakutsi nahiz. Are gutiago dira beti berdinak nazioa aurkitzen den egoerak. Ba, atera di-

tzagun kontuak, orduan; utz ditzagun planteamolde horiek (euskaldun diren ala ez diren inmigranteak), modu horretan ez bait dago problema horren burubiderik. Funtsean definizio bat diskutitzen aritzea da hori, beste ezer ez; kontenidorik ez. Aranismoaren ondare iruditzen zait, langile inmigranteok Euskal Herrian zer diren eta zer ez diren eztabaidan konzentratzea. Direna, hots, garena, euskal nazioa dena, hori denok dakigu, anomalia bat da. Eta nahi duguna soluzioa bada, bila dezagun soluzioa, kasuistika alferrak utzita. Soluzioa, ordea, gizarte honen integrazioz iritxitako transformaketa bakarrik izan daiteke, logikoki, oraingo egoera anomalia bat baldin bada. Orain euskal nazioa ia ezagutu ezineraino deseginik badago, non dagoen eta zer den eztabaidan bait gabilza, bistan dago bihar gauzak garbiago egongo direla: edo ez da batere egongo, edo ezagutzeko moduan egongo da. Ezagutzeko moduan egongo bada, politika nazional garbi ta irme batek hartara duelako, izango da. Ez, sozialista klasikoek eta gaurko sukurtsalistek darabilten “hitzezko” abertzaletasun horrengatik. Hemen bizi garen denok zinez saiaturaz bakarrik izan gindezke nazio bat, komunitate bat.

Klase bat langile denak. Nazio bat Euskal Herri osoa. Borrokan, praksian, bilakatzen da langileria, talde ta sail ezberdin ugari duena, klase eta klase bat; konzientzia da hortarako baldinkizun bat, eta —konzientzia bezain beharrezkoa hori ere— errealitate jakin bat oinarrian, langile errealitatea. Nazioa ere ez da ezer estatikorik, esan ohi dugunez. Gorputz sozial historikoa da. Borrokan, praksian bilakatzen da gizatalde bat nazio eta nazio bat (gehienek burgesaldian egin zuten): batasun konzientziaz ETA errealitate jakin batzuek oinarrian (hizkuntza, etc.)... Euskal Herriko gizartea, orain den kaos hortatik, nazio aterako duena eta nazio bat egingo duena (azken finean, euskaldun ala espainol), praxia izango da. Praksian sinesten dugulako, esaten dugu: nazio bat Euskal Herri osoa. Praksiari begira, hain zuzen, eta Marxen tesiak *ad Feuerbach* oroi-tuaz.

Hor dago aukera eta aukerabeharra: zenbait praktik espainol bakarrik bihur dezake gizarte hau; zenbait praktik bakarrik bihur dezake zinez euskaldun. Beraz, hauzia ez da, oraingo unean inmigrante horiek “zer diren”, berriz ere esentzia bila. (Ez dira ezer, historiak egingo dituen baina.) Hauzia da, zein praksiri ta errealiteri buruz, erreferentziaz, esplikatu nahi den horien situazioa. Praksi espainolista daramanak, horiek euskalduntzat jotzea, oportunistoa beste oinarri gabeko berriketa da. Praksi euskaldun eta nazionala daramanak bakarrik har ditza ke zinez horiek euskalduntzat, bere praktiari eta etorkizunari erreferentzian hain zuzen.

Aranarentzat lehen-lehenengoa Aberriaren bizitza da. Euskal Herriaren bizitza. Horregatik ez zuen politika espainolik nahi; ez zuen nahi politika espainolitarik, euskal politika hutsa baino. Euskal independentzia nahi zuen.

Guk arras positibotzat hartzen dugu Aranaren asmo hura, asmoa bera. Alegia, Aranek predikatzen zuen independentzia ez da guk nahi duguna, artzain eta laborari gizartera itzuliaz egitekoa; formalki ere, independentziaren beste konzeptu bat darabilgu orain; baina Aranaren Ideia da gurea ere. Ideia berarekin eta Ideia beraren zerbitzuan kritikatzeko ditugu Aranaren ideiak.

Ikusi dugu, Sabinekin bere aurretik Truebak poetizaturiko euskal antzinate zoriontsu ta perfekto batetara itzuli nahi zuela, “maketoek” gauzak endreatu baino lehenagoko Arkadiara. Eta, horregatik, sozial arazoan oso pobre gelditu da. Guk badakigu iadanik historian itzulerarik ez dagoela iraganaldira (“joanak joan”). Gainera, ez dugu uste antzinatea hain zoriontsu ta perfekto zenik ere; eta, izan balitz ere, badakigu soluziorik ez dela hori gaur. Aranek bezalaxe, euskal nazioa birrindurik dagoela, ikusten dugu. Eta berregin beharra dagoela. Baina etorkizuna dago irabazi beharra, etorkinen integrazioz, etc.: hau da, gizarte berria eginaz, nazionalki nahiz sozialki.

Ikuspideekin independentziaren gure konzeptuak ere beste sentido bat hartzen du.

ABERRIAREN INDEPENDENTZIA

Aranaren helburua independentzia da, “la absoluta independencia de Bizkaya, contra toda política españolista”, berak esana.

El nacionalismo euskeriano aspira a la independencia absoluta que los diferentes estados de nuestra raza han gozado respecto a los extraños desde los tiempos que se ocultan en la noche de la protohistoria.

* * *

Los bizkainos no queremos otra cosa sino que la nación española retire de nuestro territorio su dominación, para que Bizkaya sea de los bizkainos y éstos la gobiernen libremente sin estar sometidos a más poder superior que el Señor de todo el universo.

* * *

¡Cuántos sabios han dicho que nuestra raza es la más antigua de Europa y aun del mundo en-

tero! ¡Cuántos han admirado esta preciosa reliquia de las edades primeras de la humanidad! ¡Pero ninguno se ha compadecido de su desgracia! Nadie ha reclamado para ella lo que en justicia se le debe: ¡la independencia!

Zergatik izan behar du independente Euskadik? Espainiarik ez delako (Ipar Euskadiz gutitan mintzo da; gehienetan Bizkaiaz dihardu soil): “Bizkaya no es de derecho española, como no sea por el actual derecho constitucional; si de hecho es provincia española, lo es a pesar suyo y contra su voluntad”.

Historiaz baliatuko da Sabin, ez beti oso zuzen, Euskadi Espainiarik ez dela erakusteko. Harek historiazale gisa egindako lanak xede hori du (beraz, ez da historia inbestigatzen ari, politika bat predikatzen baino).

Arraza konzeptuaz baliatuko da, batez ere:

Etnográficamente hay diferencia sustancial entre ser *español* y ser *euskeriano*, porque la *raza euskeriana* es sustancialmente distinta de la *raza española...* y el concepto *étnico* no es jurídico, sino físico y natural, como relativo a la raza: de suerte que *etnográficamente* los euskerianos no pueden ser españoles aunque quieran, pues para ser españoles tendrían que dejar de ser euskerianos: por eso, al decir *pueblo español, nación española*, no podemos comprender dentro de esta dicción al *euskeriano*, a no ser por supina ignorancia de lo más conocido en etnología, porque *pueblo* y *nación* son vocablos que se refieren a la raza y no al *derecho*.

Sabin ez da historiaz eta arrazaz bakarrik baliatu euskaldunen propietasuna erakusteko, beregaintasunerako dretxo oinarritzeko. Hizkuntza, ohiturak, tradizioak, legeak, aintzakotzat hartu ditu. Herri nortasuna osatzen duen de-

na. "La Patria se mide por la raza, la historia, las leyes, las costumbres, el carácter y la lengua". Euskaldunak berezi dira guzietan. "Los bizkainos no somos españoles ni por la raza, ni por el idioma, ni por las leyes ni por la historia". Eta, beraz, "como España y Euskeria son dos naciones tan distintas y diferentes entre sí como Euskeria y Alemania y más distintas y diferentes que lo es Alemania de España, así sean también independientes entre sí en lo político". Herri bereziak, berezi ibil bitez. Edo ta: nazio bakoitzak bere Estatua.

Zertarako independente? *Labur-labur* esan daiteke: bere bizitza propioa egin dezan, bere izpirituaren arabera. Beraz, demokratiko izan dadin, katoliko zintzo, eta abar.

Bizkaya se reconstituirá libremente. Restablecerá en toda su integridad lo esencial de sus Leyes tradicionales llamadas *Fueros*. Restaurará los buenos usos y las buenas costumbres de nuestros mayores. Se constituirá si no exclusivamente, principalmente con familias de raza euskeriana. Señalará al euskera como lengua oficial.

Adierazita daukagu, erlijioaz, etc., Sabineek zer nahi zuen. Antolaketa sozialari dagokiola, hiritar guzien berdintasuna finkatzen da Euskadi beregain hortako oinarri sozialtzat:

Tampoco entendemos de familias ilustres, de aristocracias y de clases sociales, porque repugnan esencialmente al espíritu bizkaino, ante el cual no es hereditario el mérito, y es tan digno de respeto el hijo de un sencillo labriego como el descendiente del más ilustre barón.

Ez gara gehiago luzatuko Aranak burutan zuen independentziaz eta euskal Estatuaren antolaketa (konfederazio, erlijioarekiko politikaren menpetasun, etc.). Aranista

gogorrenek berek ere ahaztuxe dituzten ideiak dira gehienbat. Bestelako haizeak dabiltza gaur.

Zein da etsaia? Aipatu dugu bat: euskal oligarkia. Beste bat maketoak dira (“nuestros moros” eta “nuestro parásito nacional”). Baina okerrena Espainia da, beste guzien oinarria. Euskal Herria, Sabinen eritzian, bere buruaren jabe ta beregain zen oso-osorik; eta Espainiak okupatu zuen, menderatu zuen, eta desegin egin du:

Puesto el pueblo vasco al servicio de España y perdida su personalidad política, el poder político le privó de sus leyes y la irrupción española comenzó a minarle sus virtudes.

Harmaz eta indarrez menderatu du Espainiak Euskadi, lehen karlistadaren ondorenean. Orduan galdu zuen independentzia:

Nuestra Patria Bizkaya, de nación independiente que era, con poder y derecho propios, pasó a ser en esa fecha una provincia española, una parte de la nación más degradada y abyecta de Europa (“El 25 de octubre de 1839”, in Bizkaitarra, 1894-ko urriak 31).

1976-an desegipen hura gonfirmatzen eta finkatzen da:

La ley del 21 de julio del 76 es consecuencia natural de la del 25 de octubre del 39. España no aguardaba más que la oportunidad de hallarnos de nuevos debilitados por otra guerra para dar remate a la obra de sumisión y destrucción de nuestra Patria.

Baina Aranak interes handia ipintzen du, garbi uzten, Euskadiren etsaia ez dela Espainiako Gobernuren bat hala beste: espainol herria bera da etsaia. “Quien dictó la ley del 76 no fue Cánovas del Castillo. El no hizo más

que redactarla y proponérsela a las Cortes. Quien se la dictó a él fue... *el pueblo español*".

Hasi, 1839-an hasi dira eskalabro guziak. Orduan —edo ta, handik hara, behintzat— hasi zen indartzen euskal burgesia haundia, okupatzaileen anparoan eta "make-toen inbasioari" atek irekiaz. Aranaren ustez 1839-an galdu zuen Euskadik beregaintasuna eta beste kalamitate guzi horren ondorio zuzenak dira. Beraz, esan daiteke, Sabinentzat independentziak esan nahi duela *Foruak* (berak ulertzen zituen bezala ulerturik). *Euzkeldun Batzokija*-ren Araudian laugarren artikulua honela zioen: "Restablecerá en toda su integridad lo esencial (!) de sus Leyes tradicionales llamadas *Fueros*"... Neoforalistak berriro sortu dira Euskal Herrian: ez dakit Aranaren ala karlismoaren ondotik.

Zer da independentzia? Foruak berak ez dira independentzia, Euskadi independentearen legeak baino. Independentzia Foruak baino gehiago da Arana baitan ere. Sei probintzien berbateragintza litzateke jomuga. Sabinekin: "El nacionalismo aspira, como a término o fin exterior y político, a la independencia del pueblo vasco, del cual dos antiguos estados obedecen al poder francés y los otros cuatro a la soberanía española". Baina orain ez zaigu axola, konzeptu horren edukina gehiago argitzea. Alderdi bat agertuko dut: isolazionismoa.

Aranak deliberatuki ukatzen zuen "separatismo" akusazioa ("ez gara separatista, ez gara eta espainolak"). Nolanahi den, isolazionista da:

Es evidente de toda evidencia que la salvación de la sociedad vasca, su regeneración actual y su esperanza en lo porvenir, se cifran en el aislamiento más absoluto, en la abstracción de todo elemento extraño, en la exclusión racional y práctica de todo cuanto no lleve impreso con caracteres fijos e indelebles el sello de su procedencia neta-

mente vasca, desechando inexorablemente todo lo exótico, todo lo inmoral, todo lo dañino.

* * *

La sociedad euskeriana se pierde en su roce con la española, y es preciso aislarla hoy en lo posible, para salvar a sus miembros; y para salvar a los venideros, aislarla mañana en absoluto por medio de la independencia política.

Politikan bezala, kulturaren, hizkuntzaren arloan, eta deanean, isolazionista agertuko da Sabin Arana. Isolazionismo hau ez da Aranarena bakarra. Orixerena eta, ezagunak dira. Baina pentsamentu aski diferenteko zenbaitek ere bide horixe proposatzen zuen, Euskal Herria inola salbatzeko. Barojak, adibidez.

Alegia, Euskal Herria salbatu nahi zutenek, ez zuten ikusten, orduko, beste biderik, euskal literaturak aski dokumentatu duenez. Sabineek Euskal Herria salbatu nahi zuen, guziaren gaineratik, eta estremuki isolazionista da. Ez zuen nahi euskaldun eta erdaldun arteko ezkontzarik ere (ik. *Libe*, Sabinen drama). Euskaldunen isolazioa finkatzeko legeak ematea bururatzen zuen.

Beraz, independentziak Aranarentzat garbitasuna esan nahi du (ez “arraza garbitasuna” bakarrik); mugapena, barkartadea, historia zaharrera itzulpena. Independentziak isolazioa adierazten du. Marfilezko gaztelua.

Cette théorie raciale —irakurtzen diogu Larronderi (bide nabar: ez da razial soila isolazionismo hau, nire ustez)— tendait à isoler les basques, à les forcer à vivre en cercle fermé, à les couper de tout contact avec l'étranger; c'était la première fois qu'une telle théorie voyait le jour au Pays basque; sa diffusion fut cependant facilitée par l'habile exploitation, de la part des na-

tionalistes, des haines et passions anti-espagnoles nées à l'occasion des guerres carlistes et depuis demeurées à l'état latent chez beaucoup de basques.

Aranaren isolazionismoa haren gorroto anti-espainolaz batera ikusi behar da (gerra karlistak, "inbasio maketoa", eta hortaz aipatu beharko litzatekeen beste guzia gogoan dela):

Los euskerianos nacionalistas aborrecen a España, porque ha pisoteado sus leyes patrias, profanado y demolido su templo y uncido a su Patria al yugo de la esclavitud más infame, y está corrompiéndole la sangre, que es la raza, y va a arrancarle la lengua, que es el euskera, y acabará por estrujarle el corazón del sentimiento nacional.

Baina isolazionismo hori analisi batzuen ondorio ere bada. Eta horrek komentario bat behar du.

* * *

Ez dago esan beharrik, zenbait funtsezko gauzatan gauden Aranarekin arras eta zeharo konforme gauza horietan eta haren segimenean goazen.

Baina gaurko abertzaletasuna ofensibara pasa da eta isolazionismoa —inposiblez beste— suizidio hutsa iruditzen zaigu. Guk nahi duguna integrazioa da: euskal gizarte hautsiaren, nazioaren, integrazioa, lehenbizi; eta euskal nazioaren integrazioa, gero, lurraren gaineko nazio guzien artean.

Beste analisi batez baliatzen gara, baliatu ere. Ez daukagu sinplista izaterik. Euskal Herriarena ez da, maltzurkeria beste arrazoi gabe otso gaiztoak bat-batean jan zuen, Txanogorritxoren historia.

Arana Goirik, dirudienez, Euskal Herria eta Espainia bi bloke egin eta beti berdin bezala hartzen zituen: hor

dago Espainia, hemen Euskadi, bata bestearen alboan, bakoitza bere buruaren jabe ta bakoitza bere baitan osatu. Aralar eta Aizkorri bezala: bi mendi, eginda, bukatuta, aldatzen ez direla. Ikuspide estatiko bat. Guretzat errealitate historikoak dira horiek, bilakatuz doaz eta aldatuz doaz, bai beren baitan eta bai beren arteko gorabeheretan, ez dira beti gauza bera. Ez dira “baden” eta beti halaxe dagoen zerbait.

Bere garaian, euskaldunak ederki antolatu ziren Koroe mendean (Nafarroa bortxaz konkistatua izan zen, hori bai; baina bere moldaketa apaindu behar izan zuen): Ahaide Nagusiak lehenengo, etxean burgesiak herstu harturik, Erregeren zerbitzari gisa aurrerabide aurkitu bait zuten, beren klasearen krisitik nolabait salbatzeko; burgesia bera gero, merkatari gisa bereberki; eta haiekin batera beste mila soldadu, izkribau, artisau, fraile ta beste ganadu. Klase nagusiak, baina herri gehiena ere, bapo aprobetxatu ziren Koroeak eskaintzen zizkien abagadune ta mugonez. Burdin oletara enkargu asko ailegatzen zen, Koroearen entrepresa ugarietarako; itsasturuek bazuten zeinek lan eman; hegoaldeko Euskal Herria “indianoz” bete zen; euskal historiako “pertsoneia ilustre” denak (Elkano, etc.) Koroearen zerbitzari leialak ziren (Lope Agirreko aparte) eta “espainolak” ziren. Orduan, “maketoak” eta euskaldunak elkarren eskuz-esku zebiltzan itsasoz nahiz lehorrez, maketoen etsaiak ziren euskaldunon etsaiak, eta euskaldunak oso gustora zebiltzan, dirudienez. Hori ere historia da.

Jakina, orduan “espainol” izatea beste gauza bat zen. Orduan, lehenengo, espainol izateak prestijio handia zuen mundan; bentjarik franko bazuen. Eta orduan, bigarrenik, espainol izateak ez zion euskaldun izateari uko egiten. Euskaldun haiek, oro har eta zenbait istilu gora behera, Erregeren zerbitzari leial bezain Foruen begirale ziren. Euskaldun sentitzen ziren eta Foruak —esaera zenez —beren larrua baino maiteago zituzten. Orduan ezi-

nik ez bait zegoen alde batetik Erregetiar absolutista, inperialista izatearen eta bestetik, Foruzale sutsu izatearen artean. Orduko “Espainia” (edo “Espainiak”) horrelakoxea zen (ziren).

Hori dena oso polita da, herrion (gaztelau, euskaldun, katalan, etc.) beregaintasuna alegia, Koroe baten barnean, baina ez du ezer aldatzen errealitatean: errealitate horren gainean burutuko bait da eboluzioa; beste “Espainia” bat bilakatu ala, Euskal Herria desegingo duena (Foruak, hizkuntza, eta abar). Hau da, burgesiak bere antz eta erara eratuko duen Espainia hortan, lehen karlistadak episodio guti-asko inportante bat besterik ez dirudi, eta bigarrenak apenas gehiago. Izan ere, bitarte hortan, Koroe batasunetik mota askotako loturak eta interes uztarriak sortu dira; euskaldunak ez datoz bat beren Foruen inguruan; euskal konzientzia ahula da edozein alderditan (karlisten alderdian bertan): eta Koroeak batzen zuen multzoak, klase arteko ekilibrioa edo sosegualdia, edo esan nahi den bezala, puskaturik, batasun forma berri bat bilatzeko eboluzioari ekiten dionean, burgesiak eraginda, euskal beregaintasunak porrot egingo du. “Espainia” batetatik beste batetara pasatzen gara. Ekonomia batetatik beste batetara.

Gertatu dena, hortakoz, ez da soil espainolen “gaiztakeria” bat, Kanpionek, Aranak, eta abar, askotan pentsarazten digutenez. Koroeak ezarritako aurretiazkoekin bidezko, eta prozesu historiko normal-normal baten emaitza izan da, Espainia berriak —burgesak— Euskal Herria zanpatzea. Espainiak, Rejimen Zaharretik gizarte berrira iragatekoan, klase eragilearen dinamika logiko ta bidezkoa desarroilatu zuen: hau da, burgesiaren zentralismo, uniformismo ta “igualitarismoa”. Euskal Herriak orain axola ez zaizkigun arrazoiengatik, ez zuen dinamika berdinek desarroilatu, bere nortasun nazionala gordeaz. Eta dinamika historikoak ito egin zuen.

Euskal Herrian, nortasun nazionala salbatu nahi zutenak (karlistak), Rejimen Zaharrari lotu zitzaizkion; gizar-

tea eraberritu nahi zutenak (liberalak), ez ziren Euskal Herriaren nortasun nazionalaz arduratu, beranduegi arte. Euskal Herriaren zorigaitza, Espainiak eta Euskal Herriak elkarrekin eta bien artean egin dute.

Espainia modernoa burgesiak eratu edo erdi-eratu du; burgesiak desegin du, behintzat, Koroearen Espainia zaharra. Koroearen barnean, bere autonomia kentzen ez zion batasun batetan zegoen Euskal Herria integraturik. Bada-kigu burgesiak, antolatzen ari den batasun forma berrian, ez duela onartzen tolerantziarik "autonomia partikularren-tzat". Burgesiak merkatu bat eta bakarra bihurtzen du gi-zartea bere mendean; batasun ekonomiko bat "nazioa". Burgesiaren erreinuak bat bakarra behar du, herri ta na-zio diferenterik ba al dagoen erreparatu gabe: denak ber-dinkatzen ditu. *Manifestu Komunistan* daukagunez: "Bur-gesia, produkziobideen, jabetzaren eta populuaren desber-dintasunak berdinagotzen ari da. Populua pilatu egin du, produkzio-bideak bateratu eta jende gutiren eskutan bildu jabetza. Horrek politikazko batasuna ekarri du. Beregain zeuden probintziak, edo batasunean sartu gabekoak, eta interes desberdinik, lege, gobernu eta erreteria berezirik zutenak, nazio *bat*, gobernu *bat*, legeria *bat*, nazio-interes *bat*, erreteria *bat* hartzera bortxatuak izan dira". Izan ere: "Burgesia, *estatu* edo kastarik ez (Stand), baino *klase* de-larik, bere baitan organizatzera behartuta dago, ez baila-rra ta hauzoka, nazioka baizik, eta bere elkar arteko inte-resei tankera jeneral bat ematera behartuta" (*Ideologia Alemana*). Eta Frantziatz diharduela, oraindik, Marxek: "Iraultza Frantzes, nazio batasuna sortzeko (nazioa egite-ko) asmoa betetzekotan, lehenbizi ezereztu beharrean aur-kitu zen beregaintasun oro, hau da, tokian tokiko nahiz hiri bakoitzeko nahiz probintzian probintziko beregainta-sun oro. Monarkia absolutistak hasitako Estatu-agintearen baterapena eta antolaketa aurrera eraman beharrean gerta-tu zen".

Hariak absolutismotik burgesiara garamazki. Kanpio-nek ongi aipatzen zuen bion arteko segimena:

El miserable absolutismo real, enseñoreado de España como los gusanos de los cadáveres, se había decidido a concluir con las libertades vasconavarra... Los absolutistas monárquicos tuvieron dignos continuadores de sus empresas antifueristas en los liberales... El Señor Cánovas del Castillo... lo ha dicho... El partido liberal español recogió, como en todo, en la cuestión vascongada, las tradiciones de Godoy, de Llorente, de González Arnao... El absolutismo antifuerista era taimado, hipócrita, cobarde... El liberalismo antifuerista fue franco, brutal, audaz...

Espainol burgesiak absolutismo "ilustratuaren" obra jarraitu zuen. Guzi hortan ez dugu espansionismo ta xobinismo gaztelauaren inportantzia gutiesten. Baina, funtsean, burgesiak bere barneko dinamikari obeditzen ziola, uste dugu. Burgesia ere espansionista da, gaztelau izan ala euskaldun izan. Burgesia espainolak egitea tokatzen zitzaiona egin zuen. Tokatzen zitzaionik egin ez zuena Euskal Herria izan zen: Euskal Herriko klase guziak, eta burgesia guzien buruan.

Prozesu honen emaitza, Euskal Herriari dagokiola, Aranak deskribatzen zuena da guti gorabehera: industria hazkartu da, etc., alde batetik; bestetik, euskal nazioa triskaturik dago.

Gauzak honela ikusita, bidegabe dirudi Aranaren gorrotoak "inbasio maketoari". Industriarik sortu den toki guzietan suertatu dira holako inbasioak. Guretzat itogarri gertatu bada, okerra ez dago "inbasioan", ailegatzen zirenak integratu ezinean baino. Alde hortatik ere —politikak etorkizunari begiratu behar diola aparte— isolazionismoak ez dirudi inolako soluziorik.

Dena den, dagoena hor dago: euskal nazio birrindua. Errealitateon aurrean postura ezberdinak dauzkagu:

- *eskuin espainolarena* ez dugu aipatuko: gehien-gehienbat zentralista itsua da oraingo eskuin espainola, tradizio monarkiko zaharrari baino zordunago bait zaio, iadanik, faxismoari. Tradizionalistaok tradizio zaharrari baino atxekia-go daude atzo goizeko basa-ideologia baztart bati.
- *eskuin euskaldunak* biktima bezala ikusten du Euskal Herria eta gaiztagin makur bezala Espainia, beste gabe: agian arrazoirik ez zaio falta, baina historiaren gainean judizio moralak sentenziatzea, zail ezezik, ez zaigu aski iruditzen: ezer guti laguntzen digu zein den Kain eta zein den Abel jakiteak, guk ez bait dugu Abel izan nahi.
- *Ezker eta erdi-ezker espainol* askok, eskuin espainolaren oso antzera, problemarik ikusi ere ez duela egiten, ematen du. Historiografia espainolarentzat, jeneralean, Foruak pribilegioak ziren eta hemen ez zen ezer gertatu, pribilegioak deuseztatzea baino. Euskararen problema eta horiek, aldiz, “tolerantzia indiferente” soberanoz likidatzen dituzte: lastima da, bai, hizkuntza beneragarri hori hain gaiso ibiltzea...; “hablen el vasco, si es que pueden, porque la mayoría no lo saben, pero a pagar impuestos como todos los españoles”, eta kito.
- *Euskal Herriko ezkerrean* dauzkagu buruhauste gaitzenak, orain interesatzen zaigunerako.

Ohitura denez, Euskadiko ezkerria bi sailetan sailkatu ohi dugu: ezker abertzalea eta ezker espainolista (sukursalista).

Ezker espainolista hori bera, bi taldetan banatzen da: berriak (ORT, MCE, etc.) eta klasikoak (PC de E eta

PSOE). Nazio arazoari buruzko diferentziarik haundiena beren artean haxe dateke (eta ez da haundia): klasikoak beren tradizio "Viva España"-n eta beren tesi klasikoetan tinkaturik agiri direla, mogikaitz eta ia arduratu ere gabe: aspaldi hartu zuten posturan jarraitzen dute, inolako berplanteorik gabe; berriek mogikorrago eta interesatuago dirudite, saiatzen dira nolabait nazio arazoa planteatzen, baina funtsean klasikoen antzera erabakitzen dute, antza. Gehienetan, Euskadiko ezkerak deritzaten arren, ezker espainolarena egiten digute: aisa nazio arazoa ignoratu; edo ta, hartaz postura arras negatiboak hartu (erromantizismo hutsa dela hori, partikularismo herstu, eta abar); edo ta, liberalen ageri ohi direnek, indiferentzia tolerante kasi salomoniko batez erabakitzen dizute: nazio arazoa konpontzea burgesiari dagokiola eta, berek ez dutela hortan saiatu nahi; baina "autodeterminazio eskubidea" proklamatzeko dutela (dibordiatzeko eskubidea proklamatzeko duten bezala; eta, espero dudanez, eskubide bezala, suizidatzeko ta homoseksual izateko ta hilargiari zaunka aritzeko eskubideak ere aitortuko dituzte, eta beste "eskubide" asko); arazo konkretuetan, euskararenean adibidez, apur bat positiboago joka lezakete inoiz, baina ez dira dinamika bizirik desarroilatzen dutenak hortan ere... Hauentzat Aberriaren independentziaz hitz egiteak ez du zentzurik Euskadiri buruz. Horietako batzuek bai, Aberriaren independentziaz gogotik mintzatu ohi dira, baina Espainiaren independentzia adierazi nahi dutela: "libertad para Euskadi en una España independiente" (MCE). Ezker espainolista hori ezker espainola bezalaxe konportatzen da. Ez du erakusten Euskal Herrian, Segovian erakuts ez lezakeen plegurik.

Horiek insistatu ohi dutenez, politikak errealitatean oin hartu behar du. Eta oinarrizko errealitateok aipatu ohi dizkigute (hiru puntu aski ezagun eta aipatutara mugatzen natzaizu):

— *Ipar Euskadi eta Hego Euskadi* mendez-mende aparte desarroilatu dira eta ez dago biok bat bezala kon-

sideratzerik eta planteapen batetan sartzerik, ez berehalako eta ez luzarorako jomugen heinean. Hau da: edo ta ez dauzkate biok nazio bat eta bakartzat, edo ta ez daukate problemaren nazio planteapenik, Estatu espainoleko eta Estatu frantzeseko nazio zatien planteamoldea baizik (hots, minori planteamoldea). Hizkuntza batasunari eta, ez diote inportantzia haundirik ematen: lehenengo, hizkuntzari "pisu gehiegi" ematearen kontrario direlako (arrazismo aranistaren kamuflaje bat dela, esango dute) eta, gero, hizkuntzak ez omen duelako ematen, pretenitzen den batasun nazional hori:

En cuanto a la lengua, la identidad sólo se refiere a una parte de la población, tanto del norte como del sur del Bidasoa. El euskera es uno de los elementos de la cultura vasca, y un rasgo distintivo de nuestra nacionalidad, esto es verdad, pero no lo es, que el euskera sea la lengua de todo el pueblo de Euskadi. No es honesto ocultar que tal vez tres cuartos de la población de Euskadi no saben hablar euskera. En el País Vasco Continental el porcentaje es diferente, pero el fenómeno bastante similar. Por lo que hace a la identidad de costumbres y tradiciones, nos encontramos ante una falsificación mucho más grande. Tal identidad, relativa a algunos aspectos del folklore, de la vida familiar y de la religión, es real en algunas zonas campesinas en las que lógicamente el contacto con la vida moderna ha sido altamente limitado (*Komunistak*, 1969, junio).

Beraz ondokoan Estatu espainoleko Euskal Herriaz bakarrik arituko gara, ezkertiar horiek egiten dutenari jarraiki.

— *Asimilazio espainola* errealitate bat da eta *progresista da*. Asko markatzen eta azpimarkatzen duten puntua

dugu hau. Izan ere, abertzaleek Euskal Herri "ideal" ez egiazko batez operatzen dutela, esango da.

Las naciones, como todo en este mundo, no son algo estático e inmutable. Nacen y se desarrollan. Y con el tiempo, en una etapa avanzada de la sociedad comunista, se puede prever que llegarán a desaparecer. En mi opinión, Euzkadi llegó a completar su formación nacional, su unidad económica, tarde, y su desarrollo económico, industrial, fue tan impetuoso que algunos de los rasgos originales característicos de su personalidad nacional han quedado desdibujados, borrosos, imprecisos: tal sucede con el euzkera, que se nos ha quedado chiquito, raquítrico como idioma común a la nación (...), y en otro orden nos ocurre algo semejante con las modificaciones profundas sufridas por nuestra psicología nacional.

Ezker espainolistek asko insistitzen dute hortan: euskal nazioaren hondamendia errealitate kunplitua dela. Antzinako Euskal Herriak bai, ezaugarri ta berezitasun nabarmenak zituen. Baina aspaldi hasi zen berezitasunok galtzen eta inguruko herrieekin urtzen eta berdintzen: "este proceso de fusión data cuando menos de la romanización", eta "hace más de un milenio, en una vasta porción del territorio vasco, la primitiva etnia euskara se había modificado ya notablemente". Prozesu hori hainbat indartzenago da XIX-gn mende azkenetan eta gure mendeen.

Hori dena inork ez luke ukatuko eta, nik uste, inork ez du ahazten. Ahazten ez delakoxe dago abertzaletasunik. Hori dena, ordea, eta horren berdintsu, nazio ttipi edo zapaldu gehienetan ohartzen dugu: Irlandan, Txekoslovakian, Albanian, eta abar, eta Vietnamen. Risorgimento tankerako abertzaletasun guzietan, hain zuzen. Guziek hasi behar izan bait dute "nazioa berreginez". Baina ezker

espainolistek prozesu hori fakto kontsumatutzat ematen digute, erremediorik gabe:

Los cambios así operados en la composición de la población establecida en tierra vasca han sido de tal envergadura que DEBEN CONSIDERARSE COMO IRREVERSIBLES (*Arragoa* 2, 1965; 31; nire azpim.).

Beraz, hor dago gakoa: “deben considerarse como irreversibles”. Beren garaian horixe bera esaten zuten Marxek eta Engelsek txekiar, kroata, rumano eta beste zenbaitengatik. Eta hor daude gaur, bixi-bixi ta independente.

Bestalde, nazio arazoaren soluzio eredu gisa Sobiet Batasuna aipatu ohi digu jende horrexek berak: eta mirariak egin direla, aseguratzen digute, nazionalitate ta kultura erkinak, zeharo atzeratuak, hizkuntza ia galduak, eta abar, berbizteko ta indartzeko; Euskadin egin beharko litzatekeenik baino askoz mirari zailago ta haundiagoak. “Fueron abiertos los caminos al libre desarrollo a las minorías nacionales, incluso a pueblos que se hallaban en vías de desaparición por la miseria y el atraso en que el zarismo les obligaba a vivir y que hoy forman parte de la gran familia soviética como pueblos de elevada cultura y prosperidad económica” (D. Ibárruri). Zertan gara, orduan?

Ezkertiarrok, ordea, asimilazioari nahitaezko bide ta progreso haundi derizkion filosofia bat profesatzen dute Espainian. Hori da kontua. Alegia, egiten duten azterketa (guk ere oso-osorik berdin egiten duguna) eta aurkitzen dituzten datuoi ematen dien balorazioa, juzkua.

...Se registra una angustia ante el proceso de asimilación de los rasgos nacionales de Euzkadi [ETA-ren kritika eginez ari zaigu Autorea]. A este respecto, hemos de decir que los comunistas no partimos de una concepción nacionalista del mundo y que entendemos que la asimilación de las

nacionalidades y la disolución de las peculiaridades nacionales son fenómenos que forman parte de un amplio proceso de unificación económica, política y cultural de la humanidad, de signo claramente progresista en tanto que ha de significar numerosas ventajas para toda la población del mundo. No dudamos que este proceso culminará en una integración mundial completa, que en el plano lingüístico sólo se realizará avanzada ya la fase comunista de la historia humana (*Komunistak* 2, 1969, 11).

Abertzaleok maiz salatu izan dugunez, “mundu guziko proletarioak, ELKAR gaitezen!” hura, ezkertiar horiek zera bihurtzen digute: “mundu guziko proletarioak, BERDIN gaitezen!”. Orduan, independentzia ezin izan liteke, axola diona. Persegitzen den ideala, mundu berdindu ta uniformatu harrigarri bat da, utopia erlijiosoetan kausi daitekeen bezalakoxea. MCE-ko Autoreak bezalaxe agertzen digu ideal hori PCE-ko beste batek, are radikalkiago:

Y no es que nos empavorezca la sugestiva perspectiva natural y lógica (!) de la evolución (?) de las lenguas, que implica la disolución paulatina de unos idiomas en otros más poderosos y, en definitiva, una síntesis monolingüística universal en un futuro muy lejano (en fases muy avanzadas del comunismo).

Ikuspide horiekin zein dinamika desarroila daitekeen, berez ageri da. Apenas enpeina liteke eta sakrifika liteke, galdu beharra duten eta hoberena galtzea duten “berezi-tasunen alde”. Euskararen alde, adibidez. Euskal independentziaren alde halaber. Kondenatuko dena, gehienez, zapalkuntza metodoak izango dira. Euskararen persegizio faxista, esate baterako (dudarik gabe, “humanismo” hondar bat gelditzen delako oraindik). MCE-ko José Uribek (*Komunistak*) adierazten diguna:

Hemos dicho que no estamos, en principio, en contra de la asimilación de los rasgos de una nacionalidad por otra. A ello hay que añadir: *siempre que esta asimilación no resulte de una opresión o privilegio nacionales*. Así pues, estamos en contra de la opresión, pero no de la asimilación, cuando se realiza sin opresión...

SAIOAK taldea izan da, halare, klasiko bihurtu diguna, asimilazioa guziz progresista dela. Talde honek ere, PCE-ko beren Maisuak legez, “un proceso *irreversible* de integración de nuestro desarrollo histórico peninsular” derizkio asimilazioari. Erremedia ezinezkoz beste, txit gertaera progresista da asimilazioa, gainera. Progresista, izan ere, produzio indarren desarrolloari eragiten diona omen da; eta, Autore-kolektibo honen ustez, asimilazioak desarrollo hura bizkortu du nonbait. Beraz: “La asimilación vasca en el Estado español, que es una *asimilación vasca por el capitalismo* (Autoreen azpim.), constituye sin duda UN PROGRESO HISTORICO” (gure azpim.)...

Ezin has gindezke orain progreso konzeptu horren gainean zehazketak egiten, barnean dagoen ekonomizismo arloste guzia eztabaidatzera sartu beharko genuke eta.

— *Nazio konzepturik* ez dutela ezker horiek, esan ohi dugu. Ikus dezagun hirugarren puntu hau.

Alegia, nazioetaz mintzo ohi bagara, historian gizarte multzo berezi batzuek karakteristika berezi batzuk erakutsi ohi dituztelako da: hizkuntza berezi bat, ohitura berezi batzuk, etab. (beste multzo batzuek, edo multzo beroriek beste erreferentzia sistema batzuetan —klaseek, esate baterako— beste karakteristika modu batzuk ageri ohi dituzten bezala). Karakteristikaok ez dira beti berdin nabarmentze eta destakutzen. Gizarte multzo —herri— berezi batetan hizkuntza berezitasuna destakutzen da; beste batetan nabarmenagoa da apika bere erlijio berezitasuna. Segun kasu bakoitzean zeri erreferitzen zaion, esate batera-

ko. Irlandaren berezgarri nabarmenena, Ingalaterrari buruz, eta Ingalaterrarekin borrokan zebilenean, erlijioa zen dudarik gabe. Eta irlandarrak berak irlandar sentiarazten zituena, eta sentimendu horren inguruan biltzen zituena, momentu historiko hartan, zirkunstantzia haietan, gehiago zen erlijioa, hizkuntza edo baino. Herri baten dinamikan da, non destakatzen diren eta ezagun ditzakegun karakteristikaok ez errealitate estatikoan, "esentziaren" bat edo bezala); eta, alderantziz, karakteristikaok berok beren dinamika desberdina desarroilatzen dute historian herriaren gain, aldian aldiko zirkunstantzien arabera. Hizkuntza berezitasunak momentu batetan dinamiza lezake herri bat (alegia, momentu jakin batetan, etsai jakin bati buruz), eta beste batetan beharbada ez (beste une historiko batetar., beste etsai bati buruz, etab.). Historiari bagagozkio, ikusten dugu, herria dinamizatzen duen karakteristika berezia, momentu historiko batetan, Foruak ere izan litezkeela: eta nazio bat nazio foral eta foruzale bezala ager daiteke momentu honetan, hortan asumitzen direlako beste berezitasunak. Izan ere, nazioetaz hitzegitea bereztea da, kontrastatzea (eta agerrienik borroka erakusten du kontrastapena, borroka nazionalak gure kasuan): erreferentzia sistema batetan, koordenada batzuetan, bereztea eta definitzea.

Nazio konzeptu sujetiboa eta objetiboa berezi ohi dira. Eta, bistan dago, konzeptu sujetiboak azkenean ez dakiela nazioa eta Estatuta berezten; are, azken finean sujetibismo hutsean amiltzen dela nazioa "le plébiscite de tous les jours" dela, Renanek formulatu zuenez). Horregatik, marxista klasikoen nazio konzeptua beste hildotik, objetibotik, dihoa: ezaugarri objetibo batzuek zertzen dute nazioa. Baina, nolatan hartu ezaugarri objetibo horiek? Arriskutsua izanen da historiaren sujetibismoa; baina historiaren objetibismoa salbatzearren, sujetua zabartzea, ez dago historiari dinamismo dena ukatzeko arrisku gabe. Nazioaren konzeptu objetiboa ohi deritzanaren flakia flakoena ez da, objetibotasun oso zirriborrotsua duela, ezpada azkenean estatiko hutsa dela, eman zaion aplikazioan behintzat. Hau

da, nazioa lehen-lehenik bere egonean kontsideratzen duela, ez bere ihardunean eta bilakabidean, bere dinamikan. Eskola honen arabera, nazioaren osagarriak, hizkuntza, lurralde, bizitza ekonomiko, kultura, etab. bereziak omen dira. Hori hola da nazioaren konzeptu marxista klasikoan (stalinista eta leninista, alegia), baina baita arantzen ere, eta gurean ere bai. Horiek nola kontsideratzen diren, dator komeria. “Azpimarkatu beharra dago —sentenziatu zuen Stalinek— aipatutako ezaugarrietatik, ezein ere ez dela aski, bera bakarrik, nazio konzeptua erabakitzeko. Are gehiago: ezaugarri horietakoren bat falta bada, bat bakarra, nazioak utzi egiten du nazio izatea”... Gure ustez, ordea, nazio ezaugarrien presentziak eta ausentziak, gorak eta beherak, aldakorak dira historian, mila zirkunstantziaren arabera; ikuspide objetiborik baino gehiago, estatikoa da, ezaugarri nazionalen momentuoroko presentzia oso eta beti berdina esijitzea. Bide horretatik, oso nazio gutirekin aurkituko gara munduan (Hegoamerika guzira nazio espainol edo portugesez, USA eta Australia ingeles —eta Irlanda orobat—, bihurtu beharko bait ditugu; eta, alderantziz, suitzoak, judeguak, ijitoak, edo alemanak, katalanak, kurdoak, etc., denak nazioen artean borrotatu egin beharko ditugu). Gure ustez, bada, nazio ezaugarri objektiboak (naziorik egoteko aurretiazko bat) ez dago bere hortan, estatiko, isolaturik, kontsideratzerik, dauden artean oso-osorik eta beti identiko daudenak eta noizpait ezaugarri bat bakarra suntsitzen bada nazioa ere suntsiarazten dutela; baizik eta erreferentzia sistema dinamiko, aldakor batetan ikusi behar dira, zirkunstantzia historikoei erreferentziaz, komunitate nazionalaren une historiko bakoitzeko konzientziari erreferentziaz batez ere, konzientzia historikoari berari erreferentziaz ez azkenik. Komunitate batek dauzkan naziotasun ezaugarri objektiboak eta haren konzientzia nazional historikoa (nazioa biok osatzen bait dute), elkarrekiko dialektika etengabea ari dira historian.

Txekoslovakia, Marxen egunetan, nazio desegindu bat zen. Marxek esango zukeenez, “ez zuen historia propio-

rik”; ez zuen hizkuntza berezirik, alemana bait zen nagusi, denek zekitena eta erabili ere gehienbat zerabiltena, nahiz eta “jenderen batzuek... alemanera ez den hizkuntza bat mintzatzen jarraitu oraindik” (txekera), etab. Marxentzat Txekoslovakia ez zen nazio bat eta ridikuloa zen nazio independentziarik nahi izatea. Baina txekiarrak, beren nazio deseginduan, iraganari erreferitzen zitzaizkion, biziki eta gogor: beren historia propioa eta beren hizkuntza izan zituzten garaiari; eta etorkizunari erreferitzen zitzaizkion: txekiar nazioak berriro bere historia propioa eta bere hizkuntza izango zituen etorkizunari. Eta erreferentzia modu horiekin ulertzen zizuten beren orainaldia. Erreferentzia sistema horretan sentitzen ziren, izan ere baziren, nazio, nahiz nazio deseginduan egon momentu hartan (nazio ezaugarri batzuk ilun zeudela, edo falta zirela, beraz). Historiak berak erakutsi du, Marxek oker ikusi zuen txekiar nazioaren arazoa. Kontuan hartu beharra bait dago, ez bakarrik ezaugarri nazionalak osorik eta garbi al dauden, baina komunitate nazional batek, historiarekiko eta etorkizunarekiko erreferentzietan, bere burua nola ikusten duen. Situatzen duen. Komunitate nazional hori, nahiz orain deseginda egon, bere historia propiorik eta bere hizkuntzarik bazuen garaiarekin identifikatuz jarraitzen bada, eta berriro hartaratzeko borrokan saiatzen bada, nazio bat da, iraganaldiari eta geroari egiten dizkien erreferentzien arabera; berregin beharrezko nazio bat, noski. Nazio bat, nazio nahia ERE bai bait da. Bere iraganaldi nazionala gogoratu, ikusi nola banatuz eta birrinduz doan, eta lasai-lasai geratzen bada, iraganaldi harekin dinamikoki identifikatzen ez bada (edo, are, hondamendi hori progreso kontsideratzen bada), orduan daude arrazoiak, naziorik jadanik ez dagoela esateko. Hemengo PC-en eta PS-en praktsia da, izatekotan, euskal naziorik ez dagoela, esatea, legitima lezakeena. Eta ez al dute horiek beti esaten, praktsiak determinatzen duela teoria? Horien praktsian ez dago naziorik. Ez dauka naziorik horiek desarroilatzen duten dinamikak. Beren perspektiban eta erreferentzia sisteman, historian situatzeko mo-

duan, egia da: egon zen, baina gaur ez dago euskal naziorik.

Zer da, beraz, Euskadi? Nazio bat, *región* bat? Euskadi al dira Nafarroa, Errioxa, etorri diren langile erdaldunak? Ia itotzeraino behin eta berriro eta beti eztabaidan dauzkagun arazoak. Izan ere, problemak asko dira, berez, eta guk, planteatzeko gure moduekin, gehiago sortzen ditugu. Nazio definizio estatiko batzuetatik abiatzen gara, gero harekin errealitate historiko desberdinei eta aldakorrei esplikazio bat ematen alfer-alferrik saiatzeko. Txapela badaukagu eta buruak derrigor haren neurrira jarri nahi ditugu orain. Horrela, lehen problema zailak baziren, guk inposibleak bihurtzen ditugu...

Zehaztasunak orain alde bat utziz, konplikazio gehiegitan ez bait daukagu sartzerik (eztabaida historiko luzeetan, batez ere), ohartxo pare batekin aski izango dugu, orientazio gisa. Galdera horiei erantzunik eman nahi badiegu, bi koordenadatan, bi erreferentzia sisteman, planteatu beharko ditugu galderak: nazioaren ezaugarri objektiboen sisteman (aldakorra, halare) eta erreferentzia historikoen sisteman. Errioxa, noizpait Euskadi izan zen —euskal nazio—, baina euskara, etab. galdu ezezik (karakteristika nazional objektiboak), harek aspaldi utzi zuen, dirudenez, bere burua euskal nazioaren erreferentzia sisteman situatzea, beste batetan kokatzeko eta aritzeko. Nafarroak, oraino karakteristika nazional euskaldun asko duela aparte, bere konzientziari eta dinamikari begiratzen badiogu, agian partikularismo eta goitibeheia nahasi askoz, baina funtsean arestiko txekiarrak bezala situatzen dela, ematen du: bere iraganaldi nazionalarekiko erreferentziaz, eta positiboki, aktiboki. Nafarroaren iraganaldi nazionala, ordea, ez da batere espainola. Euskaldunago da. Erreferentzia sistema hortan osotoro sartzen den, konsekuentzia guztiekin, ala ez, borrokan nagusitzen denak esango du. Beraz, praktiak egingo du Nafarroa bat ala beste: euskal nazio ala *región* espainol. Baina hori, beste euskal probintzia guzietan berdindin gertatzen zaie.

Eta zer esan etorkinez? Esanak esan Aranak, gureztat ebidentzia bat da, ez dakit nondik etorri zen Fernández bat, euskara ikasi, etab., egin dituen, euskaldun jatorragoa dela, zortzi euskal deitura garbi-garbiko asko baino. Nondik dator ebidentzia hori? Euskara jakitetik bakarrik ez. Linguista asko dago munduan, euskaraz badakiena, baina ez dauzkagu euskalduntzat, euskal naziokotzat. Beraz: beste erreferentzia sistema nazional eta historiko batzue-tatik etorririk, hemen bestelako sistemak dauzkagula, eza-gutu, bereganatu, eta bertan positiboki situatzen denak, Euskadi egiten du. Etorri, nora etorri den batere axolatu gabe lehengo sistemetan tinko jarraitzen duena, ordea, sentitzen dut esan beharra, baina lehen eta beti bezain espai-nola da, bere lan indarra Euskadin eta “euskal” burgesiari saltzen badio ere.

Pentsabide esentzialista, estatikoetara gaude ohiturik, eta batzuei bitxia irudituko zaie hau dena beharbada. Ez dago zergatik. Objektiboak bai, baina errealitate historikoak dira nazioak (historikoak omen direlako hori maiz-sarri adiera txaarrean erabili izan bada ere gure artean). Klaseak ere halaxe dira. Proletalgoa historikoki egoteko ez da aski, objetiboki produkziobideen jabetza gabeko jendea egotea, gainbalioa egotea, etab. Karakteristika objetibo horiek, langilearen aldetik, historian modu jakin batetan situatzeare-kin, posizio batekin, praksi batekin, erlazioan sartzen di-renean, esan daiteke, klase proletariorik historikoki bada-goela. Berdin samar da nazioarekin. Ez klaserik dagoela eta ez naziorik dagoela, esan daiteke, sujetua zer ari den, be-giratu gabe.

Abertzaleok, ezker abertzaleok ere, euskal *nazioaz* min-tzatu ohi gara, eta erreferentzia hirukoitz baten sentidoan egiten dugu hori: historiari erreferentziaz, etorkizunari erreferentziaz (nazioa berregin eta osa dadinean) eta orai-nari erreferentziaz (eta badakigu orain euskal nazioa itxu-ragabeturik dagoela). Euskara nola dagoen egon, esate ba-terako, badakigu ezker espainolistek bezain ondo.

Espainolistek beste era batetan egiten dituzte erreferentzia horiek. Eta, berriz ere, esaten dena baino gehiago, esaten denari ematen zaion inportantzia, da kontua.

1. Euzkadi es el pasado, ciertamente: su secular historia, su idioma vernáculo y sus costumbres, su ancestral cultura... Euzkadi son sus caseríos, sus baserritarras y arrantzales... Pero a la vez, Euzkadi es la moderna industria, sus fábricas, los trabajadores que las construyeron y los que trabajan en ellas; sus minas y los trabajadores que vinieron de Castilla a últimos del pasado siglo a arrancar el mineral de sus entrañas...; Euzkadi son los hijos de aquellos mineros; lo son también los campesinos andaluces, castellanos y gallegos, que han venido en estos 25 años huyendo del hambre a trabajar en las fábricas y en la construcción, y que la mayoría de ellos han formado sus hogares en Euzkadi y van a quedarse a vivir aquí, en su suelo, para siempre, como nos hemos quedado los hijos de los que vinieron hace 60 y más años (*Arragoa* 2, 1965, 97).

Noski! Problema guzia da bi mutur horien artean soluziorik bilatzea, ez etorkinon dretxoak eta ez “su secular historia, su idioma vernáculo” ta guzi horiek dituen Euzkadi “romantiko” horren dretxoak kiskali gabe...

2. Etorkizunari erreferentziaz, ikusi dugu ezker-tiar espainolista horiek apenas egin dezaketela erreferentzia baliagarririk, luzarora nazio berezitasun guziok suntsitu egin behar dutela eta suntsitu egingo direla, uste dute eta.
3. Orainari erreferentziaz —eta ezker espainolista horiek hortan jartzen dute beren enpeinu guzia— ez dago dudarik ateka gaiztoan bizi

dela euskal nazioa. Ezker espainolistek hortik ateratzen dituzte beren arrazoi bortitzenak. Adibidez, nazio dela esaten da, komunitate bat hizkuntza, ohitura, psikologia etc. berdinekin. Ikus PCE-ko Leoncio Peñaren arrazoipidea:

En mi opinión, la nación no es sólo una porción de territorio —que por lo que a Euzkadi respecta, y hasta tanto no se pronuncien favorablemente los habitantes de Navarra, habremos de limitar a Vizcaya, Guipúzcoa y Alava, si no queremos que se nos pueda tachar de abrigar ambiciones anexionistas o imperia listas—, sino que, además, la nación es una comunidad estable de seres humanos que habitan ese territorio, y poseen un idioma común y una cultura comunes, es decir, una común psicología, *eta abar*.

Zer dakusgu Euskadin, nazioaren ezaugarri horiei dagokiola?

En Euzkadi se hablan dos idiomas: el castellano y el euzkera. ¿Cuál de ellos es el idioma común a todos los vascos? El idioma común al pueblo vasco en su conjunto [Espainiako Estaduan, esan nahiko du], el que utilizamos en nuestras relaciones casi todos los habitantes de Euzkadi —en mi concepción territorial de Euzkadi— es el español o castellano, que, además, desde hace siglos ha sido el idioma escrito de los vascos. Por razones que no es el momento analizar, el euzkera lo conocen y hablan sólo una parte de los habitantes, y no la mayoría, y no podemos decir que el euzkera es hoy el idioma común del pueblo vasco. Junto al castellano el euzkera es utilizado como medio de expresión y relaciones mutuas por una parte del pueblo que, a su vez, en su gran

mayoría conoce y se sirve del castellano en sus relaciones con la otra parte de la población que habita el suelo vasco, así como en sus relaciones con otros pueblos. Por consiguiente tenemos en Euzkadi dos idiomas: uno, el castellano, común al conjunto de los habitantes del país; otro, el euzkera, del que se sirve una minoría de sus habitantes (*Arragoa* 2, 1965, 96).

PCE-ko komunistak euskal “nazioaz” mintzatu ohi dira. Euzkadiko “nazio arazoaz”, eta abar. Zein sentidotan egiten dute? Nik ez bait dut ikusten biderik, arrazoipideotatik euskal *nazioaz* hitz egitera ailegatzeko; eta ez arrazoirik, “nazio arazorik” Euskadin aipatzeko, komenentzia oso bestelakoren batzuegatik ezpada... Oportunismo akuzazioak ez dirudi arras itxura gabekoa.

Beraz, Euskadi ez da hiru Provincias Vascongadas horiek baizik; horietan, aldiz, asimilazio espainola errealitate kunplutua da, eta gertaera txit positiboa ta progresista da eta bueltaezina gainera; herri mintzaira komuna gaztelania da eta euskaldunek ere badakite gaztelaniaz, eta abar: ez gaitu batere harritzen, bere lan indarra Euskadin kastatzen duen edozein, euskaldun dela, esaten bada, gaur goizean Beasainen trenetik jetxi bada ere, Ciudad Rodriegotik zetorrela...

Aparte ikusi beharko genuke, azterketa horiek (hots, datoen selekzio horiek, adibidez) eta erizkera horiek zein eta nolako printzipioetan orientatzen diren. Hau ez da hortarako lekua. Baina bai, lekua dugu, esateko, hori dena dagoela barnean, gero langile klasearen batasunaz, eta abar, ikusten dugun alderdikeriaz insistatzen bada “la clase obrera, que es igual en Cataluña que en Euzkadi, en Andalucía que en Castilla”, edo ta: “un nexo común fundamental existe entre todos los pueblos y regiones de España: la clase obrera. Ella es igual a sí misma en todas las regiones y nacionalidades”. (Zergatik “langile klasea”

aipatu, eta ez burgesia, “nexo común fundamental” horren sorrera berak eta ez bestek protagonizatu izanik?). Beste zerbaitetaz ari dela, beste komunista espainol batzuen kontra, Dolores Ibarrurik akusazio hau egin zuen noizpait: “Lo que hay en el fondo de tal afirmación es la negación de la existencia del problema nacional y de la necesidad de resolver éste”. Hitz garbiak dira. Aplikazio asko dutela, iruditzen zaigu.

Ezker estatalista horientzat ez du sentidorik euskal independentzia eskatzeak. Euskal ezkerak —heine handi batetan marxista izanik, batez ere— bere posizioak horietatik bereziaz hasi beharra dauka (1). Guretzat Euskadi nazio bat da Aturitik Ebroraino eta Nafarroa barne; asimilazio espainola eta frantzesaren errealitateak dira, ez derigor positiboak soil, baina ezta negatiboak ere soil, Arararentzat zen bezala. Funtsean bai positibismo ta bai negatibismo horiek moralistak iruditzen zaizkigu. Guretzat ere langile guztiak berdin dira; baina ez Espainian bakarrik, ezta ezberdintasunik batera gabeko berdintasunez ere. Problema konplexoak dira eta beren konplexitate guzian aditu nahi genituzke, soluzio simple ta garbiegirik gabe, gauzak ilunak direnean. Problema zailei soluzio errazik ez diegu bilatuko.

(1) Esplikazio guzi honetan somarioki ihardun behar izan dugu eta, haundi maundi genbiltzala, ezin hartu izan ditugu aintzakotzat PCE-ren eta MCE-ren arteko diferentziak, are gutiago PSOE-renak edo. Seinalagarriak lirateke, halare: integrazioaz mintzatzen direnean, MCE-k guzien bilinguismoa proposatzen du; PCE-k, itxura duenez, etorkinen integrazioa hemen problemarik gabe bizitzea bezala ulertzen du, euskaldunen integrazioa, etorkinekiko postura positiboak desarroilatzea bezala, erdaraz arituaz, etc. (hau guk egiten dugun sinplifikazioa da, baina PCE-k berak egin duela sinplifikazio hori gure aurretik, esan daiteke: integrazioari buruzko haien testuak aztertu besterik ez dago). Soluzio eredutzat PCE-k Sobiet Batasuna aipatu ohi izan du, MCE-k «herri gartzela» ohi deritza Sobiet Batasunari, etc. Hemen ez genuen asmorik Alderdion azterketa diferentziatua egiteko, ezker espainolistaren pentsaera arruntak agertzeko baino. Nolanahi denik ere, MCE-ren ustez «el PCE sin duda mucho más abertzale que el PNV» da.

Baina gauza inportante batetan koinziditzen dugu funtsean horiekin guziekin, balorazio diferentea ematen diogun arren: Estatu espainol modernoaren sorrera esplikatze-koan, eta euskal nazioaren egungo miseria esplikatze-koan hortakoz. Eta, hortakoz, bai ala ez independentziarik, alde zaurretik isolazionismoak ez luke sentidorik guretzat ere.

Burgesiaren obra da egungo Estatu espainola. Baina burgesia ahularena, ez burgesia bortitzarena: bere ahulezian metodo gogoritsuak erabili dituen burgesiarena hain zuzen; eta iraultza burgesaren eskurapenik positiboena lortu ezin izan dituen burgesia batena halaber (“askatasun, berdintasun, anaitasun” haiek, formalak soil baziren ere). Ahularen indarkeria izan da euskal nazioaren zapalketa; eta progresista baldin bada klase hori, ez da hori egin zuelako, hori ta horrelakoak egin izan arren baino —besterik ezin zuen ala bai, ez digu orain ardura. Burgesiak, besterik ezin zuelako, edo ta mentalitate “monarkiko” zentral-absolutista baten oinordeko politiko izateagatik, bide herstu eta mehar bat urratu du, eta gizarte plurinazional zabala bortxaz handik ibilarazi nahi izan du, artalde baten gisa. Gauza onik lortu badu, prezioa ez da txarra izan. Lortu duen gauza bat, nolana ere, hauxe da: nazio ezberdinen elkar bizitza sozialik era horretan inposible dela, erakustea (“el gran fracaso que ha sido la unión nacional que en 1492 intentaron Ysabel y Fernando”, Eugenio Domingo). Guk, geurea den euskal perspektibatik, eta euskal perspektiba integral batetatik, ez ekonomizista arrunt batetatik, ezin har genezake soil “progresoztat” ekinbide hori, ezinbide nabarmen. Progresoan ere dena ez da progreso. Dolores Ibarrurirekin aitortu liteke:

Y si el concepto de la España *una* nunca fue aceptado por los pueblos que se sentían oprimidos por el yugo centralizador, hoy la repulsa a ese Estado y a esa situación abarca incluso a fuerzas y

clases sociales que en otros tiempos mantenían opiniones distintas.

Estatu zahar hori desmuntatu beharra dago, makina zahar bat bezala. Santiago Alvarezek (PCE) esaten zuenez, “entre los principales problemas que esperan solución de nuestra revolución democrática y socialista se encuentra el problema nacional”.

Hori denek esaten dute. Baina hori nahi ez duen bat burgesia da, euskal burgesia lehenengo, “bere” Estatua defendatzen du eta. Alegia, Estatu zaharraren krisia denek somatu dute. Burgesiak berak ere bai. Baina burgesiak bere Estatua “europeizatu” egin nahi du; bistan bait dago, egungo egitamuak ez direla produkzio indarren mailari eta aurrerapen tekniko-zientifikoari dagozkionak, are gutiago harreman sozialei eta esijentzia politikoei; hau da, burgesiak lapiko haundiagoa nahi du, baina lapikoa berriz ere, bere patatak egosteko.

Eta gu beldur gara, ezker “estatalistek” ez ote gaituzten patatak bezala hartuko: horiek ere lapikoa bakarrik pentsatzen dutelako. Estatuan. Langile guzien ez batasun, baina berdintasunaren (“igual a sí misma”) eta tesi horiek, antzinadanik aipatu izan den beste berdintasun zenbaiten korrontean erortzen bait dira, hemengo kontestuan, nahi bada eta ez. Hemen egosten dena ez dira patatak, denak berdinak, herri diferenteak baino.

Guk, ba, independentzia eskatzen dugu Euskadirentzat: eta, lehenbailehen esateko, ez dugu ahazten, independentziarik ez dagoela interdependentzian baino, egia hori ere.

Baina nola ahaztuko dugu, tradizio jakobino luze baten kontra borrokatu beharrean gaudenik eta haren ondorioen kontra, eskuinean ala ezkerrean. Estatu erdirakoi espainolaren fetitxeak adoratzaille asko bait du extremo bitan. Federazioa soluziorik ote litzatekeen aparte. Estatu horren historia beteta dago, XIX-gn mendetik egunotarai-

no, federazioaren predikatzaillez, gero zentralista amorratu izan direnak berak agintean.

Castelarrek honela predikatzen zuen:

No hay remedio: o no será la República o... la República será federal. No puede ser de otra manera, no debe ser de otra manera; no quiere el partido, no quiere la nación, que sea de otra manera.

Eta borobilki aseguratzten zuen: “yo jamás, jamás, jamás apoyaré ni defenderé una República unitaria”.

Eta aginteratu zen, eta predikuok egiten zituen orduan:

Yo amo con exaltación a mi patria, y antes que a la Libertad, antes que a la República, antes que a la Federación antes que a la Democracia, pertenezco a mi idolatrada España, y me opondré siempre, con todas mis fuerzas, a la más pequeña, a la más mínima desmembración de este suelo que íntegro recibimos de las generaciones pasadas y que íntegro debemos legar a las generaciones venideras.

* * *

Yo quiero ser español y sólo español, yo quiero hablar el idioma de Cervantes; quiero recitar los versos de Calderón, quiero teñir mi fantasía con los matices que llevan envueltos en sus paletas Murillo y Velázquez...

Ia tradizional da, euskaldunen eta katalanen nazionalismoa akusatzea (ez beste nazionalismoa). Euskaldunen eta katalanen beregaintasun eskabideak partikularismotzat jotzea (Ortega y Gasset: “particularismo regional”). Tradizio hau sozialista klasikoengan ere bortizki tinkatu da.

Unibertsalista izatea, ideologia oso diferenteek eta kontrarioek ere beti berdin ulertzen zutenez (Estatu fetitxeak hipnotizaturik), “partikularismo” horiek abandonatzea bait da, euskararen problema ta holakoak, mugak partitzen gaituela ta holakoak, eta abar, eta “Espainia guziaz” arduratzeta... “Espainia guziaren ardura, ostera, dena goitik behera ta erditik aldeetara gobernatzea baizik ez da; “Espainia” hori ez diren bazterrek beren problemak uztea.

Zentralismo zinez partikularista horrek ezin du inoiz konprenitu ahal izan, ez du nahi konprenitu, nola katalanek eta euskaldunek beren problemak dituzten, “zentroak” ez dauzkanak, eta soluzioak behar dituzten, eta beren problemez berek arduratu beharra duten, zentroak hartu duen egitamuaz posibilitaterik ez dago eta problema horietaz “denak elkartasunean” ardura daitezen. Zaila eta gaitza hori konprenitzea.

No se le dé vueltas: España es una cosa hecha por Castilla y hay razones para ir sospechando que, en general, sólo cabezas castellanas tienen órganos adecuados para percibir el gran problema de la España integral (Ortega y Gasset, *España invertebrada*).

Guk, ba, “partikularismo” horixe esijitzen diegu Euskal Herriko indar politiko guziei, euskalduntzat har ditza-gun. Partikularismo zentralistak izan du beti aginpidea, hori da errealitatea. Eta gure errealitatea, hortik segitu diren kalamitateak.

Demokraziak hortxe oinarritu du bere funtzionamendua: bakoitzak bere interesak aldeztuaz baino ez dela “guzirik” lortzen; interesen soma beste “guzirik” ez dagoela. Unibertsalismo abstrakto baten aitzakiaz “partikularismo” horien kritikan enplegatzea, izpiritu “monarkiko” besterik ez da; eta, okerrago, partikularismo jakin bat interes komun deklaratzeta, Estatua interes partikularista harekin berdintzea.

Independentziak —isolazionismo gabe— lehen-lehenengo haxe esan nahi du: Euskal Herrian euskal politika egitea. Euskal politikan, euskal nazio berregintzan, aktibo aritzea. Ez “dretxoak” aitortuaz eta. Hori, Madrilen egiteko ondo dago; ez, Iruina zaharrean.

Gero, independentziak, norik bere Estatua izatea, esan nahiko du, edo beste mila gauza esan nahiko du. Dependentsia ta independentzia konzeptu historikoak dira. Dependentsia politikoak daude, ekonomikoak, eta abar. Eta interdependentsia politikoak, ekonomikoak, orobat, inoiz arbuiatuko ez ditugunak. Euskal Estaturik ala ez, federazio ala ez, Europako eskualde berezi ala ez, aldiari aldiari ikusi beharko diren gauzak dira; sozialista abertzaleen artean uste diferentek daude. Baina, beti ere, interdependentsian benetako *ex-dependentsia* esan nahiko du independentziak, “para que Bizkaya sea de los bizkainos y éstos la gobiernen libremente sin estar sometidos...”

Halare, bi arrazoi badago, gure kasuan independentziak Estatua eskatzen duela, pentsarazten diona sozialista abertzale askori. Eta ezin pasa ditzakegu aipatu gabe.

1. Lehenengoa da, itzaropenik batere ez dutela, Estatu espainol federalak, onenak berak, Euskadi osoa zinez berreuskal lezakeenik. Euskararen egoera mehora dezake, noski. Baina guk begitan duguna ez da “euskara salbatzea”, ezpada euskal nazio hautsia biltzea. Euskara indartuaz, oraindik ez da nazioa integratu, erdiak edo gehiago erdaldun huts jarraitzen badu. Bi komunitate elkarren alboan. Euskadi guziak euskaraz ikas dezan —hots, bilinguismoa zinezko izan dadin— Estatuaren ikaragarritzko enpeina beharko da.

Y para ello —talde baten [EHAS zen hori] paperek diotenez— es necesario un Estado Socialista Vasco.

Porque en un Estado Socialista Español que englobase Euskadi Sur la solución a este inmenso

problema se vería posiblemente condicionada a la de problemas de carácter básico, primario, como el subdesarrollo de las zonas marginadas, la elevación del nivel de vida del pueblo español, el desarrollo de las fuerzas productivas, etc. Todo ello podría conllevar la postergación de la solución vasca hasta la resolución de tales problemas. Por otra parte, no existen garantías de que las organizaciones que empuñasen los mandos de tal Estado comprendieran en su verdadera dimensión nuestro problema nacional y obrasen en consecuencia. De hecho, los programas de las actuales vanguardias españolas cara a la cuestión vasca no contienen sino soluciones parciales e incompletas, que si bien a ellas les parecen satisfactorias, nos conducirían inevitablemente a la diglosia.

Euskal Herriari berriz ere geldituko litzaiokeena, hortakoz, litzateke, “la frustración que para todo nuestro pueblo supondría ver injusta y definitivamente diferida la solución a su problema nacional”.

2. Bigarren arrazoia Euskadiren erdibikuntza da, Ipar eta Hegoa Euskaditan: euskal nazioaren problemak Estatu espainolaren mugak gaindiatzen dituela. Hegoaldean guk geure problema optimalki konponduko bagenu ere, Iparraldean gelditzen da. Ipar Euskadi sozial nahiz ekonomikoki lurralde marjinatua da, milaka gazte urteoro-urteoro emigratzera behartzen duena, lanik ez duelako:

...marginada social y económicamente por la política económica parisina, condenada a desaparecer como comunidad nacional en el marco político-cultural-económico del Estado francés; la situación de pobreza y abandono en que la parte norte de nuestro país se encuentra es consecuencia de una larga serie de trabas estructurales y no meramente coyunturales...

Por otra parte, la incomprensión de la problemática nacional de Euskadi Norte por parte de las vanguardias revolucionarias francesas es total. No se trata, pues, de concepciones erróneas de asumir sólo parcialmente la complejidad de nuestro problema específico —como sucede con las vanguardias españolas—, sino de la liquidación pura y simple de tal problema, considerándolo inexistente.

Ipar Euskadik Hegoaldetik laguntza behar du, bizirik irtetzekotan: kultural, sozial nahiz ekonomikoa. Eta, gainera, nola gelditu ahal izango luke lasai-lasai Nafarroak, esate baterako, Hegoaldean bere nazio arazoa konpondu baldin badu eta nazio konzientziarik sendotu badu, seigarren merinaldea mirrintzen ikusiaz mugaz bestaldean?

Tal problemática no es asumida por ninguna de las vanguardias revolucionarias de España o Francia.

Gainera —arrazoi bat gehiago— sozialista askok esango du, iraultza sozialista errazago dela, Euskadik bere bidea eramaten badu, Estatu espainolaren barruan ari bada baino. Eta, iraultza Euskadin eginik, Estatu guzian errazagotzen dela hura egitea.

Ez da dudarik, urteotan Euskadik borroka maila propio bat lortu du eta ritmo berezi bat iritxi du iraultza bidean: prozesu hori bizkortzeko ta indartzeko izango ote da federazioa? Ala freinatu egingo du Euskadin prozesu iraultzailea? Ez ote du hobe, azkeneraino bere bideari segitzea? Hori da galdera.

Arrazoi hau geroz eta gehiago erabiltzen da talde sozialistetan. Uste denez, prozesu iraultzaileak bere ritmoa du Euskadin, eta prozesu horri dagokion independentzia tokatzen zaio egun Euskal Herriari. Bestela, ez da euskal iraultzari bere bidea eragotzi besterik egiten. EKAB hortan oina-

rritzen zen. Eta Ortziren azken liburuan (*Los Vascos ayer, hoy y mañana*), adibidez, hortik doa argumentazioa:

La unidad de la clase obrera en el marco del estado multinacional, de todo punto necesaria, no es, pues, la unidad de los procesos revolucionarios que éstas encabezan en las distintas naciones; sino la unidad, desde su total autodecisión, en la lucha contra el enemigo común que les oprime a todas ellas, la burguesía estatal financiera.

Berez, arrazoipide hau klasikoa da, formalki bederen. Izan ere, komunista klasikoek esan ohi dutenez, berak autodeterminazioaren alde daude; baina “separazioaren” alde egon ala ez, kasu bakoitzean ikusi behar da: separazioaren alde egongo direla (de fakto ez dira inoiz egon), iraultza proletarioa burutzeko onuragarri ageri bada, bestela ez. Beti ere iraultza proletarioaren perspektiban erabaki behar dela, separazioaren alde ala kontra jokatu... Arrazoi horixe da, beraz. Honez gero, iraultza proletarioa errazago egin litekeela, esaten du zenbait sozialistak, Euskadi beregain badabil. Eta iraultza proletarioaren izenean eskatzen du politika independentea Euskadin.

Ikusten dugunez, Euskadirentzat eskatzen den independentzia, bikoitza da: bere burua nazio gisa berregiteko independentzia, eta bere iraultza egiteko independentzia.

Euskal iraultzari bere bidea uzteko, funtsean besterik ez du esan nahi arrazoipide honek. Independentzia bikoitz hori eskatzen bada, borroka urteotan erakutsi duenagatik eskatzen da; ez “eskubideren” batzuen izenean, ezpada borroka politikoak hemen hartu duen errealitatearen izenean: alegia, klase borrokaren hemengo marko espezifiko eta ritmo berezien izenean.

Beraz, jende askori —arrazoi diferenteengatik —ez zaio fidagarri iruditzen, iadanik, Madrildik eramango litzatekeen politika bat, Estatu federalean ere. Izan ere, histo-

riak zerbait esan lezake guzi hortaz; eta historian zehar Aginpide zentralarekin Euskal Herriak egin dituen eskarmentuak aparte, federalismo historikoen azterketak ere apenas ematen du animo gehiegi. Erraza da federalismoa, idealetan, Euskal Herriari behar haina libertate utziko dion sistema bezala, deskribatzea, federalismoa oraingoz asmo hutsa den artean (eta, hasteko, aurrerapen polita litzateke, hori bai). Baina, sarri, federalismo horiek erakusten dutena, Euskal Herriak bere historian nahiko ikusi duena da: zentroak jarriko ditu beti burdinbideak, eta Euskal Herriak askatasun guzi haxe izango du: deskarrilatzeako askatasuna, edo atzetik tarraka doan bagoia izateko askatasuna. Askatasun hori dena eta besterik ez.

“EUSKADI” IZENA DELA TA

Sabinek konzeptu *politiko* bat behar zuten: euskal herria nazio dela, adierazi nahi zuten eta. Hori adierazi nahi, *Euskadi* hitza asmatu zigun. Haren ustez, Euskal Herri izena ez zelako egoki. Kanpionek eta, nahiago zuten *Euskal Herri* izenarekin gelditu. Orain, aspaldiko eztabaida hori berrito hasi dugu.

Arana ez da *Euskal Herri* izena utzi eta besterik hartu duen lehenengoa. Erdaraz idatzi dutenak, beti izan dute problema hori; euskaraz hitz eginaz, euskararik ez dakiten “euskaldunak” izendatzeko, problema dagoen moduan (“euzkotar”, etc.).

Euskal Herri izena antzinakoa da. Izkribuetan, Leizarragak erabili du lehenengo aldiz: *Heuskal Herri* idazten du harek (alegia, h-ez). Heuskara eta Heuskaldun idatzi du, halaber. Eta Leizarragak baino lehenago, Etxeparek ere Heuskara eta Heuskaldun idazten zuten. Kronista frankoek *Wascones*, *Uascones*, *Uvascones*, *Vuascones* izendatzen zituzten euskaldunak, ezin zuzen asmatu. Wa hau, aldiz (beste *Ua*, *Vua*, *Uva* horiek adierazi nahi dutena), *u* edo *v guturala* zen, dirudienez. Gutural hartatik sortu dira agian *Vasconia/Gascogne* eta *baskon/gascon* formak, ezer garbi-garbirik ez badago ere puntu honetan (besteren ba-

tzuen ustez *vascón*, *barscune* keltikotik letorke: “harro”, edo “gailurretako”).

Lehenengo: euskaldunek badute beren izena. Lerdo-keria hutsa, euskaldunak sekula ez direla bat izan eta izenik ere ez dutela guzientzat berdina.

Las provincias vascongadas en ningún momento de su historia habían formado una comunidad política unitaria e independiente, ni existía, por tanto, palabra en vascuence que expresara esta comunidad... Entonces en 1902 (hori da, hori!), Sabino Arana empezó a emplear un neologismo, que gramaticalmente era erróneo, pero que políticamente hizo fortuna: Euzcadi (vascoleda).

Horrelakoxeak erregalatzen bait dizkigute oraindik espainol aldizkariak. Euskarak oso guti arduratu ohi dituenok, oso arduratuta ikusten ditugu, euskal izen bat gramatikalki zuzen ala okerra ote den: Euskadi hitzaren kasuan!

Euskaldunek badute beren izena, beren batasuna duten bezelaxe. Kontua da, batasun politikorik (erakunde mailan) apenas izan duten moduan, izen harek balio politikorik ere ez duela beste gabe. *Yugoslavia* hitza ere politikak bihurtu du gaur dena. Errealitate politiko historikoek, ez bestek, eman dezaketen signifkazio politiko jakin hura, *Euskal Herri*-k ez du hartu.

Euskalduntasunaren eta euskaldunaren konzientziak eboluzionatu egiten dute historian. Hitzen sentidoa aldatu egiten da zirkunstantzien arabera. Horrela euskaldunak, euskaraz mintzo denari bakarrik, esan ohi dio *euskaldun*: “hori donostiarra da, baina ez da euskaldun”. Hemen euskaldun hitzak bere jatorrizko eta tradiziozko esanahia gorde du. Beraz, *euskal* esanahi hortan erabiltzen den lekuan, zail gertatzen da, euskara galdu duten “euskaldunentzat”, euskaraz izendapen egokirik aurkitzea. Euskal Herri, eus-

karaz mintzo direnen herri, bait da. Badakigu, ordea, Euskal Herrian euskara nola dagoen.

Euskal hitzak izan du beste eboluziorik ere. Zuberotarrek beren buruari bakarrik deritzate euskaldun; Zuberoa bakarrik da Euskal Herri.

Bide horietatik Aranak ez zuen irtenbiderik. Euskal nazioa adierazten duen konzeptua, behar zuen. Alegia, nazio birrindu hau adierazten duen konzeptua.

Sabinek Euskadi izena zergatik asmatu zuen, arrazoi gehiago ere badago. Lehenago ere eztabaida haundiak egon bait dira historiazaleen artean, oraingo euskaldunak (*euskaros*, *euskarianos*) eta jatorrizko baskoinak herri bat ote diren ala bi, eta abar (nafarrak euskaldunak al ditugun, eztabaida horixe bera, funtsean, lehenago ere). Aymeric Picaudek Ipar Euskadikoei esaten die euskaldun (*bascli*); Hegoa Euskadikoei nafar deritzaie (*nauarri*), perspektiba geopolitiko batetan ikusita, noski: “Bizkaiko eta Arabako nafarrak”, esaten du, hortakoz, pelegriñoak. Euskara, hizkuntza bat ote den, euskalkitan banatuz joan dena ala hizkuntza diferenteak, elkarrengana hurbilduz eta berdinduz etorri direnak, eztabaida egon den moduan.

Sabinek, bada, konzeptu politiko garbi eta global bat behar, eta *Euskadi* asmatu zuen: erdaraz nahiz euskaraz erabil zitekeena; euskaraz jakin ala ez jakin, nazio guzientzat balio zuena (ez da ahaztu behar, Aranak ia dena gaztelaniaz, idatzi zuela); “probintzietarako” nahiz Erresuma Zaharrerako balio zuena.

Filologiak aparte, nik uste dut, ondo egin zuela. Orain, izen hori, izenez gainera sinbolo politiko arrunt onartua eta guztiz baliotsua da. Aranaren konzeptua aberastuz joan da.

Izenak izana. Izana kondenuatu nahi lukeen askok, izenari burla egiten dio oraindik. Izen berria omen dela. Neologismo itsusi bat omen da. Gaizki eraturik omen dago, gainera. *Un neologismo, que gramaticalmente era erróneo, pero que políticamente hizo fortuna: Euzcadi (vascoleda).*

Gogara dezagun, ikurrinari kritika berdintsuak egin zaizkiola.

Neologismo izatea, batere inporta ez duen gauza da.

Gaizki asmatuak dagoela, onar genezake (batez ere *Euskadi* esaten bada, z-az, Aranak hala idazten bait zuen; berdin *euzkera*, *euzkeldun*). Baina horrek ere guti axola. *Automobil* ez dago hobeto sorturik eta ez dabil gaizki. *Euskadi* forma (s-rekin) gerra aurrean ere nahiko zabaldua zebilen.

Z hori: Frai Pedro Astarloak, Frai Bartolomek, Aizkibelek, Ulibarrik, Eusebio M. Azkuek, *euzk*-idatzi dute, Aranak baino lehenago. Erdaraz ere aspaldikoak dira *basque* eta *bascuence*, Kalagurriko sinodalek berek dakartenez. Aranak “eguzki” teoriaren bat erabili bazuen, hori ere zaharragoa da Sabin baino: Aizkibelek eta, ezagutzen zuten. Eguzkiaren seme omen diren herriak, asko dira, bestalde, eguzkiaren azpian. Txaho ere hortik zebilen.

Euskadi-ko DI bukaera —harakoari *vascoleda* itzultzeko aitzaki eman diona— zuzen ala oker egin, apropos hautetsi zuen Aranak: besteak beste, zerbait dagoen *tokia* adierazten duelako. Eta, Aranarentzat, Euskadi konzeptuak, ez azkenik, geografikoa izan behar zuelako, euskaldunentzat bere Estatua erreklamatzeko zuenez gero. Lehen-lehenik horixe da Euskadi: “euskoen” tokia, *pinudia* pinu toki, *bagadia* baga leku eta *hariztia* hariztegi diren legez. *Di* hori landare tokietatik at ere badarabilgu: etxadi, sendi; loidi, lokatzadi, zingiradi. *Gizadi*, orobat; *anaidi*, *lagundi*; *ontzidi*, itsas harmada (Uriarte, *tueta*, Larramendiri hartuta agian). Larramendik: *nasdi* (tropel), *gentedi* (gentío), etab. Arana holakoetan orientatu da, dudarik gabe. Eta, beharbada, *Lapur-di* bezalako toki izenetan ere bai: Oinati, Arboti, Ozkoidi, Gabadi, zer dakit nik; deituretan halaber: Kortadi, Alberdi, etc.

Ez naiz ni filologoa eta ez nuke inorenean esku eta anka sartu nahi. Naizen irakurzaleari, halare, ez zaio irudi-

tzen, norbait esaten ari zaigun bezain gauza garbi eta segu-
 rua, *Euskadi* izena gaizki dagoela, *Euskal Herri*-ra itzuli
 behar dugula nahitaez, —DI hori, euskal literaturan, lan-
 daren tokietatik kanpora ez dagoelako erabiltzerik. Behar-
 bada eboluzio okerren batengatik izango da, baina gaur *gi-
 zadi*, *kristaudi*, eta holakoak entzuten badira, ez dakit zer-
 gatik atzeratu beharko genituzkeenik. Batere ez dakida-
 nean, baina iruditzen zait, joera bat gutien-gutienez soma-
 tzen dela aspal-aspaldidanik euskal literaturan, Arana baino
 askoz lehenagotik, -Di hori bestela ere erabiltzeko edo uler-
 tzeko. Lhandek XVII-gn mendeko Etxeberrirena aipatzen
 du: *mundu bebere huntako gizon dia* (“la multitude des
 hommes de ce bas monde”). Berak dakar, “Suff. indiquant
 un ensemble” bezala, *adartadi* (cornamenta) hitza ere, La-
 purdin erabilia. Larramendirenak, XVIII.gn mendean
 —etxadiaz eta beste, *semedia*, *beretardia* (clero), *gueciadia*,
lutzadia (flechería), *guerraridia* (batallón), etab. bezalakoak
 ere bai bait ditu harek— aski ezagunak dira. Azkueri be-
 rari, *Morfologia*-n, irakurria diot hauxe: “*Lapurdi* (nom-
 bre de un barranco de Elgueta, G, en que con frecuencia
 eran asaltados los viajeros)”. Oihenartek, XVII, *Lapurdi*
 izena *lapur-di* interpretatzen bazuen, eta Etxeberri Sara-
 koak, XVIII, hasarreturik, *laur ur-di* bihurtu badio, biek
 erakusten dutena da, nolana ere, -Di hori landareetatik
 landa ere ez zitzaiela imposible iruditzen...

Hori dena, Justo Garatek eta, lehenago ere ongi era-
 kutsitakoa da, nik egin nezakeen baino hobeto (ik. EUS-
 KERA 19, 1974, 105-115). Horrezaz gainera, badakigu *r*
 eta *d* (*r/d*) zein erraz nahasten diren gure artean: *baga-
 ri/ pagadi*, *gaztedi/gasteri*, adibideak aipatzen ditu Gara-
 tek. Eta *eran/edan*, *atari/atadi*, eta abar. Aranak bazituen
 aurretik *euskar*, *euskariano* eta *Euskaria* formak. Bidezko
 da, bidea “de Euskaria a Euzkadi” doala, pentsatzea. Bide
 nahiko sinplea. Ez dago ikaragarritzko neologismorik, or-
 duan. Sabinekin gauza anitz korrejitu zuen, euskara kontuan;
 dirudienez, *Euskaria*, *s* eta *r*-duna, “korrejituz” atera zi-
 zun *Euzkadi*. Orduan, Aranak egin duena, zalantzan ze-

bilen izen bat (Euskaria, Euskaria) finkatzea izan da. Eta -DI atzizkia, atzizkirik adina (“vascoleda”), *ri*-ren aldakuntza da.

Euskarichoa 1827-an J. B. Etxegarayek erabilia zegoen; baita *Euzkadia* hitza bera ere, E. M. Azkuek erabilia, Sabinen aurretik.

Beraz, oso guti da, Sabineek asmatu egin omen zuena hitz hortan. “Neologismo arras berri” hortan.

Sabinek asmatu zuela, esaten eta entzuten, jarraituko dugu, halare.

Eta guretzat, behintzat, halaxe da, izan ere. Gu ez bait gara hizkuntzalariak. *Euskadi* hitza, historian sartu den bezala eta historia egin duena, Sabineek “asmatu” zuen: aber-tzaletasunaren mila beste konzeptu eta sinbolo bezalaxe. *Euskadi* da gure aberriaren izena; itxaropenetako etorki-zunaren deitura. *Euskadi* gaur dena, Sabineek sortu zuen. Horixe bait da, izen horren kritikan datozkigunek, ondotoxo dakitena.

Euskadi hitzak baditu (hasiera-hasieratik zituen: Kanpion, etab.) euskaldun eta abertzaleen artean ere kritikuak. Baina hitz bat, holakoa batez ere, ez du filologiak legitimatzen edo deslegitimatzeko, usadioak eta herriak baino. *Euskal Herria* eta *Euskadi* ez da berdina, honez gero. Eta, honez gero, bien beharra dugu. Burugabekeria hutsa iruditzen zait borroka hori dena *Euskadi*-ren kontra, *Euskal Herria* izenaren aitzakiz. *Euskadi* ez da *Euskal Herri*-ren kontra etorri, *País Vasco-navarro* eta horien kontra baino; eta *Euskaria*, etabarren kontra, izatekotan ere.

ARRAZISMOA

Hona Aranismoaren kapitulu tristea, beltza. Itxuraz, behinik-behin, aranismoaren bihotz-bihotza. Eta euskaldunon lotsaren lotsa.

Honez gero euskalzaleok nahiago izan ohi dugu kapitulu hau ahaztu, Aranaren begirunez baino gehiago, noski, geure lotsaz.

Alderantziz, gure etsaiek oraindik ere erraz esaten dute, edo sujeritu nahi izaten dute, abertzaletasuna beti ere arrazista dela.

Denborak aldatu dira. Bere gogoz denborarekin joan ez zihoana ere, erremediorik gabe denborak berekin eram du. Gaurko abertzaletasuna ez da beti aranista, eta aranista bera ez da Aranaren berbera, kazkar ala kizkur. Aspaldian ez dago abertzale arrazistarik inguruotan.

Aranaren ustez arraza da euskalduntasunaren azkene-ko funtsa ta giharra. Euskal arraza garbia da, espainola nahastua. Antzina-antzinatetik bakartuta egoteak eutsi dio euskal arrazari garbi. Egungo abertzaleak ere kutsapenik eta eraspentik gabe eutsi behar dio. Eta, hortarako, arraza bakan eta bakartu egin behar du. Zenbait lege ematea ere buruan zerabilen Aranak:

1. Los extranjeros podrían establecerse en Bizkaia bajo la tutela de sus respectivos cónsules; pero no podrían naturalizarse en la misma. Respecto de los españoles, las Juntas Generales acordarían si habrían de ser expulsados, no autorizándoles en los primeros años de independencia la entrada en territorio bizkaino...
2. La ciudadanía bizkaina pertenecería por derecho natural y tradicional a las familias originarias de Bizkaia, y en general a las de raza euskeriana, por efectos de la confederación; y por concesión..., y con las restricciones jurídicas y territoriales que señalaran a las familias mestizas o euskeriano-extranjeras.

Arrazaren ezaugarria deitura da. Hots, euskaraz jakitea ta egitea baino inportanteago da euskal deitura garbiak izatea. Gaur euskal deitura garbiak dituzten eta harro dabiltzan alfer horietaz kexu gara, ez dutela deus egiten, kaltetarako baizik ez ditugula. Arana ez da guzi hortan errugabea. *Euskeldun Batzokijan* sartzeko (1894-ean sortua, baina 1890-ean prest zeuden estatutoz) ez zegoen euskara jakin beharrik. Baina hori bai: katoliko ortodoso izan behar zen eta etxeko lau euskal deitura jator erakutsi behar zen! Laurak garbiak. Fernandez bat, euskara besterik ez badaki ere ta Gipuzkoako mendarte ezkutuenean jaio ta hazi baldin bada ere, erremisiorik gabe "maketo" da; Argentinako panpan jaio ta hazi den Lizarraga, erdara besterik ez badaki ere ta bere deitura euskaldun denik ez jakin arren ta argentino beste ezer izan nahi ez duela, ba, euskaldun jatorra da; eta Cuban hainbeste dagoen Izagirre, Garate, ta holako beltz ere, arraza garbiko euskaldunak, noski, denak. Behi baten kumea behi den bezalaxe dena: idia bada ere. 1908-ko PNV-aren estatutoetan bigarren artikulua zionez, Alderdi honetan sartzeko gutienez deitura euskaldun bat behar zen (iadanik ez da lau jatorrik eskatzen, tira)...

Bizkaiaren (hots, Euskal Herriaren) hondamendia “inbasio makettoa” da. Lan bila datoz, eta etxeko jaun ta nagusi altxatzen dira. Beren gaitz guziak erasten dizkigute. Euskal gizartea maketo infiltrazioaren pipiak jota dago. Arrazari garbi eusteko, arraza biok, euskalduna ta makettoa, aparte jarri beharra dago. Hoberena euskaldunek ghetto bat egitea ta beren buruak preso ezartzea. Inolako beste arrazarekin nahastu gabe.

Euskara ta galtzen badira ere, arrazak garbi dirauen artean euskal herria bizirik bizi da; alderantziz, arraza gabe deus ez da Euskadi:

Si desapareciese nuestra raza de estas montañas, y en éstas y con el nombre de Euskeria se constituyese la confederación de sus seis estados parciales, y cada uno de éstos se estableciese con la respectiva tradición de nuestra raza, con nuestra lengua y hasta con nuestras costumbres y carácter, esta Euskeria no sería nuestra Patria, sino otra Euskeria diferente.

Hau dena ez da mintzamolde hutsa ta esaera soila, be-roaldiko retorika. Ez. Infernalki serio halaxe pentsatua da. Aranaren ametsetako Euskadi demokratiko ta librean, horregatik, maketoez hiritar eskubide txit mugatuak izanen lituzkete. Ezin kargu-ofizialik inoiz bereganatu ahal izango lukete, noski. Euskadi demokratikoan demokraziak euskaldunentzat —euskal deitura garbidunentzat, alegia— bakarrik balioko du.

Euskaldunek honera heldu den makettoa hiritarkide edo lankide eta anaia bezala hartzea, Aranek ezin jasan du (hain kristaua izan arren). Narraskeria iruditzen zio. Maketoak arrotz eta etsai dira, kitto. Aranek euskaldunen eta maketoen “nahastezkontzak” kondenatzen ditu. Arrazaren isolamendu edo bakartzapen absolutoak izan behar du gure jokalegea, euskal herria osasuntsu izatekotan. Etorkizuna bakartzapen absolutoak aseguratzen digu. Basalduak kon-

tatzen duenez, neska gazte batez maiteminduta ibili omen zen behin Arana, baina neskatxak deitura guziak erdaldu-nak zituen goitik behera... Adio esan behar izan zion! Egia ala *ben trovato*, Aranarentzat egoki egiten da “santu legenda” edifikante hori.

Aranak espainolaren irudipen eskasa zuen. Musakeraz eta, bere tailuz, espainola zimur kaskala da, latza, ezaina, espresiorik gabeko begitarte du, berdotza. Lanik errazene-tarako ere moldakaitza, lazoa, motela, trakela, pulamentu gabekoa, zuria. Nagia ta alferra da erdalduna. Ezertarako kemenik gabekoa. Inteligentzia gutikoa. Narrasa da eta zikina. Zorri bat, gainera. Lan egin baino nahiago du beti besteren lepotik bizi. Noizik behin kanpotarren inbasio baten astinaldia behar du zibilizatzeko. Espainola bere ana-iekkin ere lukurra ta zikoitza da. Ahobero ta burubero hu-tsa. Erljio kontuan neurririk gabekoa: alde nahiz kontra, beti fanatiko. Etxeari atxekitasunik ez dio, tirtiriku eta ipurtarin. Haien artean adulterioa ta, korriente dira. Hitz batetan: ongaitzen banakuntzan Jaungoikoari ahaztu egin zitzaion, nonbait, espainolei onik ematea; aldiz, inon di-ren gaitz guzientxoak eman zizkien erruz. Espainol arra-za, hortakoz, arraza zirtzil erdeinagarria da, nazio doilor sa-tsua, biraolari ta sakailo herria, herri afeminatu eta basa-zakartua batera.

Espainolak dira “la gente de la blasfemia y la navaja”, “gentes groseras y degradadas”, “viles y pusilánimes (...), miserables, falsos y ruines”; “raza envilecida”, “vil, rastrera, servil y fementida”, “la hez de los pueblos europeos”, “la raza más vil y despreciable de Europa”, eta abar.

Bizkaitarra (euskalduna), ordea, prestua da, burutsua, inteligentea, langilea, bihotz haundikoa, mazala, bikaina, karitatsua, eskuzabala eta beti ere duina... Kanpotar edo-zeinek berehalaxe somatzen duenez, bizkaitarra ta espaino-la aldenik alde gizatasun kontrariotakoak dira, ez dago al-

derik ere bion artean. Begira bioi, euskaldunari ta erdaldunari:

La fisonomía del bizkaino es inteligente y noble; la del español, inexpresiva y adusta. El bizkaino es de andar apuesto y varonil; el español, o no sabe andar (ejemplo, los quintos) o, si es apuesto, es tipo femenil (ejemplo, el torero)...

Arrazaon nahasketak ezin burubide onik ekar lezake, bizkaitarrontzat batik-bat. Eta halaxe da. Aranaren ustez, gaitz guzien iturburua nahasketa horixe dugu. Euskal arrazaren adimena kamustu bada, bihotzak ahuldu ta korruntitu bazaizkigu, ohitura lohiak zabaldu badira, zikinkeria ta ezjakintasuna hedatu ta euskal gizartea lardaskatu bada, inmoralkeriak jo bagaitu, fedea maskaldu, eta zer den ere zertu, beti arraza nahasketa da guzion iturburua.

Orain, arraza nahasketak berak badu bere iturburu historiko ta politikoa; askatasunaren galera. Gaizpide oren hasiera, hortakoz, askatasunaren galera da. Arana interpretatzerakoan hori ez da ahaztu behar: arrazismoaz ari bagara ere, funtsean beti 1839 hartaz ari garela.

EUSKARA ETA EUSKAL ARRAZA

Euskal Herriko politikak euskararen arazoa beregain hartu behar duela, zuzen ikusi zuen Aranak. Batez ere horri eskerrak ezagutu du euskarak “Bizkunde” edo ohi deritzana, mende mugaz gero ezagutu duen bultzada. Lehenengo aldiz mogimendu politiko batek euskararen alde ekiten dio. Astiro-astiro, gainera, euskalzaletasuna, euskararen ardura, ia abertzaleon esku bakarrik gelditu da. Aranisten eskutan. Salbuespenak salbu —eta batzu inportanteak dira— jeneralki halaxe izan da. Eta, egunotara arte, euskararen alde gehien lan egin dutenak abertzale aranistak izan dira.

Deblauki salatu zuen Aranak, euskara itotzen duen politika espainolista: gobernariena, Elizarena eta elizgizona, irakasleena. Eta, Aranaren inguruan, protesta honek gorputz hartuko du. Elizaren beraren kontra: abertzaleek beren umeei euskal izenak (Aranaren *Ixendegi*-koak) eman nahi izan zizkienean, Gasteizko Gotzaiak ez zuen baimeunik eman, izenok bataioan ezartzeko; Erromara errekurso eginik, Erromak abertzaleei arrazoi eman zien. Maisu erdaldunen kontra, batez ere: Azkueren *Vizcaytik Bizkaira* (1895) aipa genezake: “Erdal erritik datoz / maisuak eunka, / jaurti ta amildu nairik (...) geure erritartasuna / ta euskera gozua...”. Edo Kanpionen historia unkgarria, Mar-

tiniko Urgaingoarena, eskolan euskaraz hitz egin duela adierazten duen eraztuna daramalako, maisu ero batek hil arte e gurka txikitu duena, konkorduna ume gaisoa, bere oinaze artean euskara madarikatuaz hilgo zaiguna. Eta abar.

Aranaz gero badakigu, hizkuntz-inperialismoa politika nazio galtzailearen parte integratzaile zein inportantea den.

Eta, bigarren, Aranaz garbi eta gogor salatu zuen, klase nagusien zabarkeria euskararekiko. "Hace siglos que nuestro Pueblo está abandonado: la prueba está en el mismo euskera". Klase horri, Kanpionekin aritzeko, Kain deritzaiok: "Ya Caín no mata a su hermano. Eso es poco. Ahora Caín asesina a su propia madre".

Gaurko euskalzaleak ez du hori ahazten: euskararen zortea politikari lotuta dago.

Hizkuntza arazoaren eta politikaren "nahasketa" honenkin, halare, ez dira denak konforme. Hona hemen deskonformeen adibide bi (gerra ostekoan gelditzen gara, aurrekoak utzirik).

1. Lehenengo kasua, gure aldi honen hasieran gertatu zen, eta hain zuzen aranzismoaren "kontra" (kakotx artean jartzen dut "kontra" hori, joera hau hartu zuen zenbait, aranzista zelako).

Gerra ostean ez zion euskarari onik egiten, harekiko zaletasunak besterik gabe joera edo eskola politiko jakin baten susmoa sortzeak. Euskararen kezkarik zuenaz berehalaxe esaten zen: "nazionalista da". Eta nazionalista izateak, edo susmo hortan erortzeak, bentaja guti zuen orduan. Efikaziak ez ote zuen eskatzen, abertzaletasuna ta euskalzaletasuna radikalki banatzea? Uste dut, Villasante bati, esaterako, hala iruditzen zitziola. Kasu konkretu honetan hainbat garbiago ikusten zen biok banatu beharra, oker ez banago, Villasante, bere erizkera politikoetan sekula ez bait da aranzista izan; gainera, apezak politikan neutral izan behar duela, pentsatzen zuen noski. "Euskararen alde lan egin behar da, eta langilearen kolore politi-

koak ez dio axola”, pentsatzen zuen inondik ere. Euskalzale izateko ez dago aranista abertzale izan beharrik. Hobe ez izatea, pentsatzen zuen ere agian. Euskalzaletasuna ta politika bi gauza dira. Ez dira nahastu behar... Eta Villasanten biziki saiatu zen, biok zinez bi direla, erakusten. Ez da hau Villasantek hori nola egin zuen juzkatzeko unea: neuretzat, haren erizkera politikoen desastrea nabarmena da (ik. adibidez, *Historia de la Literatura Vasca*, 1961, or. 314-315). Dena den, ikuspideok erabili ziren, eta Mitxelena eta Arrueren elkar lanak, esate baterako, inportantzia handia izan du garai hartan. Ikuspide horiek arrakasta handia izan zuten orduan, oso positiboa gainera. Eta, testuinguruari adi bagagozkio, oraindik ere “beren egia” dute. Falta zaiena ez da gutiago, noski. Banakuntza horri eskerrak bakarrik izan da posible, nolana ere, gerra ostean euskal literaturaren abiadura berria. Bide nabar esan: Antonio Arrue bati, ohi dugun baino esker gehiago, agertu behar genioke, hasiera gaitz haiek direla ta.

2. Berriz ere laster nahastu ziren euskara eta politika. Eta orain “aranista” ziren, nahasketa hori salatzen enplegatu zirenak: Arenaza, eta abar, AGUR-ekoak eta GOIZ ARGI-koak.

Hor ari zen jendea ahalik eta zuhurkien eta isilkien lanean, politikatan eta muturrik sartu gabe, kultura “hutsa” eginez, suizoak baino neutralago izateko enpeinuz, lotan zirudien lehoia iratzartzeko beldurrez, kultura egiten denean kultura soil eta politika egiterakoan —baina guziz aparte eta isil-isilik— politika eginez. Bi eremuok banatzea lortu zela, esan zitekeen. Eta horra non gazte txotxolo batzuk agertu diren eta dena berriro nahastu duten. Ikastoletako, Euskaltzaindiko, ortografiako eta ez dakit nongo haize guziak harrotu dizkigute, intentzio politiko hutsez eta makurrez... Politika egiteko bakarrik nahi omen dute euskara. Ez omen dira euskararen alde euskaragatik beragatik axolatzen. Beren xede politikoengatik baizik. Helpide hutsa omen dute euskara, beren helburu politikoak esku-

ratzeko, eta abar. Eta, inondik ere (irakurri ote dute “aralista” horiek Arana?), ikaragarrikoa da hori dena.

Hemen oso gauza kuriosoak gertatzen bait dira: Villasantek hizkuntza ta politika banatzea predikatzen zuenean, oso hasarretu zirenak, haietxek berak izan dira gero, hizkuntzaren eta politikaren nahasketa salatzen zutenak; eta, salatzen zutenez, nahastaileon buruzagi Villasante hura omen genuen...

Alferrik da, politika eta euskara banatu nahi izatea. Bana litekeena, izatekotan, euskara eta *Alderdi*-politika izango da, ez politika oro. Politika ta hizkuntza nahitaez nahastuta dabilta, Nebrixak ere bazekien hori: politika hizkuntza-politika ere bai bait da.

Aranak ondo ikusi zuen eta hobeki esan zuen, nik us-te: Euskal Herrian politikak nahitaez euskararekin ikus-kizunik badu. Eta euskararen ardura politikoarekin, poli-tika abertzalearekin, bizi liteke bakarrik: euskararen arazoak ez du soluziorik euskal arazoaren soluzio barruan ez-pada. Euskararen problema Euskal Herriaren problema da, eta honek ez du burubiderik politika gabe.

Euskara gainbehera doa, nazioa doalako gainbehera:

El pueblo vasco se va y porque se va el pueblo vasco se va su lengua, y no viceversa. Y este irse y perecer, por nadie será atajado si el pueblo vasco no se estudia a sí mismo conociendo su historia y su situación actual, y no aplica el remedio a sus males, y si, comprendiendo sus defectos, no los corrige.

Beno, euskal kuriositateak ez dira oraino kastatu, eta Sabinen pasarte honi komunista baten beste berdintsua erantsiko diot, Manuel Ereñorena (PCE). Txillardegik in-sistatu duenez, euskara galduaz euskaltasuna galtzen da. Manuel Ereñok Txillardegiren kontra irten zuen:

Decir que si se pierde el euskera se pierde el espíritu nacional vasco aparentemente es verdad, aunque se subvierte la cuestión. Pues resulta que no debe plantearse así, sino a la inversa: es si se pierde el espíritu y la voluntad nacional vasca, si no se levanta y surge del pueblo un profundo empeño renacentista del euskera como corremos el riesgo de perderlo (*Arragoa* 6-7, 1967, 31).

Hemen, abertzaleak Aranari atakutzen zion eta (ohartu gabe, noski) komunistak defendatzen zuen Arana. Nahiko xelegre da. Baina xelegreena, nire ustez, beste hau da, oraindik: alternatiba hori gabe, dialektikoen pentsatzen duena, zein eta Arana Goiri dela. Aranak ez du hau ala hori esaten, bai bata eta bai bestea baino:

Donde avanza el idioma castellano (que es el español más próximo a Euskalerrria), avanza también el españolismo y con él arraiga y se desarrolla.

Txillardegik ez bezalako arrazoi batzuekin, baina Aranak sarri azpimarkatu zuen, euskal nazioaren euskarri dela euskara. Eta haren politikaren eskakizuna bazen, euskarari laguntzea, aldez beste ere balio du horrek: euskara indartzeak haren helburuei laguntzen zien.

Aranak ez zuen euskararen problema bakandu, politikatik banatu. Euskal arazoari —osoki— soluzio eman nahi zion, eta bazekien euskararen problemak —haren parte bezala— ekinbide haren baitan aurkitzen duela soluzioa. Guretzat euskalzaletasuna zaletasun filologiko edo literario hutsik ez dela. Guzi honetatik ez da segitzen, euskalzaletasunak oso-osorik politikaren mende ibili behar duenik. Bai, ordea, politikarik gabeko euskalzaletasunak irtenbiderik ez duela. Zuzen ala oker, Aranak euskarari planteamolde politiko bat eman zion.

Helburua, denok dakigun horixe zuen Aranak ere:

El único remedio está en el dinero: y éste no se encuentra. El aldeano sabe de sobra que el euskera de nada le sirve al hijo. El remedio está, pues, en fundar industrias, sostener compañías navieras, organizar sociedades de artes y oficios, hermandades benéficas y de mutualidad, de pesca, de agricultura, de ganadería, de apoderarse o abrir vías de comunicación... NACIONALIZANDO TODAS ESAS ESFERAS DE LA VIDA, de suerte que *el euskera sirva de algo*, porque sea obligatorio para tener parte de ellas... Es preciso que el *euskera baste*, y es el caso que no sirve más que para hablar de operaciones agrícolas.

Zein planteamolde politiko egiten zion Aranak euskarari? Zein balio ikusten zion, bere ikuspide politikoetan? Inportantzia haundia ematen zion. Gaztelaniaren eta katalanaren aldean hizkuntza latinorik ez da. Euskara, hizkuntza guzien artean, euskal arraza beste arraza guzien artean bezalaxe, fenomeno bakana ta bakarra da munduan. Aranarentzat biziki inportantea zen hori.

Euskarak euskal herria bere bakartasunean mugatzen eta hesitzen du. Kanpotiko kutsadura orori ateak hersten dizkio: erlijio gabeziari, inmoralkeriari, liberalismoari, eta abar. Nazioa babesten du. Euskara, hein hortan, hizkuntza eder eta beneragarri baino askoz gehiago da. Nazioaren muraila. Tresna politiko bat, arrazaren zerbitzuko, noski. Euskal arraza jatortasunaren babesa. Garbitasunaren defentsa (une berean, garbitasun horrexen espresio ta proba den bezala). Eta berak ere garbi izan behar du, kutsadurarik gabe.

No el hablar este u otro idioma, sino la diferencia de lenguaje es el gran medio de preservarnos del contagio de los españoles y evitar el cruzamiento de las dos razas. Si nuestros invasores aprendieran el euskera, tendríamos que abandonar

éste, archivando cuidadosamente su gramática y su diccionario, y dedicarnos a hablar el ruso, el noruego o cualquier otro idioma desconocido para ellos.

Era honetan, Aranak euskarari mogimendu politiko (isolazionista) baten bultzada eman zion. Indarra. Urkixok edo Azkuek, pertsonalki euskararen alde gutiago egin gabe, eman ez ziotena. Baina euskararen arazoa arras uste politiko batzuen menpean lotu zuen, hizkuntzak “mugapen” sozial hutsak ez direla ahaztuaz. Garbizalekeriak beste zuzenepiderik ez du: euskal herriaren berezitasuna zaintzea. Hizkuntzaren garbitasuna ezezik, hizkuntza bera ere, Aranaren begitan, ez bait da bestetarako. Erdi Haroko hirien antzera: hiria ingurutik, kanpotik, biltzen duen harresia euskara litzateke, hiria bera, arraza. Harresia behera botarik ere —defentsa galdu arren— hiria hiri.

Hizkuntzari buruz Arana beti “gainegitura” soil batez bezalaxe mintzatu da, gaur esango genukeenez. Mamia beti ere euskal arraza da, bere izpirituarekin, tradizioekin. Hizkuntza, azala. Mintza-*bide* soil eta huts, mintzagaiaz beraz bat egin gabe. Izpiritua bera taxutzen duela, esan ohi da orain. Aranak ez zukeen holakorik ontzat emango. “Zer da aberriaren hizkuntza, azken finean, nazio batetako jendeak beren artean ideiak eta sentimentuak adierazteko seinalpide huts besterik? Baztertzen bada, eta haren lekuan beste bat hartzen bada, nazioa halare bere helburura bidera liteke, eta bere destinoa bipilki kunpli lezake” (*Baserritarra*, 1897-ko abuztuak 11). Hau da, euskararik gabe ere Euskal Herriak oso-osorik Euskal Herri izaten jarrai lezake.

Horregatik, hizkuntzaren balioa beste zerbaiten erreferentzian dago. Honetan ez dago alderik Aranaren eta egungo supermarxista batzuen artean: horientzat erokeria bait da berek “esentzialismo linguistiko” deritzaten hura. Hizkuntzari erreferentzia hartatik dator kio bere balio guzia. Aranaren kasuan, arrazarekiko erreferentziatik, batik-

bat. Eta, gure burubideari gertuagotik bagagozkio, abertzaletasunarekiko erreferentziatik. (Besteek, klase borrokarekiko zeretik dela, esango digute). Abertzaletasunik gabe hizkuntzak ez du deus balio. Hizkuntza indartzea ta zabaltea baino ardurazkoago da abertzaletasuna zabaltzea: hau eginez gero bestea berez etorriko da. Arana zeharokoa da. “Hizkuntza jakiteak ez du batere serbitzen, abertzale izan gabe. Abertzaletasuna dena da, euskara jakin gabe ere... Aberria ez du euskarak salbatuko; abertzaletasunak salbatuko du”.

Hizkuntza galtzea zorigaitz haundia litzateke. Baina —hala Aranak— ez erremediorik gabekoa. Hiztegi on bat eta gramatika on bat edukiaz gero, hizkuntza beti berri-rabaz liteke. Arraza nahastuaz eta galduaz gero, ordea, ez dago zer eginik. Dena galdu da. Oin-oineko oinarria arraza bait da.

Beraz, euskara hutsa eta euskaraz bakarrik egiten duten “maketoz” beteriko Bizkaia baten eta gaztelania baizik ez dakitenen arraza garbiko Bizkaiaren artean, Aranak ez du zalantza zirkinik ere: zuzen-zuzen arraza garbiko Bizkaia erdalduna hobesten du. Zeren-ta arraza garbiak “sustantzia bizkaitarra”, euskal zer-izana, salbatzen omen bait du, erdal eraskinen batzu gorabehera. Arraza garbi honen erdara, Aranak diozkunez, “akzidente arrotz” bat baizik ez litzateke. Mami jatorra genuke, halare. Bizkaian maketoak bizi badira, aldiz, sustantzia bera galdu da, eta akabo dena, axala (euskara) bizkaitarra badaramate ere:

Aukeratu beharko bagenu, alde batetik Bizkaia-
ren erabateko ta era guzizko heriotzaren artean
—hau da, bere arrazaren eta hizkuntzaren suntsi-
pena, bere legeen eta historiaren eta bere izenaren
beraren oroitzapen oro ta eskribuzko berri oro gal-
tzea ta ahaztea—, eta, beste aldetik, Bizkaia ma-
keto bat, bere eskuko eta beregain izaki, gure ar-
basoen legez gobernatua, euskararen jabe eta geure

historiaren oinordeko ta jarraikile: bion artean, guk, aukera aukeran, lehenengoa hobetsiko genuke:

.....

Bizkaia foral eta euskaldun (euskaradun) bat posible balitz, baina arraza maketoz, halakorik errealizatzea ta gauzatzea, munduko gauzarik nardagarriena izango litzateke, herri baten aberraziorik makurrena, eboluzio politikorik bidegabezkona eta historiako faltsifikaziorik izugarriena (ik. *Bizkaitarra*, 1894-ko urriak 31-koa; 1893-ko abenduak 17-koa).

Zergatik da euskara euskaldunontzat begiragarri? Arrazagatik. Eta, beraz —Aranak hortik atera dituen ondorioak ikusten segitzeko— arrotzek, maketoez, ez dute inolaz ere euskara ikasi behar. Euskaldunak ez dio erdaldunari (euskal arrazako ez denari) sekula ere ta behin ere euskara irakatsi behar. “Gure hondamendia izanen litzateke gure lurraldean bizi diren maketoak euskaraz mintzatuko balira (...). Bizkaitarren obligazioa, berek hizkuntza nazionala mintzatzea eta maketoei eta espainolei hizkuntza hori ez irakastea, da (...). Hizkuntza diferentzia da espainolekiko kutsapenetik begiratzeko eta bi arrazen gurutzapena ebiltatzeko bide hoberena”.

Euskara Van Eys holandresaren gramatikaz eta hizte-giz ikasi zuen “euskaldun berri” abandotarra, zirti-zarta, azkenbururaino doa: gure inbasoreek euskara ikasten badute, guk abandonatu egin beharko dugu, haren gramatika ta hiztegia arduraz gordeaz, eta beren zangopean gauden artean, geuron buruok beharko ditugu behartu erruso, no-ruogo, edo beraiek ez dakiten beste edozein hizkuntzatan hitz egitera...

Aforismo borobil pare bat, errematerako:

Euskaldun askok ez daki euskararik. Gaizki.
Zenbait maketok badaki. Are gaizkiago.

Euskararik ez dakien ehun maketok, bidegabe gaitza egiten dio aberriari. Dakien bakar batek, hainbat bidegabe gaitzagoa (*Baserritarra*, 1897-ko ekainak 20).

“Euskaldunak euskara bere arrazaren hizkuntza delako maite ez badu, beste zergatik maitatu behar du, orduan?”

* * *

Ohartxo batzu. Eta lehenengoa integrazioari buruz. Problema latza dugu hau eta soluziorik ez zaio batere eman. Okerra ez da, ez zaiola eman. Ez zaio eman nahi izan. Esaten dugu, integrazioari ez dela burutu: 1. Estatua interesaturik zegoelako (egia da), 2. burgesiak ardurarik ez zuelako (egia da), 3. euskal kultura ahulak indar integrarazlerik ez zuelako (egia da), 4. langile etorkinok ideologia xobinistaz burua beterik zeudelako (egia da), eta abar. Baina ez dugu esaten: *ez dira integratu, abertzaleek integrazioari nahi ez zutelako*. Hori ere egia. Eta ez dugu esaten: *ez dira integratu, sozialistek integrazioari nahi ez zutelako*. Egia bait da hori ere.

Beste ohartxo bat arrazismoari. Oraindik ere abertzaletasunaren kontrarioak behin ta berriro enpeinatzen dira esaten, abertzaleak arrazista direla. Batzuetan zuzen-zuzen, horrelaxe: abertzaleak arrazista direla. Beste batzuetan, zeharbidezago, “korrante ideologiko” arrazista dela hori bere funtsez..

Cualquiera que conozca siquiera medianamente la doctrina de Sabino Arana, sabe muy bien que los elementos mencionados [arrazismoa, eta abar] no aparecen en ella ligeramente esbozados ni *dominados* por otros elementos progresistas, sino que, por el contrario, son *esos elementos y no otros* los que tienen un mayor peso específico, los

que caracterizan fundamentalmente esta corriente ideológica (Zer egin?, mayo-junio 1970, zenb.5; nire azpim.).

“Korronte ideologiko” hortan arrazismoa zinez hain nagusia izan ote den, eta noiz arte, ez dugu eztabaidatuko. Oso oker ez banago, “korronte ideologiko” horretan aspaldi utzi zuen arrazismoak dominante izatea.

Sabin Aranari dagokiola, Aranaren sistematzailleek ahobatez aitortzen dute, haren pentsabidean zentrala dela arraza konzeptua.

Baina, lehenengo, sistema dudagarriak dirudite, Aranaren obra gehienbat periodistikotik atera diren sistemek (Iberorenak, nahiz Larronderenak, adibidez), Arana ez baitzen pentsatzaile sistematikorik. Aranak baditu honelakoak ere (eta bere politikaren helburu guziz erlijiosoaz esanak eta, ahaztu egiten ditugu orain):

La mayor desgracia del bizkaino no es la relación de sus costumbres, ni la corrupción de su raza, ni la invasión maketa; ni siquiera la esclavitud a que le ha reducido el español. No; la desgracia más grande del bizkaino es el no conocer a su Patria (*Bizkaitarra*, 1894-eko apirilak 27).

Eta, bigarren, arraza konzeptuaz asko baliatzen bada ere, Aranak apenas du benetako arraza konzepturik. Hori ere Aranaren ikerle guziek aitortzen dute. “Arana no era un racista biológico” (Stanley G. Payne). “Pero Arana no reflexionó, a nuestro juicio, sobre el concepto mismo de raza, sobre su contenido y significado, suficientemente. Desde luego, no la concibió, prácticamente, nunca al modo científico, como una serie de caracteres físicos transmisibles por herencia. Arana entendía la raza más bien como una cierta aptitud religioso-moral, definida sobre todo negativamente en relación con los defectos de la raza española, que sólo los vascos poseían y podían legar a sus des-

endientes”. Eta: “Arana, con buen criterio, rehuyó el problema de los orígenes de la raza vasca, señalando como único criterio a seguir en la cuestión el del idioma” (J. J. Solozábal).

Beraz, Aranagatik beragatik ere ez dirudi oso egokia, “arrazista” zenik esatea (haren xenofobia estremoak, nire ustez, hori esatea zuzenesten badu ere). Larrondek berak maiz kakotx artean idatzi du hitz hori: “arrazista”. Arana zena esateko, nik uste, egokiago da, xenofobo fanatikoa eta intransigente beldurgarria zela (haren “arrazismoak” txit karaktere erlijioso ta moralista duela, nabarmen dago). Xenofobia horren estremoak, aldiz, ez daude gutiago nabarmen. Ezaguna da haren itsukeria itsua, Kanpioni berari buruz “sólo le conocemos un apellido y ese apellido es maketo”, botatzen zuenean. Edo ta holakoxe testu politetan:

Libre e independiente de poder extraño, vivía Bizkaia, gobernándose y legislándose a sí misma, como nación aparte, como estado constituido; y vosotros, cansados de ser libres, habéis acatado la dominación extraña, os habéis sometido al extranjero poder, tenéis a vuestra Patria como región de país extranjero y habéis renegado de vuestra nacionalidad para aceptar la extranjera. Vuestros usos y costumbres eran dignos de la nobleza, virtud y virilidad de vuestro pueblo; y vosotros, degenerados y corrompidos por la influencia española, o los habéis adulterado por completo, o los habéis afeminado y embrutecido. Vuestra raza, singular por sus bellas cualidades, pero más singular aún por no tener ningún punto de contacto o fraternidad ni con la raza española, ni con la francesa, que son sus vecinas, ni con raza alguna del mundo, era la que constituía a vuestra Patria Bizkaia; y vosotros, sin pizca de dignidad y sin respeto a vuestros padres, habéis mezclado vuestra sangre con la española o maketa, os habéis herma-

nado y confundido con la raza más vil y despreciable de Europa, y estáis procurando que esta raza envilecida sustituya a la vuestra en el territorio de vuestra Patria. Poseáis una lengua más antigua que cualquiera de las conocidas, más rica que vuestros montes, más vigorosa y altiva que vuestras costas, más bella que vuestros campos, y era la lengua de vuestros padres, la lengua de vuestra raza, la lengua de vuestra nacionalidad; y hoy vosotros la despreciáis sin vergüenza y aceptáis en su lugar el idioma de unas gentes groseras y degradadas, el idioma del mismo opresor de vuestra Patria. Era antes vuestro carácter noble y altivo a la vez que sencillo, franco y generoso; y hoy vais haciéndoos tan viles y pusilánimes, tan miserables, falsos y ruines como vuestros mismos dominadores...

Aranaren xenofobia, intransijentzia, “arrazismoa”, eta abar, gauza aski ezagunak dira. Aspaldiko gauzak dira, orobat, ala ez? Ez da nonbait hain aspaldikoa: eskuinetik nahiz ezkerretik behin ta berriro ateratzen bait digute pelota hori... Aranaren azterkariak oso kontuz ibili ohi dira, haren “arrazismoaz” hitz egiteko. Horien kontrast, zenbait “politikok” hainbat gustorago aipatu ohi dizu hura. Eskuinean nahiz ezkerrean: hau ere, euskal asuntoetan eskuinek eta ezkerrek aisa koinziditzen duten horietako kasua bait dugu! Beraz, zein problema da, gaur, Aranaren arrazismoa? Egia esateko, hauxe eta besterik ez: funtsean inori ez dio axola Arana bera zer zen; abertzaletasunari tatxatu nahi izaten zaio arrazismo hura. *Oraingo* abertzaletasunaren mendran atera nahi izaten digute hura. Ezkerrekoek hori mila aldiz egin dute (ETA sortu zenez gero batez ere). Eta eskuinak ere, bera zer den ahazturik agian, arrazismoa egotzi nahi lioke abertzaletasunari. Tomás Mestre harek, adibidez, Stanley G. Payneren liburua reseinatu zuenean:

Que un Arana pudiera ser EL HUEVO INICIAL de lo que iría sucediendo, con todas sus rectificaciones, y, ULTIMAMENTE, HASTA GIROS DE NUEVAS EXTASIS (?!), no deja de ser curioso... Sabino Arana, hijo de carlista furioso, notable y notorio, conservó y hasta llevó más allá el frenesí religioso de la familia. Religiosamente, un superultra; políticamente, un populista aclasista; históricamente, un mítico; globalmente, un racista de tomo y lomo... le sobrarían atributos en contextos ulteriores para ascenderle a fascista de primera división (*Revista de Estudios Políticos*, 200-201, 1975, 359).

Tripako min ematen duena ez da Sabin, oraingo abertzaletasuna baizik. Oraingo abertzaletasunari ozka egin nahi liokete, Aranari zaunga ari diren zakur horiek. Oharkabe-oharkabe omenaldi egiten diote Aranari, nolana ere...

Dena den, Aranaren arrazismoa ala "arrazismoa" gorabehera, egungo abertzale sozialistak buruan duena euskal nazio berria bait da, eginahal guziz enplegatu beharra dauka integrazioaren alde xenofobia txoro gabe. Azkenean hori da kontua. Aranaren ikuspide horiekin ez herririk eta ez aberririk egin liteke.

EUSKARA, NAZIO HIZKUNTZA

Utz ditzagun ezker eta eskuin espainolak. Utz ditzagun ezker espainolistak ere, oraingoz behintzat: euskararen alde ezer egiten ez duten horiek, noizean behin aho beteko hitz haundi borobilak esan besterik. Eskuin abertzalearekin dugu orain hauzia. Ezker euskalzale guziak bloke bat edo egiten du puntu honetan.

Errealitate batzuekiko erreferentziaz esan genezake: euskaldunak gara. Euskal instituzgoei erreferentziaz, historiari, eta abar. Behar-beharrezko erreferentzia bat euskararekikoa da. Euskararik ez dakienak ere, euskarari eta euskaldunei erreferituaz definitzen du bere burua euskaldun bezala. Euskara da lehenengo ta oinarritzko erreferentzia, lehenengo instituzgoa. Irujok hitzokin iriki du bere liburua, *Instituciones jurídicas vascas*: “La lengua de la raza constituye la primera institución de la vida vasca... El euskera es la primera de nuestras instituciones”.

Gerra osteko mogimenduan, deiturei (arrazari) edo historiari edo Dretxoari (Foruei) baino askoz inportantzia gehiago ematen zaio euskarari, abertzale teorian nahiz praktisan. Beraz, eginahalak egiten dira, euskara Euskadiko nazio hizkuntza gisa gaitzeko. Zer esanik ez, Aranak ez bezalako erizpideak erabili behar izan direla eginkizun hortan

(isolazionismorako haren arrazoiek, esate baterako, ez zuten balio iadanik; arras ikuspidetako jokabide kontrarioak hartu beharko dira). Eta ezin itzurizkoa izan da, “aranisten” eta “antiaranisten” artean borroka gogor eta mingarria. “Aranista” pretensio horiek, de facto, eskuindarrak izan ditugu. “Antiaranista” deitu horiek nekez esan liteke ezkererak zirenik —batzu, behintzat, aranista ziren— baina ezkererak *rôle* batetan aurkitu dira; euskara moderno, bizi, batua nahi zutelarik. Ateista, marxista, eta holako ganadu gaiztoekin batera, beste “aranista” zintzo haiek esaten zuten bezala behintzat. 36-an bezalaxe, berriz ere... Eskuindar horientzat, beren etsaiak beti komunisten aliatuak besterik ez dira.

Aranaren uste asko abandonatu dela, begien bistan dago. Aranek egin lan asko, atzera desegin behar izan dela ere (ortografi-batasuna, adibidez), ukatuko ez duguna da.

Baina Arana ez bezala dabilen oro, eta Aranaren kritikan ari den oro, ez da beste gabe antiaranista. Hobeki: gauza batzuetan antiaranista dirudiena, beste batzuetan aranistarik zintzoena izan liteke. Ohartuki ala oharkabeki. Egunotan holakoxe sinplekeriak esan beharra dago, Aranaren kritikarik egin dutenen batzuk, euskararen etsaitzat ere jo izan bait dira.

Honela, mogimendu abertzale sozialista: 1. batzuetan, *ez dela aranista*, probatu beharrean aurkitzen da; eta 2. *ez dela antiaranista*, probatu beharrean, beste batzuetan. Mogimendu honek bere pentsakera propioa bait du.

Orain ikusiko duguna, da, *ez dela antiaranista*, horregatik aranista izan gabe.

Gerra ondoko giro berritasuna hizkuntz arloan nabaritu zela lehenengo, uste dut, politikan baino lehenago. Aranaren Ideia bizi-bizirik zegoen. Baina ideiek ez zuten beti konbentzitzen; beste ideia batzu zituen jendeak ordurako. Berezka dezagun berriro problemaren alde bi, alferrik ez nahasteko: 1. euskararen aldeko dinamika; 2. euskarari buruzko uste ta asmo konkretuak.

Euskararen aldeko dinamikaz: “eztau iñork onek [Aranak] beste euskera alde egin; ordurarte jadetsi eza bai eban lortu: euskal biotzetan ele zarraganako sua biztu-erazo” (S. Onaindia).

Euskararen aldeko dinamikak ere bere teoria du: euskaldunaren ezaugarri inportante bat euskara dela. Euskal Herriak euskara behar duela, eta abar. “El euskera es elemento de nuestra nacionalidad, timbre de nuestra no interrumpida independencia de las edades pasadas y sello de nuestra raza” (Arana Goiri). Alde honetatik, Aranaren ikusmoldea, gerra ondoan, abandonatu ez, baina indartu ta sakondu egin da. Adibidez, egunotan, herritasunarekiko hizkuntzaren ikuskizunen gorabehera, soziala nahiz politikoa, biziki azpimarkatzen da. Aranak egin zuen baino gehiago egin ere. Inoiz baino gehiago lantzen da herritasunaren eta hizkuntzaren arteko loturen gorabehera. Hortik segitzen diren ondorioak atera ere dira. Euskalzaletasuna gogotik bizkortu da: jendeari euskara ikastera eta irakurtzera eragin nahi zaio; klasikoak eta, inoiz haina estudiatzen dira; ahaleginak egiten dira literatura moderno bat sortzeko; Alfabetatzeko kanpainak, liburu produkzioak, eta bestek, aski erakusten duelakoan nago, euskal bihotzetan Aranak biztu zuen garra, ez dela itzali. Eta guzi hortan hazaldi gaztea ez dela batere gurasoena baino hotzago edo epelago. Euskararekiko zaletasun hori —politikari euskararen axolatzera eragite hori, adibidez— Aranari zor dioguna bada, belaunaldi gaztea biziki aranista dela, esan behar. Eta, du darik gabe, Manterolari eta ezer kendu gabe, Azkue ta Kanpion eta Urkixo baztertu gabe, gehien-gehienik Aranari zor diogu hori guzia.

“A quién, después de Dios —aitortzen zuen Azkue— se debe el renacimiento vasco en todas sus manifestaciones? Fundamentalmente, principalísimamente, a Sabino de Arana Goiri.”

Orixek ederki adierazi du:

Ez politikaz bakarrik, bai idaz-tankeraz ere, ildoa urratu digu. Euskera garbitzea ez-ezen, euskeraz burutapen sendoak agertzea izan zuen xede ta asmo, ta garai artarako inork ardietsi zezakeena ardietsi zizun... Andik onata euskera aurrera doa, arek eman ziztua geitzen dularik. Ez dakigu illen ote den, agian ez, baino biziko bada, geroak esanen du Aranaren bultzadaz noraino diteken gure mintzo ta literatura.

* * *

Sortu zan Arana ta esnatu da euskera ta inarrosi du burua bizkor. Politikaz txintik eztatuz aterako, ezpaitagokit; euskeraren esnatzeari nagozu. Mintzatu zen Bizkaia, ta itzetik ortzera 'inbido' otsegin zigun beste euskaldunei. Gogonduri ta buru-ernari zen aditzeaz Gipuzkoa, ta atzenik 'ordago' jardetsi. Jokua 'euskera' izaki, alegia, ta Lapurdik 'iduki', eskua zedukalakoan (*Euskal Esnalea*, 1927, or. 151 ta 246).

Gaur, beharbada, esajeratuak iruditzen zaizkigu "el pueblo vasco era un pueblo que se iba" eta holakoak (Bernardino de Estella), eta Sabineek astindu eta iratzarri zuela. Baina garaikideek eta ondokoek gauzak halaxe sentitu dituzte, antza. Lizardik, berak zekien bezain polliki, azaldu zigun:

“Aren [Aranaren] argibidez ni yabetu enegan bazala norbait atxilotu.

Ordun yatxi nazu lezera;

nork gure muñean dugun itzalera.

Dato historiko bat da, guziz objetiboa, zeinek zer inpresio egiten dion bere gizarteari. Historiagileak errespetu guzia zor dio, ekintza baten balio historikoa baloratzeko kriterio bat eta bide bat horixe dugunez gero.

Onaindiak Eguzkiarekin konparatu du (*Euskal Literatura* III, 1974, 98); lehenago, konparazio bera zerabilen Orixek, nolabait, argia sortu eta esnatu ta burua bizkor inarosten duen ardi edo behorarekin alderatzen zuenean euskara (goian aipatu testuan); ilunetan argitu zuen haren argibideaz mintzo da Lizardi. Espresakera literarioak izan ala ez izan, datoak dira horiek historiagilearentzat.

Gure begirune guzia dute.

Gerra aurrekoek aho batez aitortzen digutena, gerra ondokoek jarraitu dute. L. Mitxelenak: “De Arana Goiri más que de nadie procede en último término el mayor empuje y ambición de los escritores posteriores” (*Historia de la Literatura Vasca*, 1960, 143).

Eta Luis Villasantek: “El ha aportado sobre todo una fuerza. Una fuerza que se siente realmente presente y que ha sacudido hondamente la conciencia del país, impulsando a los vascos al trabajo por el cultivo y vida del viejo idioma. Fuerza que influye aún en los que no comparten las ideas políticas y lingüísticas de Sabino, fuerza que se siente operante aún en los que le combaten” (*Historia de la Literatura Vasca*, 1972, 290).

BAINA Autoreokin hasten dira erreparoa ere...

El es el responsable principal, aunque no el único de un cierto ideal de pureza que ha tenido larga vigencia entre nosotros. Ha consistido éste en rechazar los términos vascos de origen extraño, que, como se sabe, no son escasos, aunque estuvieran ya avecindados en la lengua desde fechas muy antiguas. Todavía resulta más grave su tendencia, acentuada en algunos de sus discípulos, a innovar en la gramática siempre que la “lógica” parecía exigirlo. Todo esto ha sido en resumen poco provechoso para la lengua: afortunadamente, el resultado necesario de esta tentativa, LA RUP-TURA CON LA TRADICION LITERARIA Y

EL HABLA POPULAR, no ha llegado a consumarse (L. Mitxelena; nire azpim.).

Honekin bigarren puntuan gaude: euskarari buruzko uste ta asmo aranista konkretoetan.

Gauza bat dago garbi: euskara nazio hizkuntza bezala ikus nahi dezanak, ez baserri hizkuntza bezala soil, eraberritzen saiatu beharko du.

Euskal Herria euskaldun. Baina nolako euskararen -dun? Hots, zein bidetatik landu ta eraberritu euskara?

Bizitza publikoan euskara modernorik erabiliko bada, euskalzaletasuna bakarrik ez da aski. Ikaragarritzko lana egin beharra dago, euskara lantzeko eta egokitzeko. Euskara bazterturik egon da. Aranaren merezimendua ez da euskararenganako zaletasuna sutzea bakarrik izan: euskara literarioa "erreformatu" beharra ere ezagutu zuen Aranek, hortan ere gure asmoen aitzindari dugularik: moduetan ez bada, bai xedean; moduetan, ordea, eta hortaz ari gara, inola ere ez...

Badakigu Aranaren erreforma asmoak nolakoak ziren: *Lecciones de Ortografía del Euskera bizkaino*, 1806; eta *Eukadi* aldizkariko *Análisis y reforma de la numeración euskérica* eta *Análisis y reforma del Pater noster del euskera usual*; eta izendegiaren eraberrikuntza (Koldobika, Kepa eta abar, izenak asmatuaz: *Deun ixendegi euzkotarra*); eta lesikoaren jorra ere (makina bat hitz egoki kondenatuaz eta berri sortuaz). Erreforma lanok, beste zenbaitek hedatu eta sakondurik, euskal aditza, morfologia eta, azkenean, zernahi eraberritu edo eragabetu zuten.

Buruhauste gehienak sortu dituen, garbizalekeria izan da: "erdal kutsuzko" hitzik ezin ikusi hura (aingeru, eliza), hitz haien ordez "garbiak" asmatzeko (gotzon, txadon). Baina guzi horren kritika, "terminachos" omen direlako haie-na alegia, Unamunoz aparte ere nahiko jendek egin du: Ibarrek eta Lekuonak, adibidez; eta, besteak beste, Orixek eta Aita Onaindiak ere bai. Kritikarik sinesgarriena, hala-

re, egungo praksia bera da, “garbizaleen” beren praksia ere. Zein gehiago, zein gutiago, Aranaren teorietatik eta praktiketik denok aldendu gara.

Aldentzea, ordea, makina bat hasarre eta borroka kosta izan zaigu. Eta, ondorioz, hamaika zapuzkeria gelditzen da oraindik. Zoritzarreko batzuk “Aranaren etsai” bezala estanpatuta gelditu dira behin betiko. Erosoegi ta faltsuegi dirudi, nolana ere, jende askoren sentimentuak destainatuaz, garai batetan Arana gogorki bezain ausarki astindu izan dutenok —Villasante eta— antiaranista, edo euskararen etsaitzat ere, jotzea; baina, hori bai, une berean, haien kritikek eta ahaleginek ekarri dizkiguten emaitzak lasai-lasai bereganatzea eta aprobetxatzea, zeintzuei zor dizkiegun ahaztuaz. Aranak amestu zuen hartatik mila leguatara dabil, jasotzen ari garen literatur eta kultur euskara. Berau ere kritikagarria, noski; baina apenas Aranaren hura baino kritikagarriago. Arenazak, esaterako, lasai samar idazten ditu gaur honelako hitzak: *liburu*, *editorial*, *probetxu*, *gustora*, *komeni*, *kontradizino*, *meritu*, *gradu*, *boto* eta beste. Gutiago behar zen noizpait, garbizaleen egurra jasotzeko! Nola gertatu ote dira, ba, kanbio hauk? Berez, beharbada, eta inork eragin gabe?

Besteak, indignaturik, bere jantziak urratuko ditu, inork esaten badu, Aranaren utopia (euskara moderno baina guziz garbia), mundu honetako edozein lehen utopia bezala, nahiko primitibo zela eta akatsez beterik dagoela. Eta praksiari dagokiola utopion zuzenketa bideratzea. Baina hipokrita horrek, ihardun halaxe dihardu berak ere, eta jantziak urratuaz ez du larru-bixian gelditu besterik egin. Horrek ere “izen” eta “euskera-euskara” idazten du, eta “ixen” eta “euzkera” baino hobeak direlakoan arituko da, noski. Eta berdin “aingeru” ta “zeru” idaztean, “gotzon” eta “donoki” edo “ortzi” ordez.

Liturgi Batzordeak sinestunei errezarazten dien Aita Gure hori, zer esanik ez: hori euskararik ez dela, esango zukeen Aranak, eta euskaldunek erdaraz errezatzen dutela.

Ortografiaren inguruan izan dugu beste makina bat istilu. Baina begira hor ere: AGUR zena, GOIZ ARGI, ALDERDI horietan bertan, esate baterako, Aranaren erreformak “kontrarreformatuak” edo izan bide dira. Aranaren neurritz neurtzekotan, aldizkari mordoiloak eta ortografia txarrekoak dira horiek denak, berek kritikatu ohi dituztenak bezalaxe.

Ez dakit zeinek esan zuen, Marxen ideiak, banaka hartuta, den-denak errefutatatu direla, baina marxismoa ez. Euskaldunoi berdin gerta dakiguke Aranarekin. Beharbada Aranaren ideia bakan denak baztertu beharko ditugu, ez dakit: baina, halare, Euskal Herriak Euskal Herri iraun nahi dezan artean, aranismoa ez da errefutatuko. Hala dirudi. Euskalzale globalki antiaranistarik ez da konprenitzen. Puntu konkretu askotan Aranak ez bezalako eta, areago, Aranaren aurkako jokabideak hartzea, ordea, oso erraz uler daiteke. Puntu konkretu partikularretako antiaranismoa. Nahitaezkoa da hori.

Euskara prozesotan dabil, hots, bizirik dabil. Eta euskalzaletasuna ere —Arana aurretik eta Aranaz gero— prozesotan ari da. Prozesu hortan ikusi behar da Sabin Arana.

Besteak beste, lehen egin izan dena egina dago, nahiz gaizki egina iduritu guri; lehen esana esana dago, oker esana dagoela baderitzagu ere (L. Mitxelena).

Prozesotan ikusita, Aranaren haunditasuna hain zuzen haren konzepzioan datza: euskarak Euskadiko nazio hizkuntza izan behar duela; ez, baserriko hizkuntza.

Alabaina, hemen Aranaren “utopia” barne kontradikzio batetan jausten da, haren pentsabide politiko guziaren antzera. Zeren ta, alde batetik, euskara bizi modernoa nahi bait du: finantzetan, merkatalgoan, administrazgoan, eta abar, erabil dezaguna; bestetik, aldiz, euskaldunok zeharo isolatzen gaituen hesia ta muga izan behar du euskarak. Hori utopietan ez da kontradikziorik, agian. Errealitatean, bai.

Beraz, 1. Aranaren helburua euskara moderno eta gizarte bizitzarako gaitua da: hortan gaurko “antiaranistarik” gehienak ez dira aranistarik garbienak baino batere gutiagoko aranista; 2. Aranak berak euskara “modernotzat” edo jotzen zuena, nazio hizkuntza gisa nahi zuena, gaurko gehienoi moderno ez beste guziaz, eta hizkuntza modernoaren zuzen-zuzen kontrarioa, iruditzen zaigu; nazio hizkuntzatarako ezgauza, hortakoz. Horra komeria. Baina Aranak bi alderdiak baditu (1. euskara modernoa, 2. euskara garbia), zein da benetan aranistago: euskara garbi-garbi zalea, ala euskara bizi ta moderno zalea? De fakto biok alternatiboak direla, bat ala bestea hauta beharrezkoak direla, Mitxele-nak eta nahiko erakutsia, eta praksian nahiko ikusia bait da.

Aranaren radikalismo garbizaleak bere izateko arrazoia izan du, bere garaian; besteak beste, eraso gogor batez honelako “euskarak” lurraren gainetik garbitzeko ere, betiko:

Jaungoikoa “da gauza bat, esan eta pentsatu alditequean baño ere excelenteagoa ta admirableagoa; jaun infinitamente poderoso, sabioa, justua, printzipioa ta fiña gauza guztiena”.

Garbizaletasun aranistak bere egiteko historikoa izan zuen ta ongi bete zuen eginkizun hura. Situazio konkretu batetan sortua, situazio hartako baldinkizunek mugatzen zuten. Orain aurrera segitzea dago.

Aurrerabide honetan, aldiz, “antiaranismoak” izen txit ezberdinak bateratzen ditu: Krutwig eta Villasante, batik-bat; eta Ibar eta Altube ere bai, eta baita Mitxelena eta Lekuona ere, eta, ez azkenik, Orixe edo Irigaray. Eta “antiaranismo” horren arrazoizkotasuna, praktikan behintzat, egun ia inork ez du ukatzen, batzuk oraindik zaputzean setatu arren.

Etxeparek, Etxeberri Sarakoak, Larramendik, Astarloak, Arana Goirik, bakoitzak bere utopiak izan dituzte, euskarak burua goititzeko. Baina prozesuan jarraitzen du-

gu, eta geure utopia guk ere. Geure asmo ta xedeak. Besteak beste, esate baterako, beste hizkuntzarik ez bezalako euskararik, aparteko ta paregaberik, ez dugu amets egiten guk, ez garbitasunagatik eta ez hobegatik, bera bezalako bakarra dena badakigun arren. Besteak bezalaxoa izatea ez genuke guti. Egia esateko, euskararen bitxitasunak ez ditugu ahaztu: haren barneko “logika”, zahartasuna, herritasunaren berezgarri ta ezaugarri izatea, eta beste. Baina ezta ere, guzi horrek ezin ahazteraz diezaiguke, hizkuntza lehen-lehenik komunikabide bat dela, eta hortan agertu behar duela bere balioa. Mitxelenak behin ta birritan esan izan duena:

Hizkuntza mintzabide bat besterik ez da; hobeto esan, gizonak duen mintzabidea, horren ondoan beste guziak eskas eta ezerez baitira (IH, 164).

Hizkuntza bat —eta euskara ez da besteak ez bezalakoa— ez da mintzabide bat besterik. Zerbaitetarako da, zerbait adierazteko, ez bere txilborrari begira egoteko (IH, 209).

Hizkuntza bat, gurea nahiz inorena, ez da gizarteko mintzabide eta adierazpidea besterik. Ona da beraz, elkarrekin mintzatzeko eta elkarri gogotak adierazteko delarik, mintzatzeko eta adierazteko balio duelako; horrexegatik beragatik da ona haizkora zorrotza, ebakitzeko sortua delarik, eta haizkora amutsa, berriz, txarra (IH, 213).

Lehenagoko guzi horien kontra ez dago zer esanik. Beren betekizuna bete zizuten, aldian aldikoa. Euskaldunok, gure konzientzian euskararen ardura sartzeko, ehundaka urtetako hainbeste lan eta teoria behar dugun burugogorrek bagara —eta ongi erakutsi dugu, bagarena— horiek ez zuten hortantxe aritu beste erremediorik. Gogotik saiatu dira kanpoko nahiz barrukoei euskararen bikaintasunak erakus-

ten. Euskaldunok euskal *zaletzen*. Kalamitatea zera da: eginkizun batak bestea errebesten zuela, gehienetan (Larramendi, hortakoz, garbizaleago zen Hiztegia asmatzera-koan, idazteari begiratzera-koan baino). Euskararen bikaintasun teoriok, jendea euskalzaletzeko beharrezkoak eta ego-kiak baldin baziren, desgokiak bait ziren usadioko eus-kara gidatzeko. Euskarari buruz iharduteko balio dute, euskaraz iharduteko ez.

Gaurko zeregina ez da euskarari buruz ideiak asmatzea, ezpada ideiak euskaraz ematea. Euskara haizkora ederra bait da, baina erdoiturik dagoena aspaldian. Haizkoraren ederra erakutsi digutenei, mila esker. Orain zorroztu egin behar dugu. Eta erabili, eta nazio guziak aisa erabiltzeko moduan prestatu, erabil dezan hitzez nahiz idatziz.

Honoko hau guzia ez da Unamunorena, Arana Goirik esana baizik:

Euskarak doi-doi balio du nekazaritzako go-ra beherak erabiltzeko besterik... Gaurko euskarak ez du ezertarako balio. Aitzitik, eragozpena da, atsekabe ta neke da, edozertarako: nork bere burua janzteko eta lantzeko, hezitzeko, ikasketarik egi-teko, salerosgorako, bizibiderako... Bihur ezazue euskara ezinbestezko eta behar-beharrezko hizkun-tza zuen aberrian, eta orduan ez du amaren semek baztertuko eta ahantziko. Egizue balio dezala he-zitzeko, eskolatzeko nahiz irakasteko, irabazteko eta prosperatzeko, eta, orduan bai, haren jabe de-nak arrazoinezko ikusiko du gordetzea eta zain-tzea; eta ez dakienak, bidezkotzat joko du ikasten ahalegitea. Bestela, lehenik, enbarazo hutsa izango da; eta, bigarren, alfer-alferrikako lujoa.

Hori dena, Unamunok abuztuan botatakoen ondoren, Aranek irailan gordin asko berresana duzu. Gaurkuok bai-no mizkinkeria gutiago zizuten mihinean, gauzei beren ize-nez deitzeko.

“Que el euskera *sirva de algo*” eta “que el *euskera baste*”: horiek ziren Sabinen kezkek.

Eta horietzek dira funtsean, hizkuntzari bagagozkio, sozialista abertzaleon helburuak:

- Euskara, piskanaka, indartu eta hedatu egingo du, beronen hedakuntzari lehentasuna emanaz, hizkuntz histori zapalkuntza luze baten ondorio guztiak desagertu arte (EHAS).
- Maila guztietan, euskal nazional eta herritar kulturaren berreraikuntza eta aintzinamendua, eta hori euskal langileriaren produkto eta adierazpen bezala ulertuz; eta, prezeskiago esanez, euskalduntzea eta euskara erabiltzearen normaltze osoa (KAS).

AURKIBIDEA

Arana Goiri eta Aranismoaren ondarea	13
Tradizionalista, ruralista	23
Katolizismo intransijente	33
Katolizismoa eta Sozialismo abertzalea	41
Doktrina sozial eskasa: nazio, klase	49
Aberriaren independentzia	69
“Euskadi” izena dela ta	105
Arrazismoa	111
Euskara eta euskal arraza	117
Euskara, nazio hizkuntza	131